

Gizarte aurreikuspen osagarriaren eskuliburua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Argitalaldia: 1.a 2008ko

Ale-kopurua: 750 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Maketazioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea:

ISBN: 978-84-

L.G.: BI -

AURKIBIDEA

Aurkezpena	9
<i>Joseba Azkarraga Rodero</i>	

1

Pentsio sistemak: Sistema publikoa eta gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemak	11
1.1. Jatorria eta historia	12
1.2. Pentsio sistema publikoa	13
1.2.1. Gizarte segurantzaren babesa	13
1.2.1.1. Erretiroa	13
1.2.1.2. Ohiko lanean aritzeko ezintasun iraunkor osoa, lan guztietarako ezintasun absolutua eta ezintasun handia.	14
1.2.1.3. Heriotza, alarguntza edo zurztasuna.	14
1.2.1.4. Langabezia.	14
1.2.1.5. Menpekotasun larria edo menpekotasun handia.	14
1.2.1.6. Osasun Laguntza	15
1.2.1.7. Gizarte Zerbitzuak	15
1.2.2. Gizarte Segurantzaren sistema publikoen ezaugarriak	16
1.3. Gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemak.	18
1.3.1. Jatorria eta gizarte aurreikuspenean kokapena	18
1.3.2. Gizarte-aurreikuspen osagarriaren ezaugarri nagusiak.	20
1.3.3. Aurreikuspeneko instrumentu motak.	21
1.4. Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundea (BASE).	24
1.4.1. BASE-n definizioa eta ezaugarriak	24
1.4.2. Motak.	26
1.4.3. Elementu pertsonalak.	26
1.4.4. Bazkidearen eskubideak eta betebeharrak	28
1.4.4.1. Bazkideen eskubideak	28
1.4.4.2. Informazioa jasotzeko eskubidea	28
1.4.4.3. Defentsa eskubidea	29
1.4.4.4. Bazkideen betebeharrak	30
1.4.5. Gertakizunak	30
1.4.6. Gobernu-organoak.	31
1.4.6.1. Batzar orokorra	32
1.4.6.2. Gobernu batzordea	33
1.4.7. BASE eratzeko prozesua	34

1.4.8.	Aurreikuspen planak sortzea.	37
1.4.9.	Ekarpen, prestazio eta eskubide ekonomikoen itzulketa eskubidearen bateraezintasuna eta mugak.	37
1.4.10.	Prestazioen onarpena.	38
1.4.11.	Aukera eskubidea.	38
1.4.12.	BASE-ko kide izatetik baja ematea.	39
1.4.13.	Kapital edo eskubide ekonomikoen mobilizazioa	39
1.4.13.1.	Banakako modalitatea	39
1.4.13.2.	Enplegu modalitatea.	40
1.4.13.3.	Modalitate elkartua.	40
1.4.14.	BASE erregistro berezia	41
1.4.15.	Kanpoko eta barneko kontrola	42
1.4.16.	Bukatzea eta desegitea	42
1.4.17.	Diziplina araubidea	42
1.5.	Beste erakunde batzuk.	43
1.5.1.	Planak eta pentsio funtsak	43
1.5.1.1.	Pentsio-planen funtsezko printzipioak.	44
1.5.1.2.	Ekarpenen mugak	45
1.5.2.	Aseguru kontratuak	45
1.5.2.1.	Kontratuko elementu pertsonalak.	46
1.5.3.	Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak	46
1.5.3.1.	Ezaugarri nagusiak	47
1.5.3.2.	Estalitako gertakizunak.	47
1.5.3.3.	Modalitateak.	48
1.5.4.	Enpresako Gizarte-Aurreikuspen Planak (EGAP) eta Aurreikuspen Plan Aseguratuak (APA)	48
1.6.	Erakunde publiko eskudunak	49
1.7.	Kanpoko eragileen harremanak eta zereginak.	50
1.7.1.	BASE	50
1.7.2.	Pentsio funtsak.	51
1.7.3.	Kanpoko beste eragile batzuk.	51

2 Aurreikuspen osagarriaren esparru juridikoa 53

2.1.	Sarrera	53
2.2.	Oinarrizko araudia.	53
2.2.1.	Europako esparrua	53
2.2.2.	Euskadiko esparrua	55
2.3.	Zerga araudia	56
2.3.1.	BASE-en zerga araubidea.	57

2.3.2.	Bazkide sustatzaile edo babesleen zerga-ordainketaren araubidea	58
2.3.3.	Bazkide oso edo arrunten zerga-ordainketaren araubidea	59
2.3.3.1.	Ekarpenen unea	60
2.3.3.1.1.	Sustatzaileak edo babesleak egindako ekarpenak	60
2.3.3.1.2.	Bazkide osoak egindako ekarpenak	60
2.3.3.1.3.	Zerga-oinarrian murrizketa	60
2.3.3.1.4.	Beste kenketa batzuk	61
	1. egoera praktikoa	62
	2. egoera praktikoa	62
2.3.3.2.	Jasotzeko unea	63
	3. egoera praktikoa	65
2.4.	Gobernu batzordeetako kideen betebeharrak eta erantzukizunak. Zigor araubidea	65
2.4.1.	Gobernu organoen prestakuntza eta kualifikazioa	66
2.4.2.	Urteko kontuak eta kudeaketa txostena	66
2.4.3.	Inbertsio printzipioen deklarazioa	67
2.4.4.	Beste norbaitek zaindu, kudeatu eta gordetzeko baimena	68
2.4.5.	Zehapen araubidea	68
2.4.5.1.	Xedea	68
2.4.5.2.	Arau-hauste motak	68
2.4.5.3.	Zehapenak	69
2.4.5.4.	Organo eskudunak	70
2.4.5.5.	Zehatzeko prozedura	70

3

Erakundearen ondarea inbertitzearen inguruko oinarriak	71
3.1. Kapitalizatutako pentsio sistemen ezaugarri nagusiak	71
3.1.1. Ekarpeneren kapitalizazioa	71
3.1.2. Interes-tasa eta inflazioa	72
3.1.3. Kapital finantzarioa	72
3.1.4. Interes finantzarioa	73
3.1.5. Eragiketa finantzarioa	74
3.1.6. Kapitalizazio sistemak	75
3.1.6.1. Kapitalizazio sinplea	75
3.1.6.2. Kapitalizazio konposatua	76
3.1.7. Errenta kontzeptua	78
3.1.7.1. Errenta baten kapital-balioa edo balio finantzarioa	78
3.1.7.2. Errenten sailkapena	79

3.2. Inbertsio-politikaren printzipio orokorrak	80
3.2.1. Inbertsio printzipioen deklarazioa	80
3.2.2. Inbertsio-printzipioak	82
3.2.2.1. Dibertsifikazioa	82
3.2.2.2. Errentagarritasuna	82
3.2.2.3. Arriskua	83
3.2.2.4. Epea	85
3.2.2.5. Likidezia	86
3.2.2.6. Interes-tasen eragina	86
3.2.2.7. Ziklo ekonomikoa	87
3.2.2.8. Kongruentzia	88
3.2.2.9. Batez bestekora itzultzea	88
3.2.2.10. Informazio-iturriak	89
3.3. Aktibo motak eta ezaugarriak	89
3.3.1. Errenta finkoa	90
3.3.2. Gordailuak	92
3.3.3. Errenta aldakorra	92
3.3.4. Inbertsio-funtsak	93
3.3.5. Produktu eratorriak	95
3.3.6. Higiezinak eta benetako eskubide higiezinak	98
3.3.7. Beste produktu batzuk	98
3.3.8. Inbertsio-irizpide orokorrak	98
3.4. Pentsio-sistemen aktiboak eta pasiboak	102
3.4.1. Hornidura teknikoaren definizioa eta kontabilizazioa	103
3.4.2. Aktiboak baloratzeko irizpideak	104
3.5. Inbertsio estrategiak	107
3.5.1. Errentagarritasuna/arriskua binomioa	107
3.5.2. Zorroen kudeaketa eta optimizazioa	109
3.5.2.1. Markowitzen zorroaren teoria	109
3.5.2.2. Zorroen kudeaketa-motak	111
Glosarioa	113
Bibliografia	133

Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzak 2006an onartutako Euskadirako Aurreikuspen Sozial Osagarriko Planak kudeaketa-prestakuntzaren estandarrak hobetzeko, eta Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen gobernu-organoei prestakuntza-eskaria bera sustatzeko beharra ezartzen du jardun-ildo batean.

Bestalde, *enplegu-pentsioen funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruzko ekainaren 3ko 2003/41 EB Zuzentarauak*, etorkizunean pentsiodunak izango diren pertsonen eskubideen mesederako izango den kudeaketa eraginkorra bultzatzeko helburuarekin, enplegu-sistemak kudeatzeko kualifikazioari eta esperientziari buruzko baldintzak biltzen ditu.

Ildo horretan, *Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua* esparru horretan txertatuta dago eta, Dekretu hori garatzen duen 2008ko abenduaren 3ko, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako Gobernu Batzordeetako kideek aurreikuspen sozialaren arloan duten prestakuntzari buruzko Aginduak, gobernu-organoen kualifikazioa azpimarratzen du.

Euskadiko BASEei lotutako biztanle kopurua, horien aktiboen bolumenarekin eta hornidura teknikoekin lortu duten tamaina, eta izan duten bilakaera kontuan hartuta, ezinbestekoa da bi eremu horietan (eremu teknikoan eta ordezkari sozialari lotutakoan, hain zuzen ere) prestakuntza egokia dela zaintzea. Hortaz, prestakuntza funtsezko pieza da erabaki hobeak hartuko direla ziurtatzeko.

Gutxienez, honako hauek lortu nahi dira: Gobernu Batzordeetako kide guztiek euren egitekoak uler ditzaten, eta dituzten betebeharrak eta erantzukizunak direla-eta, erabili eta ulertu behar dituzten agiri eta kontzeptuekin (juridikoak, aktuarialak, inbertsiorakoak, eta kudeaketarekin eta zergekin lotutakoak) eroso senti daitezten. Alabaina, gehiago ere lortu nahi denez gero, irismen handiagoko prestakuntza-ibilbide bat sustatu da.

Azken helburua honako hau da: erabakiak behar bezala hartuko direla ziurtatzea, eta gobernu-organoei beren egitekoa behar bezala gauzatzeko eta beren betebeharrak (kudeaketa eraginkorraren bidez, arriskuak kontrolatuz eta BASEen administrazio zuzena sustatuz elkartutako pertsonen eskubideak eta prestazioak hobeto babestea) betetzeko behar adinako ezagutza dutela bermatzea.


Esparru horretan aurkeztu nahi dugu Eskuliburu hau, BASEen Gobernu Batzarretako ki-deak prestatzeko formulak batera ezartzeko lehen urrats gisa, eta prestakuntza sustatzeko helburuarekin. Izan ere, prestakuntza funtsezkoa da sektorearen bikaintasuna eta gure Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen kudeaketa egokirako beharrezkoak diren pertsonen ahalik eta trebakuntzarik onena lortzeko.

Joseba Azkarraga Rodero
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
Eusko Jaurlaritza

1 Pentsio sistemak: sistema publikoa eta gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemak

Ongizate Estatu berrien barruan antolatuta dauden gizarte babeserako sistemen artean Gizarte Aurreikuspen Osagarria beste baliabide bat da. Ongizate Estatu, herritarren bizitza baldintzak hobetzera eta berdintasuna lortzera bideratutako gizarte-politikak hornitzen dituzten erakunde publikoen multzoa dela esan daiteke. Gizarte Segurantzaren sistema publikoa ardatz nagusia da eta gizarte aurreikuspenaren sistemak haren osagarriak dira.

1.1. irudia Ongizate estatua



1.1. Jatorria eta historia

Tradizio politiko eta kultural desberdineko bi herrialdetan, Erresuma Batuan eta Alemanian, sortu ziren Europako Ongizate Estaturako neurri aitzindariak eta ikuspegi berria ekarri zieten herrialde horietako babes-sistemei. Alde batetik, Erresuma Batuan¹ eskaintzen zuten babesa unibertsalagoa zen eta laguntzari garrantzi handiagoa ematen zitzaion. Ezaugarri horiek definitzen dute gizarte-babesaren eredu «anglosaxoia». Bismarcken Alemanian, berriz², gizarte-babesa profesionalagoa zen eta aseguratzearekin zerikusi handiagoa zuen. Ezaugarri horiek osatzen dute eredu «kontinental».

Bigarren Mundu Gerrako gerraostetik 70eko hamarkadaren hasiera arte hedatu ziren gizarte-babeseko programa horiek herrialde aurreratuenetan, bai geografikoki —batez ere Europan hedatu ziren— eta bai edukiari dagokionez —babes-eremua gertakizun gehiagotara hedatu zen—. Garapen horren eraginez, sistemak bateratu ziren, batean nahiz bestean bi ereduak babes-neurriak sartuz joan baitziren.

Ondorioz, gaur egungo gizarte-babeseko sistemak oso konplexuak dira: laguntza-neurriak eta aseguratze-neurriak nahasten dituzte, guztion zergekin finantzatzen diren babes unibertsaleko neurriekin batera bazkideen, erakunde publikoen eta erakunde pribatuen kuotekin finantzatzen diren neurri profesionalak daude, banaketako finantza-sistemak eta kapitalizazio-sistemak daude, etab. Azken batean, herrialde bakoitzak neurri eta mekanismoen konbinazio propioa diseinatzen du herritarren beharriaz modurik eraginkorrenean erantzuteko.

Prozesu historiko horiek arrastoa utzi dute gizarte-aurreikuspen osagarriko gaur egungo sistemetan. Eta horregatik, adibidez, nahiz eta aipatutako bateratze-prozesu instituzionala gertatu, tradizio anglosaxoia duten herrialdeetan (Erresuma Batuan, AEBetan, Danimarkan, Zeelanda Berrian etab.) indar handiagoa daukate gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema pribatuek.

¹ 1834an onartutako «New Poor Law» delakoaren bidez. Lege hark pobreei laguntzeko sistema eratu zuen, ordura arte pobreak karitatearen eta ongintzaren menpe baitzeuden. Lege berriari esker, pobreei laguntzeko sistema zentralizatua ezarri zen, funtsean Ingalaterra eta Galesen lantokiak eratu eta ordura arteko laguntza-sistemak indargabetuz (indargabetutako laguntza-sistemaren oinarria langabezia-subsidioak izaten ziren).

² Gizarte-aurreikuspeneko estatu-mailako aurreneko programak 1883an ezarri ziren.

1.2. Gizarte-Segurantzako sistema publikoak

Gizarte-segurantzako sistema publikoak izaten dira, neurri txiki edo handiagoan, herrialde guztietako gizarte-aurreikuspeneko sistemen muina. Horien inguruan pres-tatu eta egituratzen dira sistema pribatu osagarriak, herrialde bakoitzak bere modua eta erakundeak aukeratzen dituelarik.

1.2.1. Gizarte-Segurantzako sistemen babes-jarduera

Hasiera batean helburua pobreenak eta laneko istripu edo gaixotasunak izaten zituzte-nak babestea bazen ere, urteak joan ahala ugaritu egin dira gizarte-segurantzako sistemek babestu beharreko gertakizunak (ezinbesteko beharrizan-egoerak). Gaur egun, beraz, herrialde gehienek gertakizun-sorta handia babesten dute.

Gatozen garrantzitsuenak ikustera:

1.2.1.1. *Erretiroa*

Kasu bakoitzean dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean ezarritakoaren arabera zehaztuko da³. Horren guztiaren arabera, oro har, erretiroa gizabanakoa Gizarte Segurantzako erregimenean aurreikusitako erretiratzeko adinera (hau da, 65 urte, eta aparteko kasuetan, 60 urte, erretiro aurreratua denean) edo jarduera berezi batzuetan horretarako ezartzen den adinera (arriskutsuak, kaltegarriak edo osasungaitzak direlako) benetan iristen denean gertatzen dela ulertzen da.

Halaber, erretiroa lortu ezin duten pertsonen kasuan, gertakizun hori Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean aurreikusitako erretiroko ohiko adinera iristen denean, pertsona horrek bere lan-jardueran edo jarduera profesionalean ez diharduenean edo horretan jarduteari utzi dionean eta erretirorako Gizarte Segurantzako inolako erregimenean kotizatzen ari ez denean gauzatuko dela ulertuko da.

³ Horri dagokionez, aipatzekoa da Gizarte Segurantzaren Sistemaren Erregimen ugari daudela. Jarduera profesional jakin batzuen izaera bereziaren ondorioz, Erregimen Orokorrearekin batera erregimen berezi batzuk daude, esaterako Norbere Konturako Langile edo Langile Autonomoen Erregimena, Nekazaritzako Erregimen Berezia, Itsasoko Langileen Erregimen Berezia; Etxeko Langileena, eta Ikatz Meatzaritza.

1.2.1.2. *Ohiko lanean aritzeko ezintasun iraunkor osoa, lan guztietarako ezintasun absolutua eta ezintasun handia*

Hona hemen egoera horien definizioak:

- *Ohiko lanean aritzeko ezintasun iraunkor osoa*, langileari bere ohiko ogibideko funtsezko lanak edo lan guztiak gauzatzea galarazten dion egoera, baina beste ogibideren batean lan egin dezakeenean.
- *Ezintasun iraunkor absolutua*, langilea edozein lan edo ogibidetan ari ahal izatea galarazten duen egoera.
- *Ezintasun handia*, ezinduak eguneroko ekintzarik funtsezkoenak gauzatzeko beste pertsona baten laguntza behar duen egoera (adibidez jantzeko, toki batetik bestera joateko, jateko, garbitzeko, etab.).

1.2.1.3. *Heriotza, alarguntza edo zurztasuna*

Langilea hiltzeak alarguntza, zurztasun edo senideen aldeko prestazioak jasotzeko eskubideak eragin ditzake.

1.2.1.4. *Langabezia*

Langabezia lan egin dezaketen eta lan egin nahi duten pertsonak lana aldi baterako edo behin betiko galtzen dutenean, edo enplegu-erregulazioko espediente baten ondorioz gutxienez beren lanaldiaren heren bat aldi baterako murrizten dietenean eta ondorioz, beren soldatan antzeko galera edo murrizketa jasaten dutenean bizi duten egoera da.

1.2.1.5. *Menpekotasun larria edo menpekotasun handia*

Menpekotasun-egoera ondorengoa da: adina, gaixotasuna edo minusbaliotasunaren ondorioz, autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensorialaren galera edo gabeziarekin lotuta, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak gauzatzeko beste pertsona batzuen arreta edo laguntza asko behar dituzten pertsonen egoera, edo minusbaliotasun intelektual edo gaixotasun mental bat daukaten pertsonen kasuan, beren autonomia pertsonalerako bestelako laguntza batzuk behar dituzten pertsonak bizi duten egoera iraunkorra.

Menpekotasun larria eta *menpekotasun handia* daukatela adierazteko ondorengo alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- *Menpekotasun larria*: eguneroko oinarrizko jarduera batzuk gauzatzeko egunero bi edo hiru aldiz laguntza behar du⁴, baina bere autonomia pertsonalerako ez du behar zaintzailea etengabe laguntzen aritzea edo laguntza askorik behar.
- *Menpekotasun handia*: eguneroko oinarrizko jarduera batzuk gauzatzeko egunero askotan laguntza behar du eta bere autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala guttiz galdu izanaren ondorioz, beste pertsona baten etengabeko laguntza behar du edo bere autonomia pertsonalerako orokorrean laguntza behar du.

1.2.1.6. Osasun laguntza

Amatasun, ohiko edo lanbide-gaixotasun eta ohiko edo lanbide-istripu kasuetan, babes-tuta dauden herritarrek, behar den osasun-laguntza hartzeko eskubidea dute.

Ez da aurrekoak bezalako prestazio ekonomikoa, zerbitzua baizik.

1.2.1.7. Gizarte zerbitzuak

Estatuak eta gizarteko eragileak langileek lanekoaldi desberdinetan bizitza maila bera, edo gutxienez antzekoa mantentzearen garrantziaz konturatzen hasi zirenean, estatuak izan ziren gertakizun jakin batzuen aurrean (hasieran erretiroa, eta geroago ezintasuna edo heriotza ere bai) herritarrei segurtasun ekonomiko jakin bat bermatzeko eginkizun nagusia beren gain hartu zutenak, eta horretarako, lanean dauden langileek emandako eta erakunde publiko batek kudeatutako pentsioak ordaintzen zitzaizkien.

⁴ «Eguneroko Bizitzako Oinarrizko Jarduerak» pertsonaren zereginik funtsezkoenak dira, hots, gutxieneko autonomia eta independentziarekin moldatzea ahalbidetzen diotenak, hala nola: norbere burua zaintzeko ekintzak, etxeko oinarrizko jarduerak, funtsezko mugikortasuna, pertsonak eta gauzak ezagutzea, orientatzea, agindu edo zeregin errazak ulertu eta gauzatzea.

1.2.2. Gizarte-Segurantzako sistema publikoen ezaugarriak

a) *Derrigorrezkoak dira*

Sistema publikoen oinarrizko ezaugarrietako bat derrigorrezkoak izatearena da. Norberaren borondatearen esku utziko balira pertsona bakoitzaren beharizan-egoeren aurreikuspena eta babesa, pertsona askok ez luke bere burua babestuko, ez behar adina behintzat. Horrek eraginkortasunik eza eta bidegabekeria eragingo luke babes-sisteman, azken batean estatuak hartu beharko bailituzke herritarrak bere gain (herritarrak sentiberak dira pobrezia-egoerekiko eta esku-hartzeko eskatzen diete herri-agintariei), kotizatzen duten herritarren baliabideak erabiliz.

b) *Gehienbat kontribuziozkoak izaten dira eta laguntza-elementuak edukitzen dituzte*

Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemak kontribuziozkoak izaten dira hein handi batean. Hortaz, kobratu dezakegun kopurua kotizatu dugun zenbatekoaren proportzionala izaten da. Kotizatutakoaren arabera kobratzen dugu eta, ezer kotizatzen ez badugu, ez daukagu prestazioak jasotzeko eskubiderik. Kontribuzioa (aseguratzearen ezaugarrietako bat da; ez ahaztu *gizarte-aseguruez* ari garela) prestazio-mota bakoitzean gehiago edo gutxiago zuzendua eta zehaztua egoten da. Adibidez, erretiro-pentsioek kontribuzio handiagoa eskatzen dute baliaezintasuneko pentsioek baino, normalean kotizatutakoaren eta kobratutakoaren arteko proportzionaltasuna handiagoa izaten baita.

Kontribuziozko prestazioekin batera, gizarte-segurantzako sistema ia guztiek kontribuziozkoak ez diren prestazioak edo laguntzakoak eskaintzen dituzte bizitzako egoera bereziengatik nahikoa kotizatu ezin izan duten eta kontribuziozko prestaziorako eskubiderik lortu ez duten pertsonak babesteko. Prestazio horiek Estatuko aurrekontu orokorrekin finantzatzen dira, hau da, herritar guztion zergekin. Kontribuziozko prestazioak, aldiz, Gizarte Segurantzako afiliatuek ordaindutako kotizazioekin finantzatzen dira.

Osasun-laguntza, gizarte-zerbitzuak eta kontribuziozkoak ez diren pentsioak laguntzako prestazio unibertsalen artean sartzen dira. Pentsioek, berriz, gizarte-segurantzako sistemetan gasturik handiena eragiten dute eta kontribuziozkoak izaten dira herrialde gehienetan.

c) *Banaketaren finantzaketa-sistema erabiltzen dute*

Langile aktiboen urteroko kotizazioetatik biltzen den dirua erabiltzen da urte bakoitzean langile pasiboek edo pentsiodunei ordaindu beharreko prestazioak ordaintzeko. Diru hori ez da pilatzen. Hau da, langile aktiboek ez dituzte kotizazioak metatzen etorkizunean beraien prestazioak edo pentsioak ordaintzeko; Gizarte Segurantzak urtero bildutakoa urtean bertan gastatzen du aurreko belaunaldietako langileen pentsioak ordainduz. Belaunaldien arteko errenta-transferentzia egiten da.

Hortaz, banaketa-sistemek «belaunaldien arteko elkartasunaren kontratu inplizitua» irudikatzen dute: belaunaldi bakoitzak aurreko belaunaldietako pentsioak bere gain hartzen ditu, etorkizuneko belaunaldiek gauza bera egingo dutelakoan.

Banaketaren bidez egiten den finantzaketak alde onak eta txarrak ditu kotizazioen kapitalizazio-sistemarekin alderatuz. Alde onetako bat da arrisku biometrikoei (bizi-itzaropena luzatzea, etab.) eta inflazioari aurre egiteko babes askoz handiagoa ematen diela pentsiodunei. Bestalde, gizarte-beharrizan berrietara egokitzeko eta gerta daitezkeen egoera berriei erantzuteko sistema malguagoa da.

Alde txarrei dagokienez, biztanleriaren zahartzearen fenomenoak sistemaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jar dezake, gero eta aktibo gutxiago daudelako gero eta ugariagoak diren pasiboak finantzatzeko eta, hortaz, belaunaldi aktiboek kostu hori «gehiegizkotzat» jotzen badute, belaunaldien arteko elkartasunaren kontratua arriskuan jar daitekeelako.

d) *Kudeaketa publikoa izaten da*

Derrigorrezko sistema denez, oro har herrialdeetako biztanle guztiak egoten dira sartuta gizarte-segurantzako sistemetan. Hori eraginkortasun-faktore bat da, *per capita* kudeaketa-gastuak gizarte-babeseko sistema pribatuetakoak baino askoz ere txikiagoak izaten baitira. Eskala-ekonomiek zeresan handia izaten dute aseguruaren jardueraren sektorean.

1.3. Gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemak

1.3.1. Sorrera eta gizarte-aurreikuspeneko sisteman duten lekua

Gure gizartean eta ingurukoetan biztanleriaren zahartzea gertatzen ari da, hau da, jaiotza-kopurua beherakada handia izaten ari da eta aldi berean bizi-itxaropena luzatzen ari da. Hori ikusita, pentsio-sistema publikoak osatzea beharrezkoa zela planteatu zen, herri-tarrei pentsio duinak bermatzeko.

Euskadi fenomeno larri horren adibide garbia da: 1980. urtean, Euskadin, erretiratu bakoitzeko 7 pertsona zeuden lan egiteko adinean, eta 2006an proportzioa 4ra jaitsi zen. Aurreikuspenen arabera, 2025ean kopuru hori erdiraino jaitsiko da, hau da, 2raino, eta joera berberak jarraituko du hurrengo bi hamarkadetan ere. Gainbehera hori gertatzeko faktore nagusia biztanleriaren bizi-itxaropenak gora egin izana da. 1960an, 65 urteko gizonezkoek oraindik beste 12 urte inguruko bizi-itxaropena zuten. Gaur egun, ordea, beste 16 urte baino gehiagoko bizi-itxaropena dute. Emakumezkoen kasuan, bizi-itxaropena beste 15 urtetik 21 urtera igo da.


Erronka demografiko honek iraunkortasun ekonomiko eta sozialeko arazoak sortzen dizkie «banaketa»-sistemaren bidez finantzatzen diren gizarte-segurantzako sistema publikoei eta, horregatik, bide berriak bilatu behar izan dira demografiaren desorekak mehatxatutako prestazio publikoak osatzeko. Azken finean, egoera pasiboan dauden pertsonen errenta-mailak bermatzeko, errenta-iturriak, babesleak eta finantzaketa-sistemak dibertsifikatu behar dira. Bestela esanda, hainbat baliabide erabili behar dira.

Egoera sozio-ekonomiko hori izan zen, beraz, *gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema pribatuek* indarra hartzea eragin zuen faktorea. Biztanleriaren zahartzeak herrialde aurreratu ia denei bota dien erronka handiari aurre egin ahal izateko, sistema horien inguruan araudi bat egituratu da poliki-poliki. Gizarte-aurreikuspenen sistema desberdinak errealtate sozio-ekonomiko berrietara egokitzean datza araudi hori.

Horrela sortu zen «*hiru oinarrien teoria*» delako eredua, eta horretan oinarrituta egituratzen dira Europako arautegiak. Lovainako Unibertsitateak proposatu zuen eta hiru aurreikuspen-maila edo -oinarri bereizten ditu. *Lehenengo oinarria* aurreikuspen-sistema publikoa da. *Bigarren oinarria* lan edo enpleguko erregimen pribatu eta osagarriek osatzen dute, hau da, enpresen eta lan-harremanen esparruan sortzen direnek. Eta *hirugarren oinarria* epe luzerako aurreikuspen-aurrezkietako kontu indibidualak dira.

1.2. irudia

Europako merkatuetan pentsio osagarrien sistemei buruz liburu berdeak gizarte aurreikuspenaren hiru oinarrien sistema ezartzen du



Oro har, *lehenengo oinarrian* derrigorrez parte hartu behar izaten da. Maila horretako ekarpenek egungo pentsioak banaketa-sistema (edo «*pay as you go system*») delakoarekin finantzatzeko balio dute. Pentsio horiek berme publikoa izaten dute, eta unibertsaltasun eta solidaritate printzipioetan oinarritzen dira.

Bestalde, *bigarren oinarria* derrigorrezkoa ala boluntarioa, lehenengo oinarriaren osagarria eta publikoa ala pribatua izan daiteke. Oinarri hori garatu duten herrialde gehienek kapitalizazio-sistemen (banakakoak edo kolektiboak) bitartez finantzatzen dute, eta ondorioz, langile bakoitzak egin dituen ekarpenen eta/edo bere langileek bere alde ordaindu dutenaren bitartez bere erretiroko pentsioa edo bere kolektiboarena osatzen dute.

Bigarren oinarri horren abantaila nagusia gizarte zahar samarretako arazoak arintzen dituela da, eta Europa horrelako gizarteen adibide da, ekarpenak egiten dituzten eta hartzen dituzten arteko erlazioaren ondorioz. Hau da, pentsioak zuzenean edo bultzatuta egindako ekarpenekin eta/edo ordaindutakoarekin, hots, langilearekin zuzenean lotuta egotea eragitea.

Azkenik, *hirugarren oinarria* funtsean aurreko oinarri bien osagarria dela esan daiteke. Oinarri honek norbere pentsio-eskubidea sortzen du, hau da, besteekin loturarik gabekoa.

Abantailarik azpimarragarrienak hauek dira: ekarpenen malgutasuna eta arrisku demografikoaren aurrean aldaketarik ez jasatea.

1.3.2. Gizarte-aurreikuspen osagarriaren ezaugarri nagusiak

Gizarte-aurreikuspen osagarriko baliabideen bereizgarri nagusiak, gizarte-aurreikuspen publikoko baliabideekin (gizarte-segurantzako sistemak) alderatuta, ondorengoak dira:

a) *Borondatezkoak dira*

Enplegu-sistemen kasuan langilearen edo bere ordezkarien esku dago baliabide jakin bati atxikitzea eta, sistema indibidualen kasuan, norberaren esku.

b) *Osagarriak dira, ez dira sistema publikoaren ordezkok*

Normalean sistema publikoaren gertakizun berberak (denak edo batzuk) estaltzen dituzte, eta sistema publikoaren prestazioak osatzeko erabiltzen dira. Ondorioz, langilea, enplegu-emailea edo bazkide babeslea ez dira sistema publikora egin beharreko ekarpenetatik aske geratzen.

c) *Kapitalizazioko finantza-sistema erabiltzen dute*

Bizitza aktiboan zehar bazkideek egiten dituzten ekarpenak funts propio batean pila-tuz joaten dira kapital horiek sortzen dituzten interesekin batera, eta estalitako gertakizunak ematen direnean, funts horretan dagoena da bazkideek jasotzen duten prestazioa.

Kasu honetan ez da egoten banaketa-sistemetan izaten den belaunaldien arteko elkartasunik. Are gehiago, sistema indibidualetan eta ekarpen zehatzeko enplegu-sistemetan (aurrera definituko ditugu) ez da inolako elkartasunik izaten gizabanakoaren artean, bazkide bakoitzak bere gain hartzen baitu bere arriskua. Prestazio zehatzeko enplegu-sistemetan, aldiz, elkartasuna izaten da eta finantza-arriskuak eta arrisku biometrikoak partekatzen dira taldeko kideen artean.

d) *Pribatuak dira*

Pribatuak dira, printzipioz aldean askatasunetik sortzen direlako (hala ere, ikusiko dugun bezala, gero administrazioaren kontrolpean geratzen da kudeaketa).

Hortaz, eta herrialdeen arabera kasuak oso desberdinak badira ere, ondorengo koadroan ikus daitezkeenak dira sistema osagarrien ezaugarri nagusiak aurreikuspen-sistema publikoarekin alderatuta:

	Aurreikuspen publikoko sistema	Gizarte-aurreikuspen osagarria
Estaldura	Oinarrizkoa	Osagarria
Finantziazioa	Banaketa	Kapitalizazioa
Mota	Publikoa	Pribatua
Derrigorrezkoa	Bai	Ez

1.3.3. Gizarte aurreikuspen osagarriaren instrumentu motak

Egoera ezberdinei aurre egiteko gizarte aurreikuspen osagarriaren instrumentu ezberdinak sortu dira.

1.3.3.1. *Eratzaileen arabera*

Horiek *osutzen dituzten pertsonen* arabera, aurreikuspen-instrumentuak ondorengo mota hauetan sailkatuko dira:

- *Okupazio Sistemak*: sustatzailea edozein pertsona, erakunde, korporazio, sozietate edo enpresa da, eta bazkideak haren langileak dira.
- *Sistema Elkartuak*: sustatzailea edozein talde, elkarte, elkargo edo sindikatu da, eta bazkideak haien bazkideak edo afiliatuak izango dira.
- *Sistema Indibidualak*: sustatzailea/k baimendutako finantzaketa edo aseguru erakunde bat edo batzuk dira, eta bazkideak horietara beren borondatez atxiki diren pertsona fisiko guztiak izango dira.

1.3. irudia

Osatzen dituzten pertsonen arabera

Plan mota	Bazkideak	Sustatzaileak
Banakakoa	Edozein pertsona	Entitate finantzieroak edo aseguru erakundeak
Elkartua	Afiliatuak	Talde, elkarte, elkargo edo sindikatuak
Okupaziozkoa	Langileak	Enpresak eta gizarte eragileak

1.3.3.2. Bere gain hartutako betebeharren arabera

- *Prestazio zehaztua dutenak.* Bazkide pasiboek edo onuradunek jaso beharreko prestazioa zehazten da. Gizarte-segurantzako sistemen ereduari jarraituz, sistema osagarri hauek, normalean, soldataren, kotizatutako urte-kopuruaren eta abarren arabera finkatzen dute prestazioa. Hortik abiatuta, betebeharrak erantzuteko egin beharreko ekarpenen zenbatekoa zehazteko kalkulu aktuarialak egiten dira. Finantza-arriskuak (funtzen errentagarritasun negatiboak etab.) eta arrisku biometrikoak (bizi-itxaropena luzatzea etab.) aurreikuspeneko erakunde edo entitateak hartzen ditu bere gain.
- *Ekarpen zehaztua dutenak.* Planean sartuta dauden bazkideen ekarpenak ezartzen dira eta, sustatzailerik balego, horien kontribuzioen zenbatekoak ere bai. Egindako ekarpenekin norberaren kontuan pilatutako funtsek zehazten dute prestazio-eskubidearen zenbatekoa. Finantza-arriskuak (funtzen errentagarritasun negatiboak etab.) eta arrisku biometrikoak (bizi-itxaropena luzatzea etab.) bazkideak hartzen ditu bere gain.
- *Mistoak.* Aurreko bi ereduaren abantailez baliatzeko eta desabantailak saihesteko, sistema mistoak diseinatu dira. Horien helburua arriskuak bi alderdien artean banatzea da, errentagarritasunak bermatzeko hainbat mekanismo erabiliz edo aldagai sozio-ekonomiko zehatz batzuen portaeran oinarrituz prestazioak indexatuz, etab.

1.3.3.3. Prestazioak kobratzeko moduaren arabera

Prestazioa bazkide edo onuradunek duten eskubide ekonomikoa da, estalitako gertakizun bat gauzatzearen ondorioz.


Oro har, sortutako prestazioak jasoko dituzten egunak eta modalitateak bazkideak edo onuradunak askatasunez aukeratzen dituztenak izango dira, betiere beren aurreikuspen instrumentuan ezarritako baldintza eta mugekin.

Pentsioak ordaintzen dituzten BASEen prestazioak gehienetan diruzkoak dira eta ondorengo mota hauetakoak izan ahalko dira:

- *Kapital gisa*: ordainketa bat edo gehiago inolako aldizkakotasunik gabe jasotzea da. Ordainketak berehala egin ahalko dira gertakizunaren egunean, edo geroago gauzatu ahalko dira.
- *Errenta gisa*: ordainketa bi edo gehiago bata bestearen atzetik jasotzea da, ordainketa horiek aldizkakotasun erregularrarekin jasotzen dira, eta urtero bat gauzatzen da gutxienez. Halaber, errentak bizitza *osorakoak ala aldi baterakoak, berehalakoak ala geroratuak* izan ahalko dira.
- Prestazio *mistoa*: adierazitako edozein motatako errentak kapital gisako ordainketa batekin bateratzen dituztenak dira.

1.4. irudia

Betebeharren arabera



1.4. Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundea (BASE)

Euskadik, Gernikako Estatutuko 10.23 artikulua onartutako eskumenak erabiliz⁵, gizarte-aurreikuspenaren alorrean bere araudi propioa osatu du, eta araudi hori zati batean geure lurraldean erakunde horien inguruko tradizio historiko sendo eta sustraituetatik eratorrita dago, eta aipatzekoa da horien jatorria arrantzaleen kofradietan datzala.

Hortaz, Euskadin gizarte-aurreikuspen osagarri hori BASEen bitartez artikulatzea erabaki zen.

BASEak, beren izena eta arauak⁶ adierazten duten bezala, irabazi asmorik gabeko Erakundeak dira, eta beren azken xedea beren bazkideak haien bizitza, baliabideak edo jarduerak arriskuan jar ditzaketen gertakizunen aurrean babestea da. Eusko Jaurlearitzak Erakunde horiek gainbegiratu eta kontrolatzen ditu.

1.4.1. BASE-N definizioa eta ezaugarriak

BASEak Euskadin helbideratutako erakunde edo instituzio independenteak dira, eta mutualitate gisa, irabazi asmorik gabe gizarte-aurreikuspeneko eredu bat eskaintzeko osatzen dira; eredu hori borondatezkoa da, eta ez da aurreikuspen-sistema publikoa, eta hura osatzen duten bazkideak edo haien ondasunak ezusteko eta/edo aurreikusi daitezkeen gertakizun edo egoeren aurrean babestera bideratuta daude.

Definizio horren arabera, ondorengo ohar hauek aurkezten dira:

— *Erakunde edo instituzio independentea*: horiek osatzeko betekizun espezifikoak bete ondoren, izaera juridiko propioa daukate eta ez da hura sustatzen duten bazkideena (pertsone fisiko edo juridikoak). Hori dela eta, oro har, BASEak ez du beste erakunde batzuen (kudeatzaileak) lehiaketa beharko bere jarduerara gauzatzeko.

⁵ Artikulu horren arabera, Euskadik Gizarte Segurantzak barne hartzen ez dituen mutualitateen alorretako eskumen osoa bere gain hartu du.

⁶ Erakunde horien inguruko araudia funtsean urriaren 27ko Eusko Legebiltzarraren 25/1983 Legean, hori garatzen duen arautegian, otsailaren 20an onetsitako 87/1984 Dekretuak onartuan, BASEen jarduerara jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuan, eta BASEen alderdi jakin batzuei buruzko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendariaren zirkularretan dago.

- *Mutualista*: haren bazkideen uste onean eta elkarrekikotasunean oinarritzen da. Beraz, Legean jasotako zioen azalpenetan BASEen jardueren oinarrien inguruan adierazten denaren arabera, bazkideek gobernuko jardueretan kudeaketa eta parte-hartze demokratikoan gardentasun irizpideak bete behar dituzte. Hori dela eta, geure herrialdean aspalditik sustraituta dagoen tradizio mutualista edo solidariora egokitzen dira.
- *Irabazi asmorik eza*: halakoak dira bai erakundea, bai haren kideak, eta espresuki ezartzen da dibidenduak edo simulatutako merkataritzako negozio bati dagozkien beste entrega batzuk banatzeko debekua, baita Erakundearen ordezkariak beren funtzioak dohainik gauzatzea ere.
- *Administrazioaren kontrolpean egotea*: Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean, alegia, eta bere antolamendua eta funtzionamenduari lotutako barneko kontrol prozedura batzuen menpe ere bai.
- *Derrigorrezko aurreikuspen publikoa osatzen duten aurreikuspen-sistemen gizarte-aurreikuspen osagarria da helburu zehatza*.
- *Borondatezkoa*: BASEetara adskribatzea borondatezkoa da, eta horrek bereizten du sistema publikotik. Bazkide edo kolektibo bakoitza libreki bilakatzen da Erakundearen parte, eta bazkide bilakatu ondoren, gauzatutako prestazioekin lotutako eskubide eta betebeharren berdintasun erregimena izango du.
- *Gertakizun zehatzen aurreko babesa*: gertakizun horiek Eskuliburu honetako 1.4.5 atalean daude garatuta.
- *Aurreikuspen planen bidez antolatzea*:
 - Hainbat gertakizunetarako (hala nola erretiroa, heriotza, behin betiko ezintasuna, epe luzerako langabezia edo gaixotasun larria) ekarpenak eta prestazioak eta hori lortzeko baldintzak antolatu eta arautzen dituzten hitzarmenak dira. Prestazioen arautegietan formalizatzen dira eta horiek zehazteko kapitalizazio-sistema finantzario eta aktuarialak aplikatzen dira.
 - Aurreikuspen-planek beren ekarpen- eta prestazio-sistemak antolatu eta arautzen dituzte, eta BASE da izaera juridiko propioarekin bere barne funtzionamenduko araukin multzokatu eta kudeatzen dituenak.
 - BASEetan barne hartzen diren sustatzaile edo bazkide babesleak bertan barne hartzen diren aurreikuspen-planak beste izan daitezke.
- *Lurralde-esparrua*: Euskadin helbideratuta egon behar dira.
- *Izendapen zehatza*: Erakundearen izendapenaren alboan derrigorrez adierazi beharko da «Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea» dela.

1.4.2. Motak

Erakundea sustatzen duten elementu pertsonalen eta jatorriaren arabera erakundeak honako modalitate hauek izan ahalko ditu:

- *Enplegu modalitatea*: kideek bazkide babeslearekin laneko lotura daukatenean, edo bazkide langileak edo lanekoak direnean sozietate kooperatibo eta lan-sozietateen esparruan.
- *Modalitate elkartua*: kideek Sistema Publikoko bestelako mutualitate bateko edo Gizarte Segurantzako edozein Erregimenetan kotizatzen dutenean eta beren artean laneko edo elkarte gisako lotura daukatenean.
- *Banakako Modalitatea*: bazkide babeslea edo sustatzailea erakunde finantzario bat denean eta bertako bazkide arruntak eta onuradunak elkarren arteko loturarik ez daukaten pertsona fisikoak direnean.

Halaber, eta *prestazioen edo jasotako kopuruen* eta BASEetara egindako *ekarpenen finantza erregimenaren* arabera, honelako sistemak osa ditzakete:

- *Prestazio zehaztua*: bazkide pasiboek, edo, egokia denean, onuradunek jasoko duten prestazioa zehazten denean.
- *Ekarpen zehaztua*: sustatzaileen ordainketen zenbatekoa soilik zehazten da, eta egokia denean, bazkideek planean egiten dituzten ekarpenen zenbatekoa ere bai.
- *Mistoak*: prestazioa eta/edo ekarpena edo ordaindutakoa da zehazten dena.

1.4.3. Elementu pertsonalak

BASEak libreki sor ditzakete partikularrek, elkarteek, enpresariak, merkataritzako sozietateak eta erakunde publiko edo pribatuak, eta hiru bazkide mota izan ditzakete:

- *Bazkide sustatzailea*: Erakundearen eraketa sustatzen duen subjektua (pertsona fisiko edo juridikoa), eta halakotzat hartuko da Plana sortzea bultzatzen duen edo garapenean parte hartzen duen erakunde, korporazio, sozietate, enpresa, elkarte, sindikatu edo kolektibo oro, edozein motatakoa izanik ere. Bazkideen aldeko ekarpenak egiteko edo ez egiteko aukera dauka, eta Erakundeko bazkidetzat hartzen da.

1.5. irudia

Elementu pertsonalak

- Bazkide *sustatzailea*:
 - Eraketa sustatu.
- Bazkide *babeslea*:
 - Onuraruk jasan gabe.
 - Zaindu ta garatzearen alde.
 - Bazkideen aldeko ekarpenak.
- Bazkide *osoa edo arrunta*, BASEa bere onerako sortzen da:
 - Aktiboa, ekarpenak egin eta ondarea eta eskubideak metatzen ari dena.
 - Pasiboa, gertakizuna izan eta prestazioa jasotzen duena.
 - Etenaldian dagoena, eskubidean dituen baina ekarpenik egiten ez duena.
- Bazkide bat hiltzean prestaziorako eskubidea bereganatzen duen pertsona, *onuraduna da*.

- *Bazkide babeslea*: BASEtik zuzeneko onurarik jasan gabe, Erakundearen Gobernu Organoetan parte hartuz, Erakundea zaindu eta garatzearen alde lan egiten duen pertsona (fisiko edo juridikoa). Nahiz eta Erakundearen sustatzailea eta babeslea bera izan, baliteke zenbait kasutan hori horrela ez izatea, eta babesle batek ekarpenik ez egitea hark sustatutako erakundean.
- *Bazkide osoa edo arrunta*: sortu den BASEaren onuradun diren pertsona fisikoen multzoa da, eta atxikitzeko borondatea adierazi dutenez eta behartzeko gaitasuna dutenez gero, Arautegian edo Estatutuetan aurreikusitakoaren arabera egin dezakete. Hiru mota daude:
 - *Bazkide aktiboa*: BASE bateko bazkidea, ekarpenak egiten ari dena (edo bere ize-nean ekarpenak egiten ari dira) eta ondarea eta pentsio-eskubideak metatzen ari dena.
 - *Bazkide pasiboa*: Gertakizuna izan eta, horren ondorioz, BASEaren kargura prestazioen bat jasotzen ari den BASEko bazkidea.
 - *Etenaldian dagoen bazkidea*: Plan batean eskubideak dituen baina jadanik ekarpenik egiten ez duen BASE bateko bazkidea, oraindik prestazioak jasotzen hasi ez dena.

Bazkideez gain, BASEetan *onuradunak* ere egon daitezke. Egoera hori bazkide aktibo, pasibo edo etenaldian dagoen bazkide bat hiltzean prestazio baterako eskubidea bereganatzen duten pertsonak lortzen dute. Hau da, bazkidearen kausadunek.

— Bazkide sustatzailea, babeslea edo osoa edo arrunta izatea zehazteko baldintzak BASEaren Estatutuetan zehaztuko dira.

1.4.4. Bazkidearen eskubideak eta betebeharrak

1.4.4.1. *Bazkideen eskubideak*

Bazkide gisa, gutxieneko eskubide jakin batzuk onartzen zaizkie eta horiek estatutu bidez zabaldu daitezke.

— *Gutxieneko eskubideak* honako hauek dira:

- Batzar Orokorren bileretan parte hartzea, norberak edo ordezkari baten bitartez, Estatutuetan horren inguruan aurrez ikusitakoaren arabera, eta egokia denean, zuzendaritzan eta ordezkaritzan Gobernu Batzarretako kide gisa.
- Erakundeko organoetako karguetarako kideak hautatu eta hautatuak izatea.
- Estatutuetan aurrez ikusitako prestazioak eskuratzea.
- Erakundearen egoeraren inguruko informazioa jasotzea.

Pentsioak ordaintzen dituzten BASEen bazkide eta onuradunek, gainera, informazioa jasotzeko eta defentsa eskubideak dituzte.

1.4.4.2. *Informazioa jasotzeko eskubidea*

Oro har, pentsioak ordaintzen dituzten BASEek ondorengo *informazioa* jarri beharko dute bazkide arrunten eta onuradunen eskura:

- Erakundearen Estatutuak eta aukeratu duten planaren Arautegia.
- Gobernu Organoen osaketa.
- Estatutuen eta arautegien aldaketak, eta baita gobernu-organoen osaketan egin direnak ere.
- Inbertsio Printzipioen Deklarazioan inbertitzen den aktiboan edo kudeaketan erabilitako tekniken ondoriozko arriskuaren profila (altua, ertaina edo baxua) sartu beharko dela azaltzen du.

- Aurreikuspen-plan bakoitzean administrazioko gastu gisa aplikatuko den ehunekoa, baita planaren ondarearen gainean balore higikorren salerosketako bitartekaritzak izango duen ehunekoa eta balore horien zorroaren errotazio ratioarena.
- Erakundearen ikuskariak nor diren.
- Aurreikuspen-planaren ondarearen bilakaera historikoa, ezarritako urteko errentagarritasunaren alorreko helburuak eta planak lortutako errentagarritasunaren ingurukoak, azken hiru ekitaldietakoak. Errentagarritasun historikoaren inguruko informazioaren barruan errentagarritasun horrek ez dituela etorkizuneko errentagarritasunak bermatzen, ezta zehazten ere adierazten duen azalpen bat jaso beharko da espresuki.
- Aplikatzen den araubide fiskalari buruzko informazioa, bai ekarpenei, bai prestazioei aplikatzen zaienari buruzkoa.
- Prestazio zehaztuko aurreikuspen planetarako, gutxienez urtean behin, Erakundeak bazkide arruntari eta onuradunari epe bakoitzean egindako zuzeneko ekarpenei edo egotzitako ekarpenei, epe horretako azken baloreari eta epean ordaindutako prestazioen zenbatekoari buruzko ziurtagiri bat bidali beharko dio. Halaber, laburbildutako kudeaketa-txosten bat bidaliko dio, bazkideekin harreman telematikoa daukanean izan ezik.
- Ekarpenei zehaztuko aurreikuspen planetarako, gutxienez sei hilabetez behin, Erakundeak bazkide arruntari eta onuradunari besteak beste epearen hasieran dauzkan eskubide ekonomikoei buruzko informazioa jasotzen duen ziurtagiri bat bidaliko dio, eta horrez gain, epe bakoitzean egindako zuzeneko ekarpenei edo egotzitako ekarpenei, egindako mobilizazioei eta epean ordaindutako prestazioei buruzko informazioa ere bidali beharko dio. Halaber, laburbildutako kudeaketa-txosten bat bidaliko dio, bazkideekin harreman telematikoa daukanean izan ezik.

1.4.4.3. *Defentsa eskubidea*

Bazkide arruntek eta onuradunek beren eskubideak defendatzeko edozein ekintza gauzatu baino lehen BASEaren Gobernu Batzordearen aurrean dagokion erreklamazioa aurkeztu beharko dute. Prestazioen arategiak edo atxikimendu-buletinak prozedura horren inguruko informazio nahikoa eman beharko dute.

Banakako modalitateko BASEek, indarrean dagoen legeriak kontsumitzaileak babesteko jasotzen dituen beste sistema batzuei kalterik egin gabe, bazkide babeslearekin loturarik

izan gabe, Batzar Orokorraren bitartez bazkide arrunten eta onuradunen eskubideak babestuko dituen defendatzaile bat izendatu beharko dute.

1.4.4.4. *Bazkideen betebeharrak*

Betebeharrak nagusiki estatutuen edo arautegiaren bitartez ezartzen diren ekarpenak gauzatzea dira. Halaber, Erakundearen Gobernu Organoek egindako hitzarmenen ondoriozko betebeharrak beteko dituzte.

1.4.5. Gertakizunak

BASEen Legeak Erakunde horien lehenengo helburua bazkideak beraiek edo beren ondasunek jasaten dituzten gertakizunetan ezusteko eta/edo aurrez ikus daitezkeen arriskuaren aurrean babestea dela xedatzen du.

1.6. irudia

Gertakizunak

<p><i>Erretiroa</i></p> <ul style="list-style-type: none">– Arrunta.– Aurreratua.– Flexiblea.– Zatikakoa.– EAE.	<p><i>Ezintasun iraunkorra</i></p> <ul style="list-style-type: none">– Ohiko lanean aritzeko.– Absolutua.– Handia.	<p><i>Heriotza</i></p> <ul style="list-style-type: none">– Alarguntza.– Umezurtza.– Beste oinordeko.
<p><i>Iraupen luzeko desenplegua</i></p>	<p><i>Gaixotasun larria</i></p>	<p><i>Menpekotasuna</i></p>

Gertakizun horien arabera, BASEek pentsioak eman ahalko dituzte eta horiek errenta, kapital edo misto gisa jasoko dira, Estatutuak xedatutakoaren arabera. Gertakizun horiek honako hauek dira:

- Erretiroa.
- Heriotza.
- Behin betiko ezintasuna.

— Luzaroko langabezia⁷.

— Gaixotasun larria⁸.

Bestalde, honako *prestazioak* eman ahal izango dituzte:

— Laguntza sanitarioa eta ebakuntzak eta osasun zentroetako egonaldiak.

— Aldi baterako ezintasuna.

— Ehorzketa.

— Mendekotasuna.

— Kalte jakin batzuen kalte-ordainketak.

Horrez gain, Erakundeek gizarte-aurreikuspenaren alorrean beren estatutuetan gizarte-aurreikuspen horrekin lotutako beste edozein egoeraren ondoriozko prestazioak arautu ahalko dituzte.

Azaldutako gainontzeko egoerei dagokienez, 2.1 «*Estaltzen diren Gertakizunak*» atalean azaldutako kontzeptuetara itzultzen gara.

Horrez gain, eta pentsio-planekin alderatuta ikusten den funtsezko desberdintasun gisa, BASEetan *baja boluntarioko* kasuetan ere kopuru ekonomiko bat jasotzeko eskubidea sortuko da, baldin eta lehenengo ekarpena egin zenetik 10 urte igaro badira; kopuru hori ondoren azalduko diren baldintzetan jaso ahalko da Erakundearen Estatutu eta/edo Arautegietan jasota baldin badago.

1.4.6. Gobernu organoak

BASEak izaera juridiko propio eta independentea daukaten Erakundeak dira, eta ondorioz, Gobernu Organo espezifikoak dauzkate (Batzar Orokorra eta Gobernu Batzordea),

⁷ Erakunde bakoitzeko Estatutuek xedatzen dutenari kalterik egin gabe, luzaroko langabezia bazkidea gutxienez hamabi hilabetez langabezian dagoenean da, beti ere, EINean edo eskumena daukan organismo publikoan lana eskatzen duen pertsona gisa inskribatuta badago eta bere ekarpen mailan langabeziaren ondoriozko prestazioak jasotzeko eskubiderik ez badu edo horiek agortu baditu.

⁸ Gaixotasun larritzat jotzeko, beharrezkoa da Gizarte Segurantzako Osasun Erakunde edo erakunde kontzertatuetako zerbitzu eskudunek jaulkitako ziurtagiri medikoaren bitartez, gaixotasuna larria dela justifikatzea.

merkataritzako esparru juridikoan diharduten beste erakunde batzuen antzekoak (esate baterako Batzar Nagusia eta Administrazio Kontseilua sozietate batzuetan), eta bazkideak bertan sartuta daude, Estatutuetan adierazten denaren arabera.

Zentzu horretan, BASE guztietan egongo da Batzar Orokor bat eta Gobernu Batzorde bat.

1.4.6.1. *Batzar orokorra*

Gobernu-organo gorena da, eta gobernu-organo gorena den heinean, BASEen asmo gorena adieraziko du. BASEko bazkide edo ordezkari guztiek parte hartuko dute bertan estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Honako *gutxieneko eskumen* hauek dauzka:

- Estatutuak aldatzea.
- Gobernu Batzordeko kideak hautatu, izendatu eta berriztatzea.
- Urteko kontuak onestea.
- Erakundearen fusioa, federazioa eta desagitea.

Batzar Orokorrak *ohikoak edo ezohikoak* izan ahalko dira, eta Gobernu Batzordeak egin beharko du Batzar Orokorrak egiteko deialdia.

Ohiko Batzarra, aldez aurretik batzarra egiteko deialdia egin ondoren⁹, derrigorrez bildu beharko da aztertu eta, egokia denean, onetsi nahi diren urteko kontu, balantze eta aurrekontuari dagokien ekitaldia itxi osteko lehenengo hiru hilekoan.

Ezohiko Batzarrean, deialdia behar bezala egin ondoren¹⁰, Erakundearentzat komenigarritzat jotzen diren beste gai guztiak eztabaidatuko dira. Zentzu horretan, botoen % 10 suposatzen duten bazkideek gai-zerrendan egokitzen dituzten gaiak sartzeko eskatzeko eskubidea izango dute.

⁹ Bazkideei Batzarra egingo den eguna baino 10 edo 30 egun lehenago pertsonalki jakinaraziz.

¹⁰ Gobernu Batzordeak bazkideei pertsonalki jakinaraziz, edo bazkideen % 20k proposatu baldin badu.

Batzarrak Erakundearen helbide sozialean egingo dira edo Batzarrak adoztutako lekuan, eta bazkide gehienak bertaratzen direnean Batzarra lehenengo deialdian behar bezala antolatutzat joko da; bigarren deialdian, aldiz, behar bezala antolatutzat joko da bertaratuen kopurua zeinahi izanda ere. Lehendakaria arituko da Batzarreko buru gisa, edo bestela, Estatutuen arabera haren zereginak gauzatzen dituen pertsona. Idazkaria, aldiz, Gobernu Batzordean idazkari gisa aritzen den pertsona izango da, edo bestela, haren ordezkoa, Estatutuetan adierazitakoaren arabera.

Erabakiak hartzeko beharrezkoa izango da gehiengoaren oniritzia; hala ere, Estatutuak onetsi eta aldatzea, fusioak egitea, federatzea eta/edo Erakundea desegitearen inguruko erabakien kasuetan, beharrezkoa izango da lehenengo deialdian bazkideen bi herenaren gehiengoa lortzea eta bigarren deialdian bazkideen erdia gehi baten oniritzia lortzea. Gehiengo berezi horiek Estatutuen bitartez areagotu daitezke.

Hartutako erabakiek mutualista guztiak behartuko dituzte, baita disidenteak eta bertaratu ez direnak ere, eta erabakitakoaren inguruko Akta egingo da. Eusko Jaurlaritzari Batzar Orokorren Akten kopia ziurtatu bat helarazi beharko zaio urtero.

1.4.6.2. *Gobernu batzordea*

Erakundea zuzenean gobernatzen du haren zuzendaritza eta ordezkaritza bitartez.

Dauzkan eskumenen barruan Legearen edo Estatutuen bitartez Batzar Orokorri egotzi ez zaizkion gaitasun guztiak sartzen dira. Gutxienez hiru bazkidek, edo egokian denean, Estatutuek adierazten duten bazkide kopuruak (beti izango dira gutxienez hiru) osatuko dute, Batzar Orokorrek izendatuko ditu Estatutuetan ezartzen den aldirako (2 eta 6 urte bitartean).

Estatutuetan xedatuko da Gobernu Batzordeetako kideak berriz hautatuak izan daitezkeen ala ez, eta Legeak ez du horren inguruko mugarik ezarriko.

Batzar Orokorrek edozein unetan erabaki ahalko du kide horiek kargutik kentzea, baldin eta kidea kargutik kentzeko gaia gai-zerrendan azaltzen bada. Gai-zerrendan jasotzen ez denean, beharrezkoa izango da bertaratuen bi herenaren baiezko botoa lortzea.

Haren osaketa baliozkoa izango da Batzordea osatzen duten kideen erdia gehi bat bertaratzen direnean. Erabakiak bertaratutako gehiengo soilak hartuko ditu, eta berdinketa

kasuan, Lehendakariaren botoaren bitartez ebatziko da egoera. Gobernu Batzordea bera izango da gainontzeko karguak izendatuko dituen, Lehendakariaren kasuan izan ezik; izan ere, hura Batzar Orokorrek izendatu beharko du. Idazkariaren karguari dagokionez, kontuan hartu behar da bazkidea ez den pertsona bat aritu daitekeela, eta hitzarekin baina botorik gabe jardungo du.

Halaber, Batzordeak bere gaitasunetariko batzuk *Zuzendaritza* bati eskuordetu ahalko dizkio eta hark Gobernu Batzordearen kontrolpean gauzatuko ditu beti. Berez, gaitasun guztiak eskuordetu daitezke ondorengo hauek izan ezik:

- Batzar Orokorrek Gobernu Batzordeari zuzenean eskuordetutako eskumenak.
- Kontuak ematea eta balantzeak aurkeztea.
- Gobernu Batzordeari soilik dagozkien beste guztiak.

Aurreikuspen-planei dagokienez, Erakundearen arautegietan Gobernu Batzordeari aurreikuspen plan horri zuzenean eragiten dioten gaiak proposatzeko helburua daukan organo bat egotea xedatu daiteke.


1.4.7. Base eratzeko prozesua

Sustatzaileak *Batzar Eratzailean* bilduko dira ondorengo helburu hauek lortzeko:

- Aho batez Erakundea sortzea erabakitzea.
- Erakundearen funtzionamendu-arauak jasoko dituzten Estatutu eta Arautegiak onartzea.
- Prestazio zehaztuko Erakundearen kasuan, ekarpen eta prestazioei buruzko azterketa ekonomiko eta finantzarioa edo aktuariala onartzea.
- Kudeaketa Batzordea izendatzea. Batzorde hori arduratuko da Erakundea inskribatzeko beharrezko ekintzak gauzatzeaz, eta hori guztia bileraren inguruko Aktan jasoko da, eta horrez gain, bertan bazkide sustatzaileak nor izan diren adieraziko da. Batzorde horren egitekoa da administrazioaren derrigorrezko baimena lortzeko beharrezkoak diren ekintzak gauzatzea, eta baita Erakundea Erregistroan inskribatzea ere.

1.7. irudia

Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundea (BASE) (5/15)



Onartuko diren *Estatutuetan* ondorengo hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Erakundearen izena.
- Jarduera zein egunetan hasi den eta zenbat iraun duen.
- Sozietatearen helbidea.
- Gauzatu nahi diren derrigorrezko prestazioak eta horren ondoriozko finantzaketa sistema edo, bestela, eman nahi dituzten derrigorrezko kotizazioak eta horren ondorioz emango diren prestazioak.
- Erakundeko kidea izateko baldintzak.
- Bazkideak onartu, dimititu eta kanpoan uzteko baldintzak.
- Martxan jartzean zenbat baliabide izan dituen.
- Gobernu Organoak eta horien osaketa.

- Deialdien inguruko eskumenak eta Batzarrak eta Gobernu Organoek erabakiak hartzeko zein sistema jarraitzen duten.
- Gobernu Organoen erantzukizuna.
- Erakundearen diziplina araudia, arau-hausteen tipologia eta horiei dagozkien zigorrak, zehatzeko prozedura eta egokiak diren errekurtsoak.
- Estatutuak aldatzeko prozedura.
- Administrazioako gastuetarako aurrez ikusitako gehienezko zenbatekoa.
- Hala dagokionean, desgitearen arrazoiak eta funtsekin zer egingo den.

Kudeaketa Batzordeak BASE Erregistroan *inskribatzeko eskatuko* du, baita hari dagozkion aurreikuspen planak ere, eta horretarako, ondoren zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira:

- Batzar Eratzaileko Akta.
- Estatutuak eta, kasuan kasu, Arautegiak.
- Azterketa ekonomiko eta finantzarioa eta aktuariala, egokia denean.
- Kudeaketa Batzordearen izendapena.

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila izango da inskripzio hori erabaki arrazoitu baten bitartez ebatzi, onartu edo ukatuko duena. Konpondu daitezkeen akatsak antzemanenez gero, Kudeaketa Batzordeari jakinaraziko dizkio hark beharrezkoak diren zuzenketak izapidetzeko.

Eskaria egin osteko hiru hilabeteetan erabakirik hartzen ez bada, interesdunak atzerapena salatu ahalko du eta salaketa aurkeztu ostean hilabete bat igaro ondoren, BASE Erregistroak inskribatu daitekeela ulertuko da.

BASE Erregistroan inskribatzen denetik has daiteke Legeak erreserbatzen dituen aurreikuspen jarduerak gauzatzeko (ekarpenak, ondarearen kudeaketa eta prestazioak).

Erakundeak bere gain hartzen dituen neurrian (gutxienez hiru hilabeteko epea), Erakundeak inskribatu aurreko ekintzek eraginkorrak izan beharko dute.

1.4.8. Aurreikuspen planak sortzea

Estalitako gertakizunetarako (erretiroa, ezintasuna, heriotza, langabezia eta gaixorik ego-
tea) ekarpen- eta prestazio-erregimenak eta horiek eskuratzeko baldintzak antolatu eta
arautzen dituzten hitzarmenak dira aurreikuspen-planak. Aurreikuspen-planak arautegie-
tan formalizatzen dira, eta kapitalizazioa izango da horiek finantzatzeko sistema.

Halaber, BASEetako aurreikuspen-planen izendapenek errorerik edo nahasmenik ez era-
giteko, zenbait jarraibide ezarri dira horren inguruan. Hortaz, planetan ondorengo zehaz-
pen hauek jaso beharko dira:

- *Enplegu-planak*: beren izenak «Aurreikuspen Plana» hitzekin hasiko dira, gero
BASEaren izena agertuko da eta gero, «enpresako langileen kolektiboa» hitzak azal-
duko dira.
- *Plan Profesionalak*: beren izenak «Aurreikuspen Plana» hitzekin hasiko dira, gero
BASEaren izena agertuko da eta gero «...kolektiboa» hitzak azalduko dira.
- *Banakako planak*: beren izenak «Banakako Aurreikuspen Plana» hitzekin hasiko dira,
gero BASEaren izena agertuko da eta gero, planaren modalitate bakoitzeko ezau-
garrien deskribapena azalduko da, egokia denean.

1.4.9. Ekarpen, prestazio eta eskubide ekonomikoen itzulketa eskubidearen bateraezintasuna eta mugak

Aldizka pentsioa edo prestazioak jasotzeko eskubidea gauzatu ondoren, bazkide titularra
«aktibo» izatetik «pasibo» izatera igaroko da, eta azken egoera hori Gizarte-aurreikuspen
Boluntarioko Sistemara egindako ekarpenekin bateraezina izango da.

Horri dagokionez, ondorengo alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- *Aldi baterako pentsio edo prestazioen kasuan*, horiek jasotzen diren aldi osoan zehar
izango dira bateraezinak. Kobratzen bukatzen denean, gainontzeko zenbatekoari aldiz-
kako pentsioa edo prestazioa eman zitzaion unean zeukan antzinatasuna mantenduko
zaio. Bestalde, hortik aurrera egiten diren ekarpenei dagokienez, aldi berri bat bezala
zenbatuko dira.
- *Eskubide ekonomikoak kapital gisa (aldi bakar batean) osorik jasotzen direnean*, gu-
txienez bi urtez ezingo dira BASEetara ekarpen gehiago egin.

- Eskubide ekonomikoaren *zati bat kapital* gisa kobratzen bada (hau da, zati bateko erreskatea), ekarpen berriek bi urtez ezin izango dute kopurua jaso aurreko azken hiru urteetan egindakoen batez besteko balorea gainditu.
- *Heriotza eta biziraupen* kasuetan, titulartasun aldaketa bat gertatzen da hildako bazkideak izendatutako onuradunen, edo kasuan kasu, Erakundearen Estatutuetan aurrez ikusitako alde.

1.4.10. Prestazioen onarpena

BASE batean sartutako pertsonak Erakunde horiek babesten dituzten gertakizunetarikoa bat gauzatzen den egunetik aurrera dagozkien prestazioak jaso ahalko dituzte.

Sartzen diren unean dagoeneko perfektionatutako gertakizunak dauzkaten bazkideei dagokienez (adibidez, erretiroaren ondorioz pentsioa daukatenak), gertakizun horien ondoriozko pentsioak onartzeko beharrezkoa izango da bazkideak gutxienez 10 urtez estaltzea edo dagoeneko gauzatutako gertakizunak ez diren besteren bat gauzatzea (esate baterako, bazkide erretiratu batek gaixotasun larriren bat hartzea).

1.4.11. Aukera eskubidea

Eskubide hau aurrez ikusitako gertakizunen bat gauzatzen den unean onartuko zaie jardunean dauden bazkideei, eta eskubide honen arabera, bazkideek erabakiko dute jardunean jarraitu, hau da, pentsioa ez kobratu eta ekarpenak egiten jarraitu, ala pasibo egoerara igaro eta pentsioa jasotzen hasi nahi duten, Estatutuek horrela jasotzen dutenean.

Eskubide hau gertakizun jakin batzuen ondoriozko pentsioei aplikatuko zaie soilik, eta ez heriotza eta biziraupenaren ondoriozkoak, izan ere, beren izaera dela eta, berehala gauzatzekoak direnez, onuradunari ez diote inolako aukera eskubiderik ematen.

Besterik esan ezean, bazkide aktibo gisa jarraitzearen alde egiten da, eta hortaz, interesdunak gertakizuna gauzatzen denetik 3 hilabeteko epean prestazioak jasotzeko eskubidea ez badu erabiltzen, bazkideak aktibo gisa jarraitu nahi duela erabaki duela ulertuko da.

Aukera-eskubidea izanik kobratzea ez eskatzea erabaki ondoren BASEak babestutako beste gertakizunen bat gauzatzen bada, bazkideak berriro izango du gertakizun horren ondoriozko prestazioa jasotzeko eskubidea.

1.4.12. BASE-ko kide izatetik baja ematea

- *Norbere borondatezko baja*, bazkideak dauzkan eskubide ekonomikoak jasotzea da, eta horretarako, bazkideek gutxienez 10 urteko antzintasuna daukatela ziurtagiriz frogatu beharko dute.
Norbere borondatez baja emateko eskubidea erabiltzeko beharrezkoa da hori BASEaren Estatutuetan jasota egotea eta gutxienez 10 urteko antzintasuna izatea. Horrez gain, ondorengo *arau* hauek bete beharko ditu:
- Antzintasun hori bazkideak BASEaren aurreikuspen sistema propioan daukana da, hau da, ez da hark egin dituen ekarpenei dagokiena.
- Zati bat bakarrik kobratzen denean, eskubideen zenbatekoa jasotako zenbateko osoaren arabera murriztuko da.
- Halaber, horrela erreskatatutako zenbatekoak (hau da, norbere borondatezko bajaran bidezkoak) beste BASE batzuetara eraman ahalko dira *1.4.13 atalean* deskribatutakoaren arabera.

1.4.13. Kapital edo eskubide ekonomikoen mobilizazioa

Aurreikuspen planak dauzkaten BASEek beren estatutuetan bazkide arruntak eta onuradunak bere eskubideak beste aurreikuspen plan batera mobilizatzeko eskubidea daukala xedatu behar dute.

Eskubide ekonomikoak mobilizatzeko bazkide arruntari edo onuradunari ez dio inolako gasturik eragingo, ezta eskubide horien inolako murrizketarik ere.

1.4.13.1. *Banakako modalitatea*

Berme eta aseguru-baldintzek ahalbidetzen dutenean, onuradunak eskatuta eskubideak beste aurreikuspen-plan batera mobilizatu ahalko dira.

Bazkide arruntak edo onuradunak idatziz jakinarazi beharko dio bere helburu den BASEari bertara bazkide gisa sartzeko eskatzeko, bazkide ez bada, eta hartzea onartzeko. Jakinarazpen horretan:

- Jatorriko plana eta Erakundea zein diren adierazi beharko da.
- Xede Erakundeak interesdunaren izenean jatorriko Erakundeari mobilizazioa eskatzeko emandako baimena erantsi beharko da.
- Mobilizatu nahi diren eskubideen zenbatekoa adierazi beharko da.
- Lehenengo ekarpena egin zen eguna adierazten duen ziurtagiri bat erantsi behar da.

Jatorriko Erakundeari agiri horiek helarazten zaizkionetik gehienez bost egun balioduneko epea ematen da mobilizazioa gauzatzeko.

1.4.13.2. *Enplegu modalitatea*

Eskubide ekonomikoen mobilizazioa, osorik gauzatu behar dena, bazkide arrunt aktiboa edo etenaldian dagoena eta bazkide babeslearen arteko lan-harremana desagiteko baldintzaren menpe dago.

Mobilizazioa beste laneko plan bat edo beste edozein plan baino lehen egin behar da, jatorriko Erakundean dagoen kobratzeko moduaren inguruko baldintzak eta ezaugarriak betetzen baldin badira.

Lan-harremana bukatzen denetik gehienez 2 urteko epea ezarri ahalko da bazkideak mobilizaziorako eskubidea gauzatu ahal izateko.


Mobilizazioa eskatu ondoren, hori gauzatzeko epea bi hilabetekoa baino laburragoa izango da.

Bazkide pasiboek eta onuradunek estatutuetan eskubideen mobilizazioaren inguruan ezartzen dena bete beharko dute.

1.4.13.3. *Modalitate elkartua*

Modalitate honetako erakundeek beren estatutuetan beste edozein aurreikuspen-planera mobilizatzeko eskubidea jaso beharko dute, eta banakako mobilizazioan mobilizaziorako ezarritako arauak aplikatuko dira edo bestela, mobilizazioa bazkide-harremana hausteko baldintzaren menpe jarriko da, eta orduan, enplegu modalitateko mobilizazio-arauak aplikatuko dira.

1.8. irudia



1.4.14. Base erregistro berezia

BASE Erregistro Berezia Euskadiko erakunde zentral bat da, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren menpe dago, egoitza Gasteizen dauka, bere eraginkortasuna publikizitate material eta formalak zehazten du, eta honako zeregin hauek dauzka:

- Indarrean dagoen araudiaren arabera, inskribatu eta ziurtatu behar diren ekintzak inskribatu eta ziurtatzea, Euskadin helbide soziala daukaten BASEei eta Erakunde edo Elkarte horien Federazioei eta horien Taldeei buruzkoak direnean.
- Zerbitzuaren eraginkortasuna, ekonomia eta erraztasuna ziurtatzeko helburua duten neurriak aztertu eta proposatzea.
- BASEen ondorengo ekintza hauek inskribatzea:
 - Osaketa.
 - Estatutuen aldaketa.
 - Beste entitate bat sortzeagatik edo xurgapenagatik bat egitea.
 - Entitatea desegiteko akordioa eta likidazio-prozesua bukatuta dagoela adierazten duen aitortpena.
 - Erakundea desegiteko ebazpena, desegite hori irmoa denean.

1.4.15. Kanpoko eta barneko kontrola

BASEen funtzionamendua bi alderditatik kontrolatzen da: kanpotik, Legeak Herri Administrazioei aginduta; eta barrutik. Barneko kontrola Erakundearen ardura da, eta administrazioiko eta kontabilitateko kudeaketa egokia lortzeko antolamendua eta funtzionamenduari buruzkoa da, baita bazkideek Gobernu Organoen bitartez daukaten kontrolari buruzkoa ere.

1.4.16. Bukatzea eta desegitea

Bukatzeko ekintza juridiko jakin batzuk gauzatzea beharrezko duten izaera juridiko propioa daukaten gainontzeko Erakundeekin gertatzen den bezala, BASEak desegin eta likidatzeko arau zehatz batzuen menpe daude. Arau horiek Legeak nahiz Erakundeko Estatutuek ezartzen dituzte.

Hortaz, BASEak ondorengo kasu hauetan desegingo dira:

- Beste Erakunde batek xurgatzen dituenean, eta Erakunde horrek haren eskubide eta betebeharrak bereganatuko ditu.
- Arau-hauste oso larri baten ondorioz, Eusko Jaurlaritzako derrigorrez desegiteko zigorra ezartzen dionean.
- Baimena eman osteko bi urteetan bere jarduerari ekin ez dienean edo epe horretan jarduerarik egon ez dela egiaztatzen denean.
- Estatutuetan jasotako beste edozein arrazoiren ondorioz.

Erakundea desegiteko lehenengo deialdian beharrezkoa izango da bazkideen bi herenen gehiengoa lortzea; bigarren deialdian, aldiz, bazkideen erdia gehi baten gehiengoa lortu beharko da.

1.4.17. Diziplina araubidea

BASEen arauketa diziplina eta zigor araubide propio bat ezarriz bukatzen da. Hori BASEetako Batzordeetako kideek dauzkaten betebeharrak eta zereginak aztertzen direnean analizatuko da.


1.5. Beste erakunde batzuk

Euskadin soilik dauden gizarte-aurreikuspeneko erakunde juridikoak diren BASEez gain, Estatuko araudiaren arabera funtzionatzen duten gizarte-aurreikuspeneko beste instrumentu batzuk daude. Hots: planak eta pentsio-funtsak, aseguru-kontratuak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, Enpresako Gizarte-aurreikuspen Planak (PPSE) eta Aseguratutako Gizarte-aurreikuspen Planak.

Atalburu honen helburua gizarte-aurreikuspen osagarriko instrumentu horiek aurreko atalean BASEei buruz azaldutakoarekin alderatuta dauden desberdintasun nagusiak deskribatzea da.

1.9. irudia

Gizarte aurreikuspen osagarriko beste erakundeak



1.5.1. Pentsio funtsak eta planak

Pentsio-planak kontratuak dira, eta horien bitartez antolatu edo kanalizatzen da aurreikuspenarekin lotuta aurreztutako zenbatekoa; ezaugarri bereizgarri hauek ditu: norbere borondatez egiten direla, eta pribatuak eta osagarriak direla.

Pentsio-planak kontratuak dira, eta horien bitartez antolatu edo kanalizatzen da aurreikuspenarekin lotuta aurreztutako zenbatekoa; ezaugarri bereizgarri hauek ditu: norbere borondatez egiten direla, eta pribatuak eta osagarriak direla.

Ondorioz, funtsa ekarpenekin osatutako ondarea dela eta pentsio-planak ondare horren antolamendua eta funtzionamendua eta eskuratzeko modua arautzen dituela ondoriozta dezakegu.

1.10. irudia



1.5.1.1. Pentsio-planen funtsezko printzipioak

Pentsio-planek ondorengo oinarriko printzipio nagusi hauek guztiak bete beharko dituzte:

- *Diskriminaziorik eza*: kontratu mota bakoitzerako ezarritako lotura edo sustatzailearekin kontratatzeko gaitasun-baldintza guztiak betetzen dituen edozein pertsona planeko parte-hartzaile bilakatu ahal izatea bermatu behar dute planek.
- *Ekarpenen atzeraezintasuna*: Pentsio-planetan sustatzaileek egindako ordainketak ezingo dira atzera bota, hau da, sustatzaileak horiek gauzatzeko betebeharra dauka eta planarekin zorretan dago.
- *Eskubideak egozte*: Planetan egindako ordainketa eta ekarpenek¹¹ eta erabilitako kapitalizazio-sistemak parte-hartzaileentzako eduki ekonomikoko eskubide batzuk izatea eragingo dute.
- *Pentsio-funts batean derrigorrez sartzea*: ordaindutakoak, ekarpenak eta pentsio-planari atxikitako baliabide guztiak pentsio-funts batean sartu behar dira derrigorrez, araudiak aurrez ikusten dituen baldintzetan.
- *Likidezirik eza*: parte-hartzailearen eskubide ekonomikoak gertakizuna (erretiroa, ezintasuna, heriotza, menpekotasun larria eta menpekotasun handia) jazotzen denean gauzatuko dira. Aparteko kasuetan, likidezia egoerak kontuan hartzen dira gaixotasun larriko edo luzerako langabezia kasuetarako, baina baldintza jakin batzuen arabera eta planeko zehazpenetan edo arauetan hala xedatzen bada.
- *Kontrol Batzordearen ikuskapena*: Enplegu Sistema eta Sistema Elkartuko pentsio-plan bakoitzaren funtzionamendua eta exekuzioa Kontrol Batzorde batek ikuskatuko du.

¹¹ Aipatzekoa da egindako ordainketak aipatzen direnean sustatzaileei egiten zaiela erreferentzia, ekarpenak aipatzen direnean, aldiz, parte-hartzaileekin lotuta daudela ulertu behar da.

1.5.1.2. *Ekarpenen mugak*

Araudiak ekarpenei muga finantzario batzuk ezartzen dizkie eta horiek urtero planei egin dakizkieke.

Gaur egun pentsio planetan egindako enpresa-ordainketa eta -ekarpenen urteko gehienezko zenbatekoa ezin da 10.000 euro baino gehiagokoa izan; hala ere, ezintasunak dauzkaten pertsonentzako salbuespen jakin batzuk ezartzen dira. Horrez gain, 50 urte baino gehiago dauzkaten parte-hartzaileen kasuan, gehienezko zenbatekoa 12.500 euro-raino areagotzen da.

Kontuan hartzekoa da aipatutako muga horiek bakarrak eta guztienak direla, hau da, gaur egun, parte-hartzaile baten aldeko plan batean egiten diren ekarpen eta ordainketen kopuru osoa, ekarpenak eta ordainketak norik egiten dituen kontuan izan gabe, ezin da zenbateko horiek baino altuagoa izan.

Aparteko kasu batzuetan, Enplegu modalitateko planetarako, Legeak enpresa sustatzailerak berak sustatu duen planean zehaztutako mugak gainditzen dituzten ekarpenak egieta ahalbidetzen du, erretirorako prestazio zehaztuko araubideak barne hartzen dituzten planetako parte-hartzaileen eskubideak edo martxan dauden prestazioak bermatzeko beharrezkoa denean eta aktuarioko berrikuspenen bitartez, planean defizit bat dagoela ikusi baldin bada.

1.5.2. *Aseguru kontratuak*


Kontratu hauen arabera, aseguratzailerak prima bat kobratzen du eta ondorioz, aseguratu nahi den arriskua gauzatzen bada, hitzartutako mугen barruan, aseguratuak jasan duen kaltea ordaintzera edo zenbateko bat, errenta bat edo hitzartutako bestelako prestazioren bat ordaintzera behartuta geratzen da.

Kontratuak horiek estaltzen dituzten gertakizunen arabera formalizatuko dira, dagokien polizaren bitartez antolatuko dira, eta dagozkien klausuletan jasoko dira funtzionamenduko arauak.

Aseguru-kontratuen esparruan ere «menpekotasun aseguruak» aipatu behar dira. Aseguru horiek autonomia pertsonala eta menpekotasun egoera dauden pertsonen arretaren sustapenerako Legearen arabera izenpetutako polizak dira, eta gaur egun, estaldura hori asetzeko sortutako garapenaren hasierako fasean daude.

1.11. irudia

Aseguru kontratua



1.5.2.1. Kontratuko elementu pertsonalak

Pentsio bidezko konpromisoerik dagozkien aseguru-kontratuetan hiru parte-hartzaile bereiz daitezke:

- *Asegurua hartzen duena*. Konpromiso horiek bere gain hartu dituen enpresa izango da, eta hura primak ordaintzera behartuko da. Langileek primak finantzatzeko ekarpenak egiten badituzte, enpresa aseguru hartzaile gisa azalduko da; hala ere, langileen kontura egingo du, haiek egindako ordainketei dagokien zatian.
- *Aseguratua/k*. Prestazioekin lotutako langileak dira.
- *Onuraduna/k*. Pertsona fisikoak dira, eta haien alde sortzen dira pentsioak. Enpresak ezingo du inola ere bere burua onuradun izendatu.

1.5.3. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak

Aplikatzan zaien araudiaren arabera¹², Gizarte-aurreikuspeneko Mutualitateak (aurrerantzean GAM) erakunde aseguratzaile pribatuak dira, irabazi asmorik gabekoak, norbere borondatezko modalitate aseguratzailea daukatenak, eta mutualista, pertsona fisiko edo juridiko edo beste erakunde edo pertsona babesle batzuen prima finko edo aldakorreko ekarpenen bidezkoak.

¹² Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskapenerako urriaren 29ko 6/2004 Legea (aurrerantzean APAIL); Gizarte-aurreikuspeneko Mutualitateen abenduaren 27ko 1430/2002 Arautegia (aurrerantzean «Mutualitateen Arautegia») eta Enpresen pentsioen inguruko konpromisoen antolamendurako urriaren 15eko 1588/1999 Legea.

1.5.3.1. *Ezaugarri nagusiak*

Garatutako bereizgarriez gain, GAMEk ondorengo ezaugarri hauek dauzkate:

- *Irabazi asmokoak* dira.
- *Aseguru hartzailea ala aseguratua izatea ezingo da mutualista izatetik bereizi.*
- Sozietatearen zorren ondorioz *mutualistek daukaten erantzukizuna* azken hiru ekitaldian ordaindutako kuoten batuketaren heren bat baino gutxiagora *murritzten da*, unean uneko kuota kontuan izan gabe.
- Administrazioaileen ordainketa administrazioko beste gastu bat izango da eta ezingo ditu Ekonomia eta Ogasun Ministerioak ondorio hauetarako ezarritako mugak gainditu.

1.5.3.2. *Estalitako gertakizunak*

GAMEk, erakunde aseguratzaile gisa, pertsona eta gauzen arriskuen inguruko aseguru eragiketak gauzatu ahalko dituzte.

Pertsonen gaineko arriskuei dagokienez, GAMEk *heriotza, alarguntza, zurtasuna eta erretiroa* estali ahalko dituzte, baita ezkontza, amatasuna eta umeak izatearen ondoriozko prestazioak ere.

Halaber, laneko *istripu* eta *ezintasun* aseguruak (aldi baterako ezintasuna barne), *gaixotasunekoak, defentsa juridikokoak, laguntzakoak eta heriotza* aseguruak (esaterako, lurperatze-zerbitzua edo horren ondoriozko gastuen zenbatekoa itzultzea) ere egin ahalko dituzte. Horrez gain, bere ogibidean aritzea aldi baterako galarazten dioten beste jarduera edo ekintza juridiko batzuen ondoriozko beharrei aurre egiteko prestazioak emateko aukera ere aurreikusten da.

Aurrekoari kalterik egin gabe, kontuan hartzekoa da bermatzen diren prestazio ekonomikoek ezingo dituztela araudiak ezartzen dituen mugak gainditu; hala ere Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eguneratu ahalko ditu, haren ustez eguneratutako prestazioak ordaintzeko berme finantzarioak nahikoa badira.

1.5.3.3. *Modalitateak*

GAMen esparru objektiboaren arabera:

- *Enpresako gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak*: bertan mutualista guztiak langileak dira, bere babesle edo sustatzaileak enpresak, erakundeak edo enpresarioak dira eta bertan, haiek beren zerbitzuak eskaintzen dituzte eta eskaintzen diren prestazioak bien artean (langileak eta enpresak) egindako aurreikuspen hitzarmenen ondoriozkoak dira soilik. Beraz, kasu hauetan Mutualitateak enpresako gizarte-aurreikuspen instrumentu gisa diharduela ulertzen da.
- «*Bestelako*» izaera daukaten *gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak*: Mutualitateen Arautegiko 2. artikulua honakoa xedatzen du: «*gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak bestelakoak izan ahalko dira Norbere Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubidearekin alderatuta*». Aukera hori profesional jakin batzuen kolektiborako aurreikusi da eta boluntarioa da, hortaz, haren eragina jasaten dutenek Gizarte Segurantzako araubide horretan sartzea ala dagokien GAMen mutualista gisa sartzea aukeratu ahalko dute.

1.5.4. Enpresako Gizarte-Aurreikuspen Planak (EGAP) eta Aurreikuspen Plan Aseguratuak (APA)


Horrez gain, aseguru esparruan pentsio-planen antzeko produktuak onetsi dira.

- *Enpresako Gizarte-aurreikuspen Planak*: aseguru kontratu bat da, eta bertan pentsio planen antzeko abantailak ematen dira, esate baterako zergak ordaintzeko unea atzeratzea¹³. Interesen bermea eta mozkinetako parte-hartzea barne har dezakete. Enplegu sistemako pentsio planen modukoak dira.
- *Aurreikuspen Plan Aseguratuak*: banakako sistemako pentsio-planen moduko aseguru kontratu bat da, eta bertan, epemugan errentagarritasun bat lortuko dela bermatu behar da.

¹³ EGAP eta APAetara ekarpenak egiten diren urtean jasotako diru-sarrerak ez dira urte horretako tributazioaren menpe dagoen errentan sartzen, zergak produktu horien ondorioz pilatutako zenbatekoak jasotzen diren urtean ordainduko baitira.

1.6. Erakunde publiko eskudunak

1.12. irudia



BASEen administrazioko kontrolaren lehenetsuneko helburua arauak betetzea exijitzea eta Erakundeek beharrezko likidezia izateko lan egitea da, haien bazkideen eskubideak babesteko. Kontrol hori *Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren* eta *Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren* esku dago, hurrenez hurren.

Legeak kontrol eta jarraipenerako ekintza zehatz hauek izendatzen ditu:

- *BASEn Erregistroan* inskribatzea, eta Estatutuak eta horien aldaketak Legean eta hori garatzen duen Arautegian aurrez ikusitakora egokitzeko lan egitea.
- Erakunde horien *jarduera eta egoera ekonomiko eta finantzarioaren* jarraipena, eta horretarako, urtero urteko kontu ikuskatuak eta kudeaketaren txostena eta eskatzen zaizkion beste agiri batzuk aurkeztu beharko dituzte:
 - Inbertsio-printzipioen deklarazioa.
 - Aktuario-txostena.
 - Beste pertsona batzuekin egindako aktiboen kudeaketarako kontratuak, baloreen zaintza eta gordailukoak eta berrasegurukoak.
- *Disziplina eta ikuskapen* jarduera.

Pentsio-planak eta funtsak eta erakunde aseguratzaileak beren jardueran *Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren* kontrol eta ikuskaritzaren menpe daude, eta hori *Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren* bitartez gauzatzen du. Erakunde horiek funtzionatzeko administrazioaren baimena behar izateaz gain, Zuzendaritza Nagusi horri aldizka agiriak eta informazioa helarazi behar diote hark bere ikuskapen-lana egiteko.

1.7. Kanpoko eragileen harremanak eta zereginak

Aurreikuspeneko instrumentuek berezko dituzten ezaugarrien ondorioz, instrumentu horiek gauzatzen dituzten ekintzak derrigorrez gauzatzen dira beste pertsona fisiko edo erakunde batzuen lehiaketarekin, eta hori guztia, batzuetan, erakundearen barneko erakundeen ikuskaritzaren menpe, eta beste batzuetan, araudiak ezarritako mugen arabera eta jardueren eta ordaindutako komisio edo prezioen inguruko arautzaileak ikuskatuta.

1.7.1. BASE

BASEek izaera juridiko propioa daukate, hori dela eta, funtzionatzeko ez dute erakunde kudeatzaile bat kontratatu behar. Hala ere, araudiak Erakundeek aurreikuspen-planaren ondasuna gauzatzen den aktibo finantzarioen zaintza eta gordailua kontratatu behar dutela xedatzen du.

Bere aktibo finantzarioen *kudeaketa kanpoko norbaiten esku uzteari* dagokionez, araudiak ahalbidetu egiten du, baina baldintza jakin batzuekin:

- Zerbitzua eskaintzen duenak kreditu erakunde bat, inbertsio kolektiboko erakundeen kudeaketarako sozietate bat, inbertsio enpresa bat edo bizitzaren alorrean aritzen den aseguru erakunde bat izan beharko du, eta kontratu bat baino gehiago egin ahalko ditu erakunde desberdinekin.
- Kontratuak idatziz jaso beharko dira, Gobernu Batzordearen erabakiaren ondoren.
- Kontratu bakoitzaren ondoriozko mugimendu ekonomikoak efektibo eta balore kontu espezifiko batean jaso beharko dira.
- Kontratu bakoitzak zerbitzua eskaintzen duen erakundeak bete behar dituen kontrolleko mekanismoak eta aldizka informatzeko betebeharrak zehaztu beharko ditu. Hor-taz, gauzatutako ekintzen txosten osatu bat egin beharko du hilean behin gutxienez.

- Kontratuek dibertsifikazio eta sakabanaketa mugak ezarri beharko dituzte, baita ondare-
rea zuhurtziaz kudeatzeko eta kontrolatzeko beharrezkotzat jotzen dituen inbertsioen
baldintza kuantitatibo eta kualitatiboak ere.

Azkenik, kudeaketa, gordailu eta zaintza-kontratu guztiek erregistro eguneratu batean azaldu beharko dute, eta Administrazioak erregistro hori eskuragarri eduki beharko du.

1.7.2. Pentsio funtsak

Pentsio funtsen kasuan, izaera juridikorik ez daukatenez, beharrezkoa da ondasunak administratzen dituen erakunde kudeatzaile baten eta horiek zaintzen dituen gordailu erakunde baten lehiaketa, beti ere, kontrol batzorde baten ikuskaritzapean.

Hona hemen *erakunde kudeatzaileen* jarduera nagusiak:

- Funtsa eratzekeo eskritura ematean esku-hartzea, baita aldaketetan ere.
- Kontabilitatea eramatea.
- Kontuko zenbatekoak zehaztea.
- Planekoa dela adierazten duten ziurtagiriak jaulkitzea.
- Inbertsioak aukeratzea.

Bestalde, *entitate gordailuzainen* jarduera nagusiak honako hauek dira:

- Funtsa eratzekeo eskritura ematean esku-hartzea, baita aldaketetan ere.
- Egingo diren ordainketak antolatzea, baita eskubide ekonomikoen esku-aldaketak ere.
- Funtsaren jabetzako balore eta aktibo likidoak jasotzea.

1.7.3. Kanpoko beste eragile batzuk

Beren jardueretan dihardutenean, aurreikuspeneko erakundeek beste pertsona fisiko edo erakunde juridiko batzuen zerbitzuak behar izaten dituzte, batzuetan aldizka, eta beste batzuetan egoera jakin baten ondorioz. Ondoren horietariko batzuk definitzen dira:

- *Aktuarioa*: Pentsioen ondoriozko egungo eta etorkizuneko konpromisoak ebaluatzeko erantzukizuna duen pertsona edo entitatea, aurreikuspen planaren finantza-kaudimena egiaztatzeko, egun onartuta dauden kontabilitate metodoak eta metodo aktuarialak jarraituz.
- *Aholkulari juridikoa*: aholkularitza eta gomendio juridikoen bitartez BASEen jarduerak Zuzenbidearen araberakoak izatea ahalbidetzen duen pertsona edo entitatea.
- *Kontu-ikuskaria*: Pertsona edo entitate aditu bat, zeinari entitatearen kontabilitatearen eta finantzetaiko egoera-orrien auditoretza bat edo egiazkotasunaren egiaztapena egitea esleitzen zaion. Hori guztia orokorki onartuta dauden metodoen arabera eginez, BASEek kontu-ikuskaritzaren pean jarri behar dute, eta hori egiten duten kontu-ikuskariek profesional aditu eta independenteak izan behar dute.

Eragile horiekin ondorengo *jarduera-oinarri* hauek bete beharko dira:

- Aldez aurretik erakunde eskudunen baimena izatea, aplikatzen den araudiaren eta barneko funtzionamenduko arautegien arabera.
- Idatzizko kontratu bat exijitzea.
- Ordaindutako zenbatekoen inguruko gardentasuna, izan ere, Erakundearen bazkideentzako errentagarritasun txikiagoa eragingo baitute ordainketa horiek. Ahal den neurrian, komenigarria da zerbitzua emateko eskaintza bat baino gehiago eskatzea baldintzarik onenak dituen zein den jakiteko.

2

Aurreikuspen sozialeko osagarriaren esparru juridikoa

2.1. Sarrera

Kapitalizatutako Pentsio Sistemen Funtzionamenduari buruzko Eskuliburu honetako ataleko lehenengo eta bigarren atalburuetan adierazi den bezala, Europako herrialde gehienek ezarri dituzten ohiko pentsio- eta banaketa-sistema publikoen alorreko testuingurua osatzen zuten baldintzak aldatu egin dira, hau da, jaiotza-tasa jaitsi egin da eta biztanleria gero eta zaharra da, prestazio sozialak areagotu dira, baina sistema sozial publikora egiten diren ekarpenak, aldiz, murriztu egin dira. Ondorioz, estatu asko beren gizarte-aurreikuspeneko sistemak berrikusten hasi ziren gaur egungo errealitateko baldintzetara egokitzeko. Hausnarketa horren ondorioz, gizarte-aurreikuspeneko sistema pribatuak sortu ziren.

Europako herrialdeak etorkizuneko egoeraz kezkatuta daude eta horixe jaso da Merkatu Bakarreko Pentsio Sistema Osagarriari buruzko Liburu Berdean¹⁴, bertan hiru aurreikuspen mailak zehaztu ziren (publikoa, enpleguzko osagarria eta banakako osagarria).

Horrela, eta egoerari aurre egiteko nahian aurreikuspen osagarriaren bigarren maila sustatu egin da. Kezka hori Euskadin ere gizartean zabaldu da.

2.2. Oinarrizko araudia

2.2.1. Europako esparrua

Europa mailan, Europako Parlamentua eta Kontseiluaren 2002/74/EE Zuzentarauak, 2002ko irailaren 23koak, enpresaria kaudimenik gabe geratzen den kasuetan soldatapeko

¹⁴ Batzordeak 1997ko ekainaren 10ean onetsi zuen.

langileak babesteari buruz Estatuak dauzkaten legeen hurbilketari buruzko Kontseiluaren 80/987/EEE Zuzentzarauak xedatzen duena egokitu eta aurreratzen du.

Hortaz, enpresariak kaudimenik ez duenean soldatapeko langileak babestearen inguruan estatuetako legeak hurbiltzeari dagokionez, sistema berezi bat sartu zen langileentzako, eta une hartan estatu kide batzuetan beharrezkotzat jotzen zen kaudimenik ezeko Eskubidearen aldaketari itxaron gabe; izan ere, epe laburrean gauzatzea zaila baitzen. Helburu horrekin, Estatu Kideak enpresariak kaudimenik ez daukanean, haren soldatapeko langileei laneko kontratuen ondorioz edo denbora tarte jakin bateko ordainketei dagozkien lan-harremanen ondorioz zorpetutako maileguak ordaintzea bermatzeko organismo bat sortzera behartzen zituzten.

Kontseiluaren 80/987/EEE Zuzentzaraua «enpresek pentsioen ondorioz hartzen dituzten konpromisoak kanporatzeko» prozesuaren hasiera eragin zuen, eta pentsioak barneko funtsen bidez estaltzea debekatzen zuen, eta ondorioz, enpresak beren langileekin hartutako konpromisoak, besteak beste, pentsio plan baten bitartez antolatuzera behartzen zituena¹⁵.

Daukan garrantziaren ondorioz gailentzen den bigarren Zuzentzaraua ekainaren 3ko 2003/41/EEE Zuzentzaraua da, enpleguko pentsio-funtsen ikuskapena eta jardueri buruzkoa. Zuzentzarau horren helburua etorkizuneko pentsiodunen eskubideen mesederako, pentsio funtsak osatzen dituzten erakundeen kaudimen finantzarioa eta kudeaketa eraginkorraren alde egitea da¹⁶.

Hala ere, zuzentzarau horiek aplikatzean hainbat arazo azaleratu ziren, eta *zailtasun* nagusiak ondorengo zerrendan jaso direnak izan ziren:

- Zuzentzarauan jasotako kaudimenik ezaren kontzeptua.
- Langileen eskubideak bermatzeko sartutako neurrien konplexutasuna.
- Estatu bat baino gehiago barne hartzen dituzten egoeretako kaudimenik eza.

¹⁵ Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak azaroaren 25ean Gizarte-aurreikuspen Boluntarioko Erakundearen bitartez enpresetako pentsioen ondoriozko konpromisoak kanpoko norbaiten eskuetan uzteari buruzko 1/2002 Instrukzioa onetsi zuen, Zuzentzarau horretan jasotakoa zabaltzeko (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 233. zenbakia, 2002ko abenduaren 5eko).

¹⁶ Eusko Jaurlaritzak 92/2007 Dekretua onetsi izanaren helburuetariko bat, bertako zioen azalpenean jaso den bezala, aipatutako Zuzentzarauan jasotakoa Euskadiko gizarte-aurreikuspen sisteman aplikatzea da BASEen kaudimena eta sistemaz fidatu diren pertsonen eskubideak bermatzeko (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 115. zenbakia, 2007ko ekainaren 15eko).

Azkenik, alorraren garrantziaren jakitun, gaur egun, erkidegoko administrazioaren esparruan hainbat proiektutan lan egiten ari dira, eta beren azken bertsioaren arabera, eragin handiagoa edo txikiagoa izan ahalko dute aurreikuspenaren sektorean:

- Aseguru-entitateen zentzuzko ikuskapenaren araubideari buruzko Zuzentaraua, «II. Kaudimen» gisa ezagutzen dena.
- Pentsio osagarriaren eskubideen eramangarritasuna hobetzeari buruzko Lisboako erki-dego- programa martxan jartzeko proposamena.

2.2.2. Euskadiko esparrua

10.23 artikulua arabera, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak Euskadiri Gizarte Segurantzak barne hartzen ez dituen mutualitateen alorretako eskumen osoa ematen dio. Eskumen hori erabiltzeko orduan, Konstituzioan jasotako oinarri eta eskubideak dira dauden muga bakarrak.

Euskadin, legegintza-prozesuari dagokionez, Eusko Legebiltzarrean Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundeei buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legea onartu zen, eta haren bitartez Euskadiko gizarte-aurreikuspen osagarriaren alorreko oinarritzko araudia osatu zen.

Aipatutako 25/1983 Lege horren bitartez lortu nahi dena ondorengoa da, *zioen Azalpenean* adierazten den bezala: «... *egungo legeria ordezkatzeko duen beste lege bat ezartzea da, legeria herrialdeko berezitasunetara egokitzeko eta Administrazioaren jardueraren modernizatzeko, eta horrela, Administrazioaren eta Mutualismoaren arteko harremanean eraginkortasuna, garapena eta aurrerakoitasunaren faktoreak nagusitzeko*».

Arauk Estatuan lehenengoz arautu eta garatu zuen oso gutxi araututa zegoen esparru zabal bat (Europako estatuetan bazen zerbait araututa), *Erakunde horien jardueraren eta garapen askatasuna sustatzeko* eta, bereziki, *uneoro bazkideen eskubideak zaintzeko* helburuekin.

Jardueraren esparrua antolatu eta garatzeko asmoarekin, Legearen izenburuan eta bere helburua zehazterakoan, dagoeneko BASE kontzeptua sortzen da, hori guztia bazkideak beren bizitza, baliabideak edo jardueraren profesionala arriskuan jar dezaketean gertakizunen aurrean babesteko azken helburua daukaten erakunde eta esperientzia desberdin ugari barne hartzeko.

25/1983 Legea garatzen duen Arautegia deskribatzailea da, eta otsailaren 20ko Osasun eta Gizarte Segurantzaren Sailaren 87/1984 Dekretuaren bitartez onetsi zen. Hortaz, 25/1983 Legearen zenbait agindutan jasotako erreferentzien arabera, araudiak zenbait gai garatu eta sakontzen ditu eta zehatzago definitzen ditu Erakundeen kudeaketa eta eraketa printzipioak, baita alderdi zehatzagoak ere, esaterako, BASEen funtzionamendua edo Gobernu Organoen arauketa.

Testu arau-emaile bi horiek BASEek Euskadin daukaten oinarria eta beren arau-esparrua zehazten dute. Beren funtzionamenduan planteatutako egoerak zirkular batzuen bitartez eztabaidatu eta azkenean, argitu dira eta Erakunde horien bilakaera naturala moldatu dute.

Azkenean, arau horrek maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua barne hartzen du. Horren bitartez BASEen jarduera jakin batzuk arautzen dira. Besteak beste, bazkideek era onuradunek dituzten informazioa jasotzeko eta defentsa eskubideak, funtsak inbertitzeko irizpideak, erakundeen ekonomia eta finantza egoeraren jarraipenaren gaineko kontrolak eta BASEetako Zuzendaritzako eta Gobernu Batzordeko kide gisa diharduten pertsonen gizarte-aurreikuspenaren alorreko ezagutza maila jakin bat daukatela frogatu behar dutela jaso da.

2.3. Zerga araudia


Gizarte-aurreikuspen osagarriaren alderdi fiskalen analisiak ekintza berak eragin desberdinak izango dituen hiru egoera kontuan hartu behar ditu:

- *Aurreikuspen-erakunde propioen* tributazioa; izan ere, zergak ordaindu beharra daukate.
- Aipatutako erakundeen *bazkide sustatzaile edo babesleen* tributazioa, zuzeneko onurarik jaso gabe, hura mantendu eta garatzearen alde egiten dutenena. Horrelako bazkideek egiten dituzten ekarpenak ez daudela etorkizunean prestazioak jasotzeko eskubidearekin lotuta kontuan izanik, zergen ikuspuntutik ekarpen horiek haientzako ondoriorik daukaten analizatzea soilik izango da beharrezkoa.
- *Bazkide osoen* tributazioa edo haren *onuradunena*. Kasu honetan une desberdin bitan (hau da, ekarpenak egitean eta prestazioa jasotzeko unean) gauzatu litezkeen ondorio fiskalak analizatu beharko dira.

Kontuan hartzekoa da Euskadin zergen alorrean ordainketa biltzeko eta arautzeko gaitasuna hiru Lurralde Historikoetako (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) foru aldundien esku da-

goela. Izatez, horietariko bakoitzak deskribatutako egoera bi horiek arautzeko gaitasuna dauka. Hala ere, ondoren garatuko diren alderdietan, hiru legeriak oso antzekoak, edo ia berdinak dira.

2.3.1. BASE-en zerga araubidea



Sozietateen gaineko Zergaren (aurrerantzean SZ) araudiak tributazioa % 0ko tasan ezartzen du zerga araubide berezia arautzen duten Foru Arauetan ezarritako baldintza eta betekizunak betetzen dituzten BASEetarako. Hau da, erretiroa, betirako ezintasuna, heriotza, gaixotasun larria, luzerako langabezia eta menpekotasunaren ondoriozko pentsioak ematen dituzten Erakundeak. Erakunde horiek kapital higigarriaren errendimenduak jasotzean kendu zaien zenbatekoa itzultzeko eskatu ahalko dute, jatorriko kenketa bakarreko aktibo finantzarioen errendimendu inplizituei dagozkienak izan ezik, hau da, beren bizitzan sortzen duten errentagarritasunaren ondorioz, erosketa prezioa murrizten zaien produktuak (adibidez, deskontuan jaulkitako zor publikoa).


Pentsioak ematen ez dituzten BASEek % 21eko tasa murriztuarekin tributatu dute (tasa % 25 izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudiaren menpe dauden BASEentzako).

Beste zerga batzuei dagokienez, BASEak ondorengo hauetatik salbuetsita daude:

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
- Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga.
- Jarduera ekonomikoen gaineko Zerga.
- Hiri-izaerako lursailen balioaren igoeraren gaineko udal zerga.

2.3.2. Bazkide sustatzaile edo babesleen zerga-ordainketaren araubidea

2.2. irudia



Atal honetan enplegu-sistemaren arabera sustatutako instrumentu edo Erakundeak soilik sartzen dira.

Oro har, eta SZren araudian ezarritakoaren arabera, aurreikuspeneko erakunde edo instrumentuei babesleek edo sustatzaileek beren langileen alde egindako ekarpenak, zergei dagokienez, gastu deduzigarri gisa hartuko dira, ekarpenak lan pertsonaleko errendimendu gisa hartzen direnean.

Aparteko kasuetan, ondorengo balizko egoeretan, egindako ekarpenak SZren ondorioetarako gastu deduzigarritzat joko dira, horiek bazkide oso edo arruntei egotzi behar izan gabe:

- 1986ko irailaren 17a baino lehenagoko konpromisoak.
- Aparteko kasuetan egindako ekarpenak, martxan dauden prestazioak edo erretiro-rako prestazio zehaztuko araubideak barne hartzen dituzten eskubideak bermatzeko beharrezkoak direnak, eta aktuarioak berrikusiz, defizit bat dagoela azalera-
dean.

Bestalde, SZren araudiak zergaren kuota likidoan langileei egotzitako enpresako ekarpenen % 10eko kenketa bat aplikatzeko aukera barne hartzen du, baina horretarako, beharrezkoa da ondorengo baldintza hauek betetzea:

- Ekarpenei langileen kolektiboari eragitea.
- Langile bakoitzaren alde egindako ekarpenak urtero gehienez 8.000 euro izatea.
- Ekarpenei gizarte-aurreikuspeneko instrumentu gisa diharduen erakunde bati egitea eta enpresa bertan bazkide sustatzaile gisa aritzea.

Horrez gain, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2011ko abenduaren 31ra arte hasitako ezarpen aldiatarako soilik, Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoen araudietan, aurreikuspen instrumentuei egindako ekarpen berriek edo hitzarmena, hitzarmen kolektiboa edo xedapen baliokidearen ondorioz gauzatutako aurreko aldiarekin alderatuta ekarpenaren ehunekoa areagotzea eragiten duten ekarpenek ezarpen aldiari ordaindutako zenbatekoen SZren kuotaren % 50eko kenketa eragingo dute eta langile bakoitzeko 200 euroko gehienezko muga egongo da. Norbere borondatez hitzarmen, hitzarmen kolektibo edo xedapen baliokidean jasotakoaren gainetik egindako enpresako ekarpenek ez dute SZren ondorioz ordaintzeko zenbatekoa kentzeko eskubide hori eragingo.

2.3.3. Bazkide oso edo arrunten zerga-ordainketaren araubidea

2.3. irudia

1. Ekarpenei egiteko momentuan:

- Sustatzaileak egindakoa → *Laneko errendimenduak eta zerga oinarrian txiki-pena = zerga eraginik ez*
- Bazkide osoak egindakoa → *Gastu deduzigarri.*

2. Período de mantenimiento → *Sin incidencia fiscal*

3. Jasotzeko unean → *Laneko errendimenduak*

2.3.3.1. *Ekarpenen unea*

Enpresak bere langileen alde egiten dituen ekarpenak eta haiek zuzenean egiten dituztenak bereizi behar dira.

2.3.3.1.1. Sustatzaileak edo babesleak egindako ekarpenak

PFEZaren ondorioetarako jenerotan egindako laneko errendimendutzat jotzen dira eta langileak horrelaxe aitortu beharko ditu PFEZaren aitortpena egiten duenean. Hala ere, ekarpenak (3.3.1.3. atala ikusi) PFEZaren zerga-oinarritik kenduko direnez, ez daukate inolako eragin fiskalik bazkide arruntaren PFEZan ordainduko den zenbatekoan.

Bestalde, eta oro har, laneko errendimenduak PFEZaren ondorioetarako atxikipenen menpe dauden arren, enpresak (bazkide sustatzaileak) atxikipenaren ehunekoaren kalkularen oinarritik egindako ekarpenen zenbatekoa kendu beharko du, baina langilearen PFEZaren zerga-oinarriari ken dakiokkeen gehienezko zenbatekoa gainditu gabe.

2.3.3.1.2. Bazkide osoak egindako ekarpenak

Beren ondare propioaren kargura egiten diren neurrian, PFEZaren ondorioetarako ez dira errentatzat jotzen.

2.3.3.1.3. Zerga-oinarrian murrizketa

Bazkide osoek PFEZaren zerga-oinarrian kenketa bat aplikatzeko eskubidea daukate bai beraiek egindako ekarpenengatik, bai enpresariak egin dituen eta laneko errendimendutzat jo direnengatik, baldin eta ondorengo gertakizun hauetarikoren bat estaltzen badute:

- Erretiroa.
- Heriotza.
- Behin betiko ezintasuna.
- Menpekotasuna.
- Luzaroko langabezia.
- Gaixotasun larria.

Bazkidearen ekarpen pertsonalentzako nahiz enpresak egindako ordainketentzako ezartzen diren muga fiskalak bereizirik zenbaten dira, eta ondorengoak dira:

- Urtero PFEZaren zerga-oinarrian 8.000 eurorainoko kenketa bat urtero aurreikuspen instrumentu batera egindako ekarpenengatik (ordainketengatik).
- 52 urte baino gehiagoko bazkideen kasuan, lehen adierazitako muga hori urtero 1.250 euro areagotuko da bazkideak 52 urtetik gora daukan urte bakoitzeko eta 65 urte edo gehiagoko bazkideen kasuan ezartzen den gehienezko muga 24.250 eurokoa da.

Ekarpenak egin diren ekitaldietan murriztu ez diren zenbatekoak ondorengo bost ekitaldietan murriztu daitezke.

Horrez gain, aurreko 3.2. ataleko azken paragrafoan adierazitakoaren ildotik, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2011ko abenduaren 31ra arte hasitako ezarpen aldietarako soilik, Hiru Lurralde Historikoen araudietan, enpresako aurreikuspen-instrumentuei egindako langileen ekarpen berriek edo hitzarmena, hitzarmen kolektiboa edo xedapen balio-kidearen ondorioz gauzatutako aurreko aldiarekin alderatuta ekarpenaren ehunekoaren areagotzea eragiten duten ekarpenek ezarpen aldian ordaindutako zenbatekoen PFEZaren kuotaren % 50eko kenketa eragingo dute, eta langile bakoitzeko 200 euroko gehienezko muga egongo da. Langileak bere borondatez hitzarmen, hitzarmen kolektibo edo xedapen balio-kidean jasotakoaren gainetik egindako ekarpenek ez dute ekitaldian ordaindu beharreko PFEZaren zenbatekoa kentzeko eskubide hori eragingo.

2.3.3.1.4. Beste kenketa batzuk

Aurreko kenketak zeinahi izanda ere, zergapekoak bere zerga-oinarriari urtero gehienez 2.400 euro ken diezazkioke bere ezkontidea edo izatezko bikotea bazkide arrunt gisa daukan aurreikuspen instrumentu batean egindako ekarpenengatik, baldin eta (i) azken horrek ez badu laneko edo jarduera ekonomikoetako errendimendurik jasotzen, edo (ii) gastu kengarrien zenbatekoan errendimendu osoa murriztearen ondoriozko laneko errendimenduak eta jarduera ekonomikoetako errendimendu garbiak 8.000 euro baino gutxiago badira.

Ezkontideak, izatezko bikoteak edo beste senide batzuek (hirugarren mailaraino, maila hori barne) minusbaliotasunak dauzkaten pertsonen alde aurreikuspen sistemetan egindako ekarpenak bere PFEZaren zerga-oinarrian murriztu ahalko dira, eta pertsona bakoitzak 8.000 euroko muga izango du. Minusbaliatuak berak nahiz bere senidea den beste pertsona batek egindako ekarpenen ondorioz gehienez ken daitekeen zenbatekoa 24.250 eurokoa da. Kenketa hori aplikatzeko, beharrezkoa da minusbaliotasunak dauzkaten pertsonak gertakizun guztien onuradun bakarrak izatea (heriotzarekin izan ezik).

1. egoera praktikoa

Irabazpidezko ondasunen eraentzan ezkonduetako 56 urteko zergapeko pertsona. Ekitaldian ezkontideek ondorengo errentak jaso dituzte:

- *Zergapekoaren laneko errendimendu garbiak: 20.000 euro, gehi BASE batera bere alde egindako 2.000 euroko ekarpen bat.*
- *Bere ezkontidearen jarduera ekonomikoen errendimendu garbiak: 3.000 euro.*

Ekitaldian zergapekoak 1.500 euro ordaindu ditu bazkide den BASE batean eta 2.000 euro bere emazteak esku hartzen duen beste batean.

Ekarpen horien ondorio fiskalak azaldutako PFEZaren araudiaren arabera ondorengoak izango lirateke:

Zergapekoak bere zerga-oinarriari ondorengo zenbatekoak kendu ahalko dizkio:

- 1.500 euro zergapekoak bazkide oso den BASEan egindako ekarpenengatik (gehienez 8.000 euro + 4×1.250 euro).
- 2.000 euro enpresak zergapekoaren alde egindako ekarpenengatik.
- 2.000 euro BASE batean bere ezkontidearen alde egindako ekarpenengatik.

2. egoera praktikoa

Aurreko egoerako datu berberak ondorengo aldaketa hauekin:

- *Bikoteak legez onartutako % 65eko minusbaliotasun fisiko bat daukan alaba bat dauka.*
- *Alabak 3.000 euroko ekarpena egin du bazkide den BASE batean.*
- *Aitak BASE batean 2.000 euroko ekarpen bat egin du bere alabaren alde.*

Zergapekoaren alabak bere PFEZaren aitortpena egiten duenean Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundearekin egindako ekarpenengatik ahal duen besteko kenketa aplikatzen duela kontuan izanik, zergapekoak egindako ekarpenen ondorio fiskalak ondorengoak izango lirateke:

Zergapekoak bere zerga-oinarriari ondorengo zenbatekoak kendu ahalko dizkio:

- 1.500 euro zergapekoak bazkide oso den BASEan egindako ekarpenengatik (gehienez 8.000 euro + 4 × 1.250 euro).
- 2.000 euro enpresak zergapekoaren alde egindako ekarpenengatik.
- 2.000 euro BASE batean bere ezkontidearen alde egindako ekarpenengatik.
- 2.000 euro BASE batean bere alabaren alde egindako ekarpenengatik.

2.3.3.2. *Jasotzeko unea*

Aurreikuspen-tresna desberdinen araudiek prestazioak gertakizuna gauzatzen denean eta aukera dagoenean, pasibo egoerara igarotzea erabakitzen denean soilik jasotzea ahalbidetzen dute. Bazkidea hiltzen denean aukera hori ez da exijitzen, noski.

Horrez gain, BASEetan enplegu sistemako gizarte-aurreikuspen osagarrian oso gutxitan ikusten den beste egoera bat bazkide osoak edo arruntak bertan gutxieneko 10 urteko epea betetzen duenean bere borondatez baja hartzeko eskubidea erabiltzen duenean gertatzen da (betiere, Erakundearen Estatutuetan jasota badago).

Zergen alorreko araudiaren arabera, eskubide ekonomikoak¹⁷ zati batean edo osorik jasotzen diren unera arte bazkide osoaren alde ez da zergapean jarri beharreko inolako errentarik gauzatzen.

PFEZaren araudiaren arabera, bazkideak eta onuradunek jasotako zenbatekoak, norbere borondatezko edo derrigorrezko bajaren ondorioz, Erakundeak desegin eta likidatzean edo bazkideak gaixotasun larri bat daukanean edo luzerako langabezia egoeran jasotzen diren zenbatekoak barne, laneko errendimendutzat jotzen dira.

Oro har, laneko errendimendu osoa PFEZaren araudian horrela definitutako errendimendu guztiek osatzen dute.

Hala ere, gertakizun beraren ondoriozko lehenengo prestazioa denean, lehenengo ekarpena egin zenetik bi urte baino gehiago igaro badira (baldintza hori ez da exijitzen ezin-

¹⁷ Eskubide ekonomiko horiek Ondarearen gaineko Zergatik salbuetsita daude, eta ondorioz, zerga horren zerga-oinarria zehazteko orduan ez dira zenbatuko. Hala ere, horien balorea kontuan hartu beharko da zerga horretan aitortzeko beharra zehazteko.

tasun edo menpekotasunengatiko prestazioen kasuetan) ordaindu beharko den zenbatekoa jasotakoaren % 60 izango da. Ondorio horietarako, lehenengo prestaziotzat jotzen dira ekitaldi bakar batean gertakizun bakoitza gauzatu izanaren ondorioz kapital gisa jasotako zenbatekoak, zenbatekoak zein aurreikuspen-instrumentutatik jasotzen diren kontuan izan gabe. Ondorioz, % 60ko integrazio ehunekoa aplikatzeko ez da gauzatutako gertakizun baten ondorioz hasieran kobratutako zenbatekoa soilik zenbatuko, izan ere, urte horretan gertakizun horren ondorioz kobratu diren zenbateko guztiak ere zenbatu beharko baitira.

Gertakizun beraren ondorioz geroago jasotako prestazioetan¹⁸ ordaindu beharreko % 60ko zenbatekoa gertakizun beraren ondorioz aurreko prestazioa kobratu zenetik bost urte igaro direnean eta ordaindutako ekarpenak aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoarekin egin direnean aplikatuko da¹⁹.

Kobratzeko modua mistoa denean, % 60ko ordainketa kopuru hori kapital gisa jasotako zatiari soilik aplikatuko zaio.

Bestalde, kontuan hartzekoa da BASEek, Estatutuetan horrela jasotzen denean, 10 urteko aldia (erreskatea) osatu ondoren edo derrigorrezko bajako egoeretan, beren eskubide ekonomikoak itzultzea ahalbidetzen dutela, eta egoera horietan legelariak % 60ko ordainketa aplikatzea ere ahalbidetzen du.

Ondorioz, sistema honen arabera, % 60ko ordainketa-ehunekoa bazkideak 10 urteko aldia igaro ondoren bere borondatez hartutako bajaren ondorioz kapital gisa kobratzen duen erreskate bati eta geroago erretiroaren ondorioz kapital gisa jasotzen duen prestazio bati aplikatu ahalko zaie.

Minusbaliatuen araubide bereziari dagokionez, arauen arabera, errenta gisa jasotzen diren zenbatekoak salbuetsita daude eta muga lanbide arteko gutxieneko soldataren hirukoitza da.

Azkenik, aipatzekoa da araudiaren arabera, norbere borondatezko edo derrigorrezko bajaren edo BASE bat desegin eta likidatzearen ondorioz jasotako zenbatekoak PFEZaren

¹⁸ Geroago jasotako prestazioak subjektu pasiboak ekitaldi bakar batean gertakizun beraren ondorioz jasotzen dituenak dira.

¹⁹ Ordaindutako ekarpenak aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoarekin egin direla ulertzeko, beharrezkoa da batez besteko iraunkortasun aldia prestazioa jasotako eguna eta lehenengo ekarpena egin zen egunaren artean igarotako urte kopuruaren erdia baino luzeagoa izatea.

zerga-oinarrian ez sartzea ahalbidetzen dela, baina horretarako, beharrezkoa da bi hilabete-ko epean beste BASE batean jasotako zenbatekoko ekarpena egitea.

3. egoera praktikoa

Zergapekoak 10 urteko epea igaro dela eta, «n» ekitaldian bere borondatez bajaran eman izanaren ondorioz 10.000 euro jaso ditu bazkide den BASEtik. Ekitaldi horretan bere zerga-oinarrian jasotako errentaren % 60 sartzen du. Gero, «n + 3» ekitaldian, 65 urte betetzean, erretiratu dela eta, beste BASE batek 6.000 euro ordaintzen dizkio kapital gisa.

«n + 3» urtean jasotako zenbatekoei dagozkien ondorio fiskalak ondorengo hauek izango lirateke:

Zergapekoak 10 urte igaro zirela eta BASEan bere borondatez bajaran emateko eskubi-dea erabili izanaren ondorioz jaso zituen zenbatekoetan % 60ko ordainketa-ehunekoa aplikatu zuen. Gero, «n+3» urtean erretiratu zela eta, beste BASE batek beste kopuru bat ordaindu zion. 10 urte igaro izanaren («n» ekitaldia) eta erretiroaren («n + 3» ekitaldia) ondorioz kobratutako prestazioak direnez, ez da beharrezkoa ordainketa bien artean 5 urte igarotzea % 60ko ordainketa aplikatu ahal izateko, izan ere, kopuru horiek jaso izana justifikatzen duten egoerak desberdinak dira.

2.4. Gobernu batzordeetako kideen betebeharrak eta erantzukizunak. Zigor araubidea

Goian azaldutakoari kalterik egin gabe, eta araudiak xedatutakoaren arabera, BASEen Gobernu Batzordeek (aurrerantzean Gobernu Batzordeak) eta ondorioz, haien kideek daukaten betebeharrak eta erantzukizun nagusiak laburbiltzen dira, ondoren.

Oro har, BASEen Arautegiaren eta Legearen ondoriozko eta Erakundearen Estatutuetan bertan zehazten diren betebeharrak eta erantzukizunak gain, Eusko Jaurlaritzak duela gutxi onartutako 92/2007 Dekretua («Jardueren Dekretua» gisa ezagutzen dena) izan da BASEek eta horiek barne hartzen dituzten aurreikuspen-planek bazkide arrunten eta prestazioen onuradunek daukaten eskubideen mesederako jarduera esparru eraginkor, kaudimendun eta zorrotzago bat lortzeko helburu nagusia ezarri duena.

92/2007 Dekretuak Gobernu Batzordeentzako ezartzen dituen zereginak eta betebeharrak gain, azpimarratzekoa da arautegi horretan bertan, eta zehazki 2. artikuluan, Gobernu

Batzordeetako kideei (eta kasuan kasu, Zuzendaritzakoei) exijitu beharreko prestakuntza eta kualifikazioaren inguruan jasotakoa. Hori dela eta, ondoren gai horren inguruan xedatutakoa azalduko dugu.

2.4.1. Gobernu organoen prestakuntza eta kualifikazioa

Gobernu Batzordeko eta, dagoenean, Zuzendaritzako kide guztiek gizarte-aurreikuspenaren alorreko gutxienezko ezagutza maila bat daukatela frogatu beharko dute, eta horretarako, beharrezkoa izango da gutxienez ondorengo baldintzetariko bat betetzea:

- Gizarte-aurreikuspenaren alorrean gutxienez hiru urteko *esperientzia*, ziurtagiri egoekiekin frogatua.
- *Titulu edo ziurtagiriak*. Ondorio hauetarako, nahikotzat joko da lizentziatura, diplomatura edo antzekoren bat izatea.
- *Gizarte-aurreikuspenaren alorreko prestakuntza*. Gizarte-aurreikuspenaren alorreko prestakuntza frogatzeari dagokionez, BASE baten zuzendaritzan diharduten pertsonak gizarte-aurreikuspenaren alorrari buruzko prestakuntza ikastaroak egitearen ondorioz ematen diren ziurtagiriak jaso beharko dituzte; ikastaro horiek gaitutako eta Eusko Jaurlaritzaren baimenak dauzkaten entitateek eskainiko dituzte.

Puntu honetan aipatzekoa da Eskuliburu hau BASEen zuzendaritzan diharduten pertsonen gizarte-aurreikuspenaren alorrean exijitzen zaien prestakuntza frogatzeko egin dela, hain zuzen. BASEei aplikatzen zaien araudiak duela gutxi betekizun hau erantsi du, eta ondorioz, eskuliburu hau alor horretako lehenengo urrats bat da.

Hala ere, derrigorrezko kualifikazio horrek ez ditu BASEetako Gobernu Organoetako kideen bozketa aktibo eta pasiboko eskubidea baldintzatuko. Horretarako, Organo horietara sartzen diren kargu berriek urtebeteko epea izango dute prestakuntza hori lortzeko.

2.4.2. Urteko kontuak eta kudeaketa txostena

Gobernu Batzordeak urtero Batzar Orokorrari Urteko Kontu ikuskatuak aurkeztu beharko dizkio hark onartzeko, eta baita ekitaldiko kudeaketa txosten bat ere.

Kudeaketa Txosten horrek gutxienez honako hauek aipatu beharko ditu:

- Finantza-merkatuen ebaluazioa.
- Erakundeak eta plan bakoitzak ekitaldian jasotako errentagarritasun garbia eta lortutako emaitzak eta espero zen urteko errentagarritasunaren (inbertsio-printzipioen deklarazioan jasotakoa) arteko alderaketa bat, plan bakoitzeko.
- Plan bakoitzaren onuradun eta bazkide arrunt kopurua.
- Bildutako kuotak, pilatutako ondarea eta ordaindutako prestazioak, modalitate eta plan bakoitzeko datu xeheekin.
- Estatutueta edo Arautegietan egin diren aldaketak.
- Plan bakoitzeko altak, bajak, mobilizazioak eta lekualdaketak.
- Inbertsioak, plan bakoitzeko datu xeheekin eta merkatu arautu batean negoziatu gabeko baloreetan egindakoak (aurreikuspen planen sustatzaileek edo babesleek jaulkitakoak) zehaztuz eta beren egokitasuna zehaztea.
- Erakundearen egoerari buruzko beste edozein informazio garrantzitsu.

Nolanahi ere, Urteko Kontuetan nahiz Kudeaketa txostenean aktiboen, pasiboen eta Erakundearen finantzen benetako egoera islatu beharko da.

2.4.3. Inbertsio printzipioen deklarazioa

Gobernu Batzordeak Erakundearen inbertsio politika idatzitako inbertsio-printzipioen deklarazio baten bidez onartuko du, eta Gobernu Batzordeak deklarazio hori hiru urtean behin berrikusiko. Deklarazio hori merkatuen bilakaeraren edo bestelako aldagaien arabera aldatu ahal izango da. Hala ere, kasu guztietan estatutuko arauak aplikatu beharko dira, baita erabaki horrek dakartzan erantzukizunak onartu ere.

Printzipioen Deklarazio horrek zenbait baldintza bete beharko ditu, eta horrez gain, hiru-garren atalaren 3.2.1 puntuan azaltzen diren arauak errespetatu beharko ditu.

Printzipioen Deklarazioa aldatzeko beharrezkoa izango da Gobernu Batzordeak ekintza horren aldeko erabakia hartzea eta egiten den lehenengo Batzar Orokorrean horren berri eman beharko da.

Finantza-instrumentuetan egindako inbertsioak arautzen dituen araubidea ezarri beharko da, Erakundearekin lotutako transakzio bakoitza bere jatorria, parte-hartzen duten aldeak, bere izatea eta gauzatu den eguna eta tokiaren arabera birsortu ahal izateko, eta sozietatearen aktiboak bere estatutuen eta indarrean daude legezko xedapenen arabera inbertitzeko²⁰.

2.4.4. Beste norbaitek zaindu, kudeatu eta gordetzeko baimena

Gobernu Batzordeak, erabaki egokiaren bitartez, aurreikuspen-planen ondareari dagozkion aktibo finantzarioak kudeatu, gorde eta zaintzeko kontratazioaren inguruko baimena ebatzi behar du kreditu erakundeekin, inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileekin, inbertsio enprekin edo bizitzaren alorrean diharduten aseguru erakundeekin.

2.4.5. Zehapen araubidea

Diziplina-araubide propioa ezarriz, BASEen arauketa bukatzen da. Araubide horren funtsezko ezaugarriak ondorengoak dira:

2.4.5.1. Xedea

BASEei buruzko arauen eta Erakundearen estatutuko arauak urratzeak administrazioko zigorraren xede izango dira bazkideentzako kaltegarriak direnean, zuzenbide erkideko xedapenen arabera exijitu daitezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

2.4.5.2. Arau-hauste motak

Arau-hausteak *arinak*, *larriak* edo *oso larriak* izango dira, ondoren azalduko diren baldintzen arabera. Baina larritasun mailaren araberako sailkapen horri dagokionez, kontuan hartzekoa da arau bat 4 urteko epean behin eta berriz hausten denean, dagokiona baino maila bat larriagozat joko dela.

²⁰ Zentzu horretan, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak paragrafo honetan aipatzen ditugun kudeaketa eta arriskuak kontrolatzeko sistemek bete beharko dituzten gutxieneko baldintzak ezartzeko gaitasuna izango du; baita sistema horiek badaudela eta haiek nola funtzionatzen duten jakinarazteko modua erabakitze gaitasuna ere.

— *Arau-hauste arinak*. Ondorengoak izango dira:

- Bazkideei zehatza edo egokia ez den informazioa ematea, betebeharrak exijitzen duen arretarik gabe egiten denean.
- Araudi honetan agiriak aurkezteko ezartzen diren epeak betetzean hilabete baino gehiago atzeratzea.
- Estatutu edo xedapen osagarrietako beste arau-hauste batzuk, espresuki larri edo oso larri gisa kalifikatzen ez direnak.

— *Arau-hauste larriak*. Ondorengoak izango dira:

- BASEen nortasun juridikoa beren erakunde sustatzaile edo babesleekin bereizteko betebeharra ez betetzea.
- Erakundeak Estatutuko arauak ez betetzea eta bazkideei kalteak eragitea.
- Erregistro berezian inskribatuta ez dauden erakundeak BASE gisa funtzionatzea.
- Bazkide bat bajaran ematean aurrez ikusitako aukeretarikoren bat araudiak ezartzen duen bezala ez gauzatzea.
- Urteko ohiko Batzarra ez egitea, eta ondorioz, kontu-arrazoiak ez ematea.
- Gobernu Organoek behar bezala hartutako erabakiak ez betetzea.
- Erakundeak ezartzen dituen kuotak edo ekarpenak ez gauzatzea.
- Legezko eta estatutuko arauen ondoriozko gainontzeko betebeharrak ez betetzea.

— *Arau-hauste oso larriak*. Ondorengoak izango dira:

- Bazkideei zehatza edo egokia ez den informazioa ematea, betebeharrak exijitzen duen arretarik gabe eta maltzurkeriaz egiten denean eta delitu bat suposatzen denean.
- Gobernu Organoen egitura eta osaketa demokratikoaren inguruko arau-haustekak.
- Erakunde hauek berezko duten kaudimen printzipioa hutsaltzea eragiten duten ekintzak.

2.4.5.3. Zehapenak

Aurreko atalean deskribatutako arau-hausteen ondorioz jarriko diren administrazioko zigorrak honako hauek dira:

— *Arau-hauste arinen* kasuan: ohartarazpena eta 300,5 eurorainoko isuna.

— *Arau-hauste larrien* kasuan: 300,51 eurotik 3.005,06 eurorainoko isunak eta erantzuleak beren kargutik kentzea.

- *Oso arau-hauste larrien* kasuan: 12.020,24 eurorainoko isunak edo arau-haustea zenbagarria izanez gero, haren % 50erainoko isunak, erantzuleak beren kargutik kentzea eta Erakundea desegitea. Erantzuleak beren kargutik kenduko dira indarrean dagoen arautegia behin eta berriz urratzen bada.

2.4.5.4. *Organo eskudunak*

Administrazioko zigorrak jartzeko eskumena izango duten organoak ondorengoak dira:

- *Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuordea*: ohartarazpenetarako, 300,5 eurorainoko diruzko isunetarako eta erantzuleak kargutik kentzeko.
- *Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua*: 3.005,06 eurorainoko diruzko isunetarako eta erantzuleak kargutik kentzeko.
- Eusko Jaurlaritza: diruzko isun altuagoentzako eta Erakundea desegiteko.

2.4.5.5. *Zehatzeko prozedura*

Zigortzeko prozedura Euskadin Administrazio Prozeduraren alorrean unean-unean indarrean dagoen arautegian xedatutakoa izango da.

Hala ere, ohartarazpena eta 305,06 eurorainoko isuna interesdunari entzun ondoren ezarri ahalko dira, eta horretarako, ez da beharrezkoa izango zigor espedientea izapidetzea.

3

Erakundearen ondarea inbertitzearen inguruko oinarriak

3.1. Kapitalizatutako pentsio sistemen ezaugarri nagusiak

Dokumentu honetan zehar aipatu den bezala, BASEek, eskuartean izan ohi dituzten gora-beherak kudeatzeko eta estaltzeko helburuarekin, matematika finantzarioak direlakoetan sartzen diren hainbat kontzeptu erabiltzen dituzte. Ondoren, kontzeptu nagusietako batzuen azalpena emango da:

3.1.1. Ekarpenen kapitalizazioa

Kapitalizazio-sisteman, pertsona bakoitza errentagarritasuna eragiten duten ekarpenak egiten doa. Horrela sortutako zenbatekoa, egotzi dakizkiokeen gastuak kendu ondoren, ekarpenak egin dituen pertsonak etorkizunean jasoko dituen zenbatekoetarako izango da. Bakoitzak bere etorkizunerako egiten ditu ekarpenak, ez da belaunaldien arteko lotura bat sortzen.

Horrez gain, kontuan hartzekoa da aurreikuspen-tresna horiek, hartutako konpromisoaren arabera²¹, arrisku biometrikoak (subjektuen adina edo baldintzen arabekoak direnak; heriotza, biziraupena...) onartzen egon daitezkeela eta, ondorioz, egindako kalkulu aktuarialean desbideratzeak egon daitezkeela, eta oinarri estatistiko baten gaineko estimazioak direla. Ondorioz, instrumentuek une bakoitzean dagoen zenbateko kapitalizatuan marjina bat suposatu behar dute eta marjina horrek egon daitekeen edozein desbideratzeri aurre egin ahal izateko modukoa izan behar du.

Instrumentu horiek beren gain hartzen duten arriskua murriztu daiteke egon litezkeen desbideratzeek likidezia edo kaudimen arazoak sortzea ekiditeko. Hortaz, BASEek arris-

²¹ Adibidez, prestazio zehatzen kasuetan, 1.4.2. atala ikusi.

kuak berraseguruen bidez beste norbaiten gain laga ditzakete Federazioaren bitartez, eta horrek daukan egitekoetariko bat bere Erakunde federaletarako plan hori ezartzea da.

3.1.2. Interes-tasa eta inflazioa

Kapitalizazioko aurreikuspen-sistemetan ekarpenen zenbatekoei dagozkien inbertsioen errentagarritasun garbia bakoitzak denboran zehar sortzen duen interesak baldintzatuko du.

Pilaketa aldian inolako zenbatekorik ateratzen ez denez, instrumentu horien kapitalizazio-sistema interes konposatukotzat jotzen dena da, hau da, inbertsioen errentagarritasuna ez da ateratzen eta hasierako kapitalari eransten zaio horrek ere errentagarritasuna sortzeko.

Horrez gain, kontuan hartu beharreko beste faktore bat inflazioa da, hau da, diruak denboran zehar galtzen duen balorea, eta hori inbertsioen errentagarritasun negatibo gisa uler dezakegu, izan ere, inbertsioak denbora igarotzen delako soilik balorea galtzea eragiten du. Egingo diren inbertsioak zehazteko orduan, arrisku hori beste aldagarri bat bezala hartu behar da kontuan.

Hau da, sortutako interesa edo errentagarritasuna eta pilatutako inflazioa konbinatuz, inbertsioaren benetako errentagarritasunaren kontzeptura iristen da.

3.1.3. Kapital finantzarioa

Kapital finantzarioa ondasun ekonomiko baten balioa edo neurria da, ondasun hori erabilgarri dagoen unean kontuan hartuta. Definizio honek erakusten digu kapital finantzario batek bi magnitude dituela: ondasun ekonomikoaren zenbatekoa edo balio monetarioa, eta erabilgarri dagoen unea. Horrela, ondorengo nomenklatura hauek erabiliko dira kapitulu honetan zehar:

C = Ondasun ekonomikoaren zenbatekoa edo balio monetarioa
 t = Eskuragarritasunaren edo mugaegunaren unea

Horrela, kapital finantzarioa C_t gisa definitzen da.

Horregatik guztiagatik kapital finantzario bat ez da zenbatekoaren edo balio moneta-rioren mendekoa bakarrik; erabilgarri dagoen unearen mendekoa ere bada. Hau da, praktika finantzarioan gauza jakina da, oro har eta zenbateko bereko kapitalen kasuan, nahiago izango dela uneko garaitik hurbilenerako erabilgarritasuna duen kapital finantzarioa. Alegia, hobeia izango da gaurko 10.000 euroko kapitala urtebete barruko 10.000 euroko kapitala baino. Horixe da, hain zuzen ere, likideziaren lehentasunaren oinarritzko printzipioa, eta horretan oinarritzen dira gizarte-aurreikuspenenerako erakundeen (BASEak, besteak beste) matematika finantzarioak eta helburu soziala.

Ondorioz, beharrezkoa izango da dagozkion baliokidetasun-arauak ezartzea, kapital finantzarioen arteko harremanak zeintzuk diren jakiteko. Hau da, gaurko 10.000 euroen edo urtebete barruko 12.000 euroen artean hautatzeko erreferentziazko arauak zeintzuk diren jakiteko. Interes finantzarioa erabiltzen da aipatutako baliokidetasun arauak ezartzeko.

3.1.4. Interes finantzarioa

Aurrekoarekin bat, dirua denboraldi jakin batean erabiltzeak duen balio gisa defini daiteke interes finantzarioa. Bestela esanda, kapital edo diru kopuru orok kapital «berria» sortzen du etengabe denboran zehar; kapital berri horri interesa deitzen zaio, eta inbertitutako edo mailegatutako kapitala gozatzearen truke emandako konpentsazioa da.

Horrela, kapital bat denboraldi batean zehar inbertitzean beste kapital gehigarri bat lortzen da, hasierako kapitalaren gehi interesen batura izango dena. Matematikoki:

$$C_t = C_0 + I$$

non:

C_t : t uneko kapital finantzarioa.

C_0 : 0 uneko kapital finantzarioa edo hasierako kapitala.

I : Interesa.

Praktikan, unitate monetarioak eta denbora-unitateak emandako interesa irudikatzen duen parametro finantzario bat erabiltzen da. Parametro hau i letrarekin adierazten da, eta interes-tasa deitzen da.

Horrela, interesa modu honetan adierazi ahal izango da:

$$I = C_0 \times i$$

non:

i : Interes-tasa.

Ondorioz, t uneko kapital finantzarioa honela adierazi ahal izango da:

$$C_t = C_0 + C_0 \times i = C_0 \times (1 + i)$$

3.1.5. Eragiketa finantzarioa

Lehen definitutako kontzeptuak (kapitala, denbora eta interesa) une jakin bateko kapital erabilgarriaren elkartruke gisa definitzen den eragiketa finantzarioaren kontzeptuaren barruan sartzen dira; elkartruke hori beste une bateko beste kapital erabilgarri batekin egiten da, ezarritako baliokidetasun-irizpidearen arabera.

Kapital finantzario diferenteak elkarren artean alderatzeko aukera emango duten baliokidetasun-irizpideak ondokoak dira:

- *Eguneratze finantzarioa*: metodo honen bidez, etorkizuneko balio bat bere gaur egungo baliokide bihurtzen da. Metodo hau mugaeguna baino lehen diruzko zenbaterako bat ordaintzen den eragiketa finantzarioetan erabiltzen da normalean (esate baterako, efektuen nahiz kanbio-letren deskontua).
- *Kapitalizazio finantzarioa*: metodo honen bidez, gaur egungo balio bat bere etorkizuneko baliokide bihurtzen da. Metodo hau etorkizuneko errendimenduak lortzeko helburuarekin hasierako kapital bat inbertitzen den eragiketetan erabiltzen da normalean.

Bi irizpideak baliokideak dira matematikoki, eta aurreko epigrafean aurkeztutako formulak oinarritzen dira. Horrela, aurreko adibidea berriro erabiliz eta merkatuko interes-tasa urteko % 5koa dela suposatuz, aurreko irizpideak erabiliko ditugu aurkeztutako bi kapital finantzarioen artean (10.000 euro gaur eta 12.000 euro urtebete barru) hautatzeko.

Kapitalizazio finantzarioaren irizpidea erabiliz, kalkulatu dugu gaur egungo 10.000 euroko kapital finantzarioa urtebeterako inbertituz gero zenbatekoa izango den:

$$C_t = C_0 \times (1 + i)$$
$$C_t = 10.000 \times (1 + \% 5) = 10.500$$

Beraz, urtebeterako 12.000 euroko kapitala baino txikiagoa ateratzen da. Eta, ondorioz, bigarren kapital finantzarioa hautatuko genuke.

Eguneratze finantzarioaren irizpidea erabiliz, berriz, kalkulatu dugu urtebete barruko 12.000 euroko kapital finantzarioa zenbatekoa izango litzatekeen, gaur edukiko bagenu:

$$12.000 = C_0 \times (1 + \% 5)$$
$$C_0 = 12.000 / (1 + \% 5) = 11.429$$

Eta hori, noski, gaur egungo 10.000 euroko kapitala baino handiagoa da.

3.1.6. Kapitalizazio sistemak

Praktikan, bi kapitalizazio-sistema erabiltzen dituzte BASEek: konposatua eta sinplea. Bien arteko alde nagusia interesak metatzea edo ez metatzea da. Sinplean denboraldi bakoitzean sortutako interesak ez zaizkio metatzen kapitalari interes gehiago sortzen jarraitzeko, denboraldi bakoitzaren amaieran kontuan abonatzen baitira; konposatuan, berriz, denboraldi bakoitzaren amaieran sortutako interesak kapitalari metatzen zaizkio eta, beraz, kapitalak, interesekin batera, interes gehiago sortzen ditu.

Ondoren, sakonago azalduko dira bi metodoak.

3.1.6.1. Kapitalizazio sinplea

Kapitulu honetan zehar ikusitakoaren arabera, hasierako C_0 kapitala izanez gero, kapital horrek interes batzuk sortuko ditu denboraldiaren amaieran. Hasierako kapitalari interesak metatzen ez zaizkionean eta hurrengo denboraldietan interes-sortzaile gisa hasierako kapitala bakarrik hartzen denean, kapitalizazio sinplea izeneko sistema erabiltzen da.

Matematikoki,

$$C_t = C_0 \times (1 + n \times i)$$

non,

C_t : t uneko kapital finantzarioa.

C_0 : 0 uneko kapital finantzarioa edo hasierako kapitala.

n : 0 unetik t unera arte pasatutako denbora.

i : Interes-tasa.

3.1.6.2. Kapitalizazio konposatua

Interes gehiago sortzeko helburuarekin hasierako kapitalari interesak metatzen zaizkion kapitalizazio sistema bezala definitzen da.

Matematikoki,

$$C_t = C_0 \times (1 + i)^n$$

non,

C_t : t uneko kapital finantzarioa.

C_0 : 0 uneko kapital finantzarioa edo hasierako kapitala.


n : 0 unetik t unera arte pasatutako denbora.

i : Interes-tasa.

Bi kapitalizazio-sistemen arteko aldeak hobeto azaltzeko, aurreko adibidea erabiliko dugu berriro ere: bertan, gaur egungo 10.000 euroko kapitala daukagu, eta % 5eko interes-tasa. Lehenago aipatutako formulak aplikatuz, hauek izango lirateke une bakoitzean kapitalizazio-sistema bakoitzari dagozkion kapitalak:

Denbora	Kapitalizazio sinplea	Kapitalizazio konposatua
Gaur	10.000,00	10.000,00
1 h	10.041,67	10.040,74
2 h	10.083,33	10.081,65
3 h	10.125,00	10.122,72
4 h	10.166,67	10.163,96
5 h	10.208,33	10.205,37
6 h	10.250,00	10.246,95
7 h	10.291,67	10.288,70
8 h	10.333,33	10.330,62
9 h	10.375,00	10.372,70
10 h	10.416,67	10.414,96
11 h	10.458,33	10.457,40
1 urte	10.500,00	10.500,00
2 urte	11.000,00	11.025,00
3 urte	11.500,00	11.576,25
4 urte	12.000,00	12.155,06
5 urte	12.500,00	12.762,82
6 urte	13.000,00	13.400,96
7 urte	13.500,00	14.071,00
8 urte	14.000,00	14.774,55
9 urte	14.500,00	15.513,28
10 urte	15.000,00	16.288,95

3.1. irudia



Aurreko taulan eta grafikoan ikus daitekeen bezala, kapitalizazio sinplearekin kapital handiagoak lortzen dira kapitalizazio konposatuarekin baino urtebetetik beherako epeetan, baina alderantzizkoa gertatzen da, ordea, urtebetetik gorako epeetan. Bestalde, 12 hilabeteko epean lortutako kapitala bera da bi sistemak erabiliz. Horrek, lehen azaldutako formulazio desberdinen ondorioz, normalean epe laburrean (12 hilabete baino gutxiagokoak) kapitalizazio (edo eguneratze) sinplea eta epe luzeagoetan kapitalizazio sinplea erabiltzea eragiten du.

Horrela, BASEek kapitalizazio sinplearen sistema erabiltzen dute normalean urtebetetik beherako epeetan, eta kapitalizazio konposatuarena, aldiz, epe luzeagoetan inbertitzeko, eta baita bazkideen ekarpenak kalkulatzeko ere.

3.1.7. Errenta kontzeptua

Errenta epeka jasotzen den kapital multzo bat da; kapital baten epemugatik hurrengora beti denbora bera dago. Epeak urtebetekoak direnean, urteko saria esaten zaio. Errenten adibide batzuk ondorengoak dira: balore-tituluen inbertsio finkoak sortutako kupoiak (interesak), BASE bateko bazkide batek jasotzen dituen erretiroko prestazioak, bazkideak BASEri egindako aldizkako ekarpenak, mailegu baten amortizazioak, etab.

Ondorioz, BASE batek egindako eragiketa gehienek errentaren forma matematikoa izango dute, bai inbertsioen kupoiak kobrantzarentatik aktiboa dela eta, bere bazkideei prestazioak ordaintzeagatik, edo baita estalitako kontingentziei aurre egin ahal izateko kapitalak eratzeagatik ere.

Errenta baten kontzeptu nagusiak honako hauek dira:

- Terminoa: errenta bat osatzen duten kapitaletako bakoitza.
- Denboraldia: ondoz ondoko bi terminoen artean dagoen denbora-bitartea.
- Jatorria: eragiketa hasten den unea.
- Amaiera: eragiketa amaitzen den unea.
- Iraupena: eragiketa hasi eta amaitu bitarteko denbora.

Hortaz, 2008ko urtarrilaren 1ean egindako hasierako ekarpen baten ondoriozko errenta batean, 2008tik 2013ra arteko (biak bame) urteetako abenduaren 31n 1.000 € jasotzean datzanean:

- Terminoa: 1.000€.
- Denboraldia: urtekoa.
- Jatorria: 2008ko urtarrilaren 1a
- Amaiera: 2013ko abenduaren 31
- Iraupena: 6 urtekoa.

3.1.7.1. *Errenta baten kapital-balioa edo balio finantzarioa*

Praktikan, beharrezkoa izaten da erabakitzea errenta batek une jakin batean duen balioa. Errenta baten balio finantzarioa bat dator une horretan aipatutako errenta horren

baliokidea den kapital finantzarioarekin. Alegia, datozen 10 urteetan, urte bakoitzaren amaieran 10.000 euro kobratzean datzan errenta batek une honetan duen balio finantzarioa bat etorriko da gaur egun aipatutako errenta jasotzearen baliokidea izan dadin jaso beharko genukeen zenbatekoarekin. Horretarako, beharrezkoa izango da behar den unean errentaren termino bakoitza baloratzea eta ondoren guztiak batzea. Balorazioa erabilitako kapitalizazio-erregimenaren arabera izango da. Aurreko adibidean, merkatuko tasa % 5 izanik, kapital finantzarioa 77.217 eurokoa izango litzateke, edo bestela esanda, gaur egun, eta merkatuan dauden baldintzekin, finantziarioki aurreko errenta bat edo 77.217 euro dirutan jasotzearen baliokidea izango litzateke.

Balioa errentaren hasierako unean kalkulaturik gero, errentaren balio eguneratua deitzen da; amaierako balioa, berriz, errenta amaitzen den unean kalkulaturikoa izango da.

3.1.7.2. *Errenten sailkapena*

BASEen eremuan ohikoenak diren errenta-motak, bai bazkideen prestazioak ordaintzeari dagokionez edo bazkideengandik jasotako ekarpenei dagokienez, eta baita aipatutako ekarpenak gauzatzen diren inbertsioen sarrerei dagokienez ere, ondorengoak dira:

— *Terminoan zenbatekoari dagokionez:*

- *Errenta konstanteak:* errenta hauetan terminoen zenbatekoak finkoak eta berdinak dira guztientzat. Adibidez, hilero 1.000 euro jasotzen dugun errenta bat.
- *Errenta aldakorrak:* errenta hauetan, berriz, terminoen zenbatekoak desberdinak izaten dira. Normalean, zenbateko horiek aldaketa lege jakin bat jarraitzen dute; progresio aritmetikoan nahiz geometrikoan izan daiteke, baina hala ere, patroiz zehatzik gabeko errenta aldakorrak egon daitezke. Adibidez, jasotako zenbatekoa gizarte segurantzatik erretiroagatik jasotako prestazioen osagarri bat denean, prestazio horiek urteko % 2ko errotzioan hazten doazenean, edo lokal bat alokatzeagatik jasotzen den errenta, alokairuaren prezioa urtez urte Estatistika Institutu Nazionalak argitaratutako Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera areagotzen denean.

— *Errentaren iraupenari dagokionez:*

- *Aldi baterako errenta:* iraupenak denboran amaiera eta muga duenean.
- *Bizi osoko errenta:* errenta bazkidearen bizi osoan zehar ordaintzekoa denean.

— *Errentaren balorazio uneari dagokionez:*

- *Berehalako errentak:* errentaren egungo balorazioa errentaren iraupeneko lehenengo aldian egiten denean. Hau da, bazkideak gertakizuna izan eta berehala prestazioa jasotzen duenean.
- *Errenta geroratuak:* errentaren egungo balorazioa errentaren lehenengo terminoaren epemuga baino aldi kopuru jakin bat lehenago egiten denean. Hau da, bazkideak gertakizuna izan eta nahiko denbora beranduago prestazioa jasotzen duenean.

3.2. Inbertsio-politikaren printzipio orokorrak

Horren inguruan, BASEek erabaki beharko dute, beren kudeaketa esparruaren barruan, zein finantzaketa tresna erabili, eta, zehazkiago, zein aktibo finantzariotan inbertitu, bazkideengandik lortutako ekarpenak gauzatzeko, haiekin hitzartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko helburuarekin. Horretarako, beharrezkoa izango da inbertsio politika bat finkatzea, printzipio jakin batzuetan oinarrituta, eta erakundearen baldintza finantzarioen arabera, eta baita arriskuarekiko beldurraren mailaren arabera ere, bere aktibo finantzarioen zorroaren helburuko osaera ezartzeko (aktibo mota bakoitzari bideratu beharreko gehienezko nahiz gutxienezko ehunekoak finkatuz).

3.2.1. Inbertsio printzipioen deklarazioa

92/2007 Dekretuak ezartzen du Gobernu Batzordeak onartuko duela Erakundearen inbertsio politika, hiru urtean behin berrikusiko den idatzitako inbertsio-printzipioen aitorten baten bidez. Aitorpen hori aldatu ahal izango da, merkatuen bilakaeraren edo bestelako aldagaien arabera. Hala ere, kasu guztietan estatutuko arauak aplikatu eta erabaki horrek dakartzan erantzukizunak onartu beharko dira.

Aitorpen horrek, gutxienez, hau jasoko du:

— *Inbertsioek berekin dauzkaten arriskuak neurtzeko erakundeak aplikatuko dituen metodoak.* Hortaz, aurrez azaldutako arrisku desberdinak (merkatuko arriskuak, kredituaren eta kontrako alderdiaren arriskua, interes-tasaren arriskua, eragiketa arriskua, etab.) neurtzeko metodologiak (neurtzeko metodo kualitatibo edo kuantitatibo bidez, kasu bakoitzean egokiena dena kontuan hartuz), neurtzeko erabilitako datuak,

zein sailek eramango duen aurrera eta Erakundearen Zuzendaritzaren informazio prozedura zein izango den definitu beharko da.


- *Aipatutako arriskuen kontrol prozedurak.* Horrela, arriskuak gutxitzeko erakundeak garatu beharko dituen kontrol-sistemak definitu beharko dira. Kontrol-prozedura hauen definizioan kontrolatzeko jarduerak ere egon beharko dute identifikatutako arrisku mota bakoitzerako, jarduera horien arduraduna, kontrolak benetan eta modu eraginkorrean betetzen eta funtzionatzen dutela ziurtatuko duen arduraduna, onartutako mugek eta zuzendaritzari aipatutako mugek dakarkioten onura-sistemaren arduraduna, eta baita sor daitezkeen kontrol-akatsak zuzentzeko ekintza planak ere.
- *Inbertsioen estrategia, haien izaeraren, konpromisoen epe eta iraupenaren arabera, eta haien kongruentzia aztertuz.* Horrela, hauek finkatu beharko dira: erakundearen helburuetara egokitzen diren inbertsio finantzarioen motak, helburu horiek neurtzeko irizpideak, helburuak lortzeko jasan daitezkeen desbiderapenak, desbiderapenak detektatzeko eta berrikusteko sistema, eta aipatutako desbiderapenak zuzentzeko mekanismoak.
- *Erakundeak zein aktibotan inbertitu ahal izango duen identifikatzea beharrezkoa izango da, eta berariaz zehaztu beharko dira tresna finantzario eratorriekin egindako eragiketak baimentzeko mekanismoak.* Estaldura-tresna eratorrietan, zehazki definitu beharko da estalitako arriskua zein den eta hori estaltzeko proposatutako elementuak zeintzuk diren. Baita Erakundearen helburuetako eraginkortasuna neurtzeko irizpideak ere. Inbertsio-tresna eratorriei dagokienez, inbertsio horiekin lortu nahi diren arriskura doitutako errentagarritasun-helburuak definitu beharko dira, baita helburuen lorpena ziurtatzeko mekanismoak ere. Produktu horietarako guztietarako, arriskuaren profi-lean duen eragina eta konpromisoetatik eratorritako zenbatekoa adieraztea beharrezkoa izango da.
- Erakunderako espero den *urteko errentagarritasun-helburua adierazi* beharko da.
- Tresna finantzarioetako inbertsioa arautzen duen *erregimena zehaztu* beharko da, erakunde, partaide, izaera, gauzatze-denbora eta lekuarekin erlazionatutako *transakzio bakoitza jatorrian berreraikitzeko.*

Inbertsio-printzipioen aitopenean egindako aldaketak Gobernu Batzordeak onartu behar ditu, eta egiten den lehenengo Ohiko Batzar Nagusian jakinarazi beharko dira.

Azkenik, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak arriskuen kudeaketa kontrolatzeko sistemen gutxienerako baldintzak ezartzeko gaitasuna izango du; baita sistema horiek badaudela eta haiek nola funtzionatzen duten jakinarazteko modua erabakitzeko gaitasuna ere.

3.2.2. Inbertsio-printzipioak

Ondoren laburbiltzen dira erakundeen inbertsio-politika finkatu behar duten parametro edo alderdi nagusiak:



3.2.2.1. Dibertsifikazioa

Dibertsifikazioa, elkarren artean harremanik ez duten tituluak eta herrialdeak barne hartzen dituen balore-zorroatik osatzen datza; jokabide horren helburua da osagai horietako baten prezioak jaitsiz gero, zorroaren gainerako baloreek horren eraginik ez izatea.

«Asset allocation» izenez ere ezagutzen da. Dibertsifikazioa merkatu finantzarioetako eragiketaren oinarritzko printzipioa da: arriskuak kontrola daitezke, baldin eta inbertitu nahi den zenbateko globala errentagarritasun eta arrisku igurikimen desberdinak dituzten produktuen artean banatzen bada. Horren azpian dagoen ideia da kontrako arriskuko aktiboak integratuz maila desberdinetan konpentsa daitezkeela, eta, horrela, arrisku agregatua txikiagoa da.

3.2.2.2. Errentagarritasuna

Errentagarritasuna lortutako irabazien eta irabazi horiek lortzeko egindako inbertsioaren arteko harremana da. Termino finantzarioetan, hiru mota ezberdinak daude:

- *Errentagarritasun gordina*: lortutako interesen eta dibidenduen batura barne hartzen du, gehi merkatuko presioaren errebalorizazioa edo balio galera.
- *Errentagarritasun garbia*: errentagarritasun gordina gastuak eta komisioak kenduta.
- *Egiazko errentagarritasuna*: errantagarritasun garbiari inflazioa kentzen zaionenan.

3.2.2.3. Arriskua

Bestalde, arriskua, ikuspegi finantzariotik, aktibo jakin baten bilakaerari buruzko segurtasun falta da, hau da, inbertsio batek hasieran espero ziren errendimenduak ez sortzearen aukera. Zentzu horretan, hainbat faktore daude inbertsio batek espero zen errentagarritasuna baino txikiagoa emateko:

- *Merkatuko arriskua*: balore baten prezioa erabakitzen duten faktoreen aldakuntzek eraginda gerta daitekeen galera: kotizazioak, etab.
- *Kredituaren edo beste alderdiaren arriskua*: balore baten jaulkitzaileak mugaeguneko ordaintzeko bere betebeharrak ez betetzeko arriskua. Badira errenta finkoko jaulkipenak jaulkitzailearen kreditu-arriskuaren arabera kalifikatzen dituzten enpresa independenteak (rating erakundeak).
- *Interes-arriskua*: errenta finkoko balore baten prezioak, interes-tasen bilakaeraren ondorioz izan ditzakeen aldaketak. Interes-tasak igotzean, zorroko errenta finkoaren prezioa jaitsi egiten da (jaulkipen berriek merkatuetan negoziatzen diren zaharrek baino tasa erakargarriagoak eskainiko baitituzte, eta, ondorioz, haien prezioak jaitsi egin beharko baitu errentagarritasun baliokidea lortzeko), eta alderantziz. Zenbat eta luzeagoa izan aktiboen epemuga, orduan eta handiagoa izango da arriskua.
- *Dibisaren edo kanbio-tasaren arriskua*: inbertsioen balioak kanbio-tasen aldaketen eragina jasateko aukera. Adibidez, inbertsiogile batek dolarretan adierazitako baloreak erosiko balitu, dolarrak euroarekiko izandako balio-galerak modu negatiboan eragingo lioke prezioari.
- *Likidezia-arriskua*: balore baten prezioak izan dezakeen penalizazioa, inbertsioa desegin behar izanez gero kapitala bizkor berreskuratzeko. Oro har, esan dezakegu kotizatutako baloreak likidoagoak direla kotizatzen ez dutenak baino, aukera gehiago daudelako kontrapartidak arrazoizko prezioan aurkitzeko (batzuetan, kotizatu gabekoek jaulkitzailearen nahiz hirugarren baten likidezia-klausula edo berme bat daukate, prezioari buruzko gardentasunik ez egon arren). Zenbat eta likidezia gutxiago balore batek, orduan eta prezio txikiagoa onartu beharko du inbertsiogileak bere baloreak


saltzeko. Likidezia eskasia larria dagoenean, baliteke inbertsioa nahi den unean ezin berreskuratu ahal izatea.

- *Berrinbertsio-arriskua*: errenta finkoko balore baten edukitzaileak bere gain hartzen duen arriskua, interes-tasen bilakaerak bere inbertsiotik eratorritako fluxuak berrinbertitzean izan dezakeen eraginaren ondorioz. Inbertsioaren denbora horren epemugarekin bat ez datorrenean gertatzen da. Interes-tasen aldakuntzek errentagarritasun handiagoa edo txikiagoa sortuko dute kutxa-fluxuen berrinbertsioan, hasieran aurreikusitakoarekiko; bestalde, aktiboaren mugaegunean, kapitala berrinbertitu behar bada, interes-tasen mailak inbertsioak azken aldian izango duen errentagarritasun handiagoa nahiz txikiagoa erabakiko du. Arrisku hori zuzenean lotuta dago interes-arriskuarekin.
- *Eragiketa-arriskua*: baloreak erosteko nahiz saltzeko aginduak transmititzean eta exekutitzean bitarteko erakundeek akatsak egiteko arriskua. Arazo informatikoen, kontrol-sistemen akatsek edo gizakiaren hutsegiteek eragin ditzakete akats horiek. Halakoak kontrolatzeko zorrotz egiaztatu behar da aginduen edukia, eta ondo ziurtatu behar da exekuzioak bat datozela emandako aginduekin eta merkatuaren egoerarekin.
- *Herrialde-arriskua*: inbertsio baten kreditu-arriskua da: ez dago jaulkitzailearen kaudimenaren menpe, haren jatorrizko herrialdearen kaudimenaren menpe baizik. Esate baterako, herrialde-arriskua egongo da baldin eta estatu batek bere kapitalak kanpora transferitzeari uztea erabakitzen badu, ordainketak blokeatuz, edo erakunde bati abal publikoa kenduz gero; herrialde batzuek utzi diote, une batean edo bestean, zor publikoaren interesak eta/edo printzipala ordaintzeari.
- *Arrisku sistematikoa*: prezioek balore-merkatuetan duten bilakaerari eragiten dioten faktore generikoen araberakoa da (egoera ekonomiko orokorra, politikarekin lotutako berriak, etab.), eta ez balore baten ezaugarri zehatzen araberakoa. Arrisku hau ezin da dibertsifikazioarekin kontrolatu, ezta gutxitu ere, merkatuari oro har eragiten dioten faktoreak daudelako tartean (normalean, zorroa dibertsifikatuz lor daitekeen gutxieneko arriskua bezala hartzen da).

Ondorioz, eta geroago ikusiko dugun bezala, zenbait arrisku teknika eta estrategia batzuen bitartez dibertsifikatu daitezke, esaterako, merkatuko arriskua (merkatuko aldagarriek aldaketak jasaten dituztenean modu desberdinetan jarduten duten aktiboetan inbertituz); interes-tasaren arriskua (iraupenak eta interes-tasa aldakorrek eta tasa finkoak dauzkaten aktiboak konbinatuz); etab. Bestalde, beste arrisku batzuk dibertsifikatzea oso zaila da (adibiderik argiena arrisku sistematikoa da), izan ere, ekonomia osoan homogeneotasunez eragina izaten duten alderdi jakin batzuk daude.

Errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko harremana zuzena da, eta beraz, inbertsio batean zenbat eta arrisku handiagoa bere gain hartu, orduan eta errentagarritasun handiagoa espero ahal izango da, hau da, errentagarritasun maila beretan arrisku gutxiago duen inbertsioa nahiago izaten da. Arriskuaren eta errentagarritasunaren arteko harreman honi arriskua/errentagarritasuna binomioa deitzen zaio.

3.3. irudia



non,

R_f = Aktiboaren errentagarritasuna, arriskurik gabe edo arrisku baztergarriarekin.

3.2.2.4. Epea

Epea hasierako inbertsioa berreskuratzeko beharrezkoa den denbora tarte da.

3.2.2.5. *Likidezia*

Inbertsio jakin bat berehala eskudiru bihurtzeko erraztasuna neurtzen du. Zentzu horretan, kotizatutako baloreen kasuan, likidezia-maila onari esker kontratazio bolumen eta maiztasun handiak sortzen dira, eta erosteko eta saltzeko prezioen arteko aldea txikia izan ohi da normalean. Horrek esan nahi du baloreak berehala eros eta sal daitezkeela, kontrapartidarik ezak eragiketaren prezioan eraginik izan gabe.

3.2.2.6. *Interes-tasen eragina*

Lehen ikusi dugu inbertsiogileak aktiboa saldu nahi duenean, merkatuaren arriskuak saltzeko prezioa erostekoa baino txikiagoa izatea eragin dezakeela. Errenta finkoaren kasuan, arrisku hori interes-tasen bilakaerari lotuta dago nagusiki, eta inbertsioaren denbora balorearen mugaeguna baino laburragoa denean gertatzen da.

Inbertsiogile batek aktibo bat zorroko inbertsio-aldia baino luzeagoa den mugaegun batekin erosten duenean, data hori iristean bigarren mailako merkatuan saldu beharko du. Denbora horretan zehar interes-tasak igo badira, espero zuen errentagarritasuna baino txikiagoa lortuko du, eta agian minusbalioak ere erregistra litzake. Eta alderantziz, interes-tasen beherkadak hasieran aurreikusitakoak baino errentagarritasun altuagoak ekarriko dizkio.

Horren arrazoia da, izan ere, tasak igotzean, merkaturatzen diren jaulkipen berriek ordainketa erakargarriagoa eskaintzen dutela; ondorioz, zaharrek prezioa gutxituz gero bakarrik negoziatuko dute, eta erosleari jaulkipen berriek eskainitako errentagarritasunaren antzekoa bermatuko diote. Eta, alderantziz, interes-tasak jaisten direnean, jaulkipen zaharrek bigarren mailako merkatuan duten prezioa igo egingo da.

Prezioak interes-tasen aldaketen aurrean duen sentikortasuna neurtzeko iraupena erabiltzen da: errenta finkoko balore baten batez besteko bizitza da, falta diren kupoiak kopurua, banaketa eta zenbatekoa, eta denboran jaso beharreko gainerako sarrerak kontuan hartuz. Kontzeptu oso garrantzitsua da balore jakin baten arriskuaren berri jakiteko. Zenbat eta iraupen luzeagoa izan, orduan eta arrisku handiagoa izango du, interes-tasen igoeren eta jaitsieren arabera produktuaren prezioa gehiago edo gutxiago jaitsi edo igoko baita.


Interes-tasek errenta aldakorreko inbertsioen prezioei ere eragiten die (akzioak); halakoe-tan, halere, harremana ez da hain zuzena. Hasiera batean, interes-tasak igoz gero, enpresen finantzazioa garestitu egingo da, eta, ondorioz, horrek eragina izango du haien irabazietan. Azken buruan, enpresen irabaziek eragina dute haien dibidenduetan (akziodunen

artean irabaziak banatzean dautza azken finean), eta, beraz, dibidenduak txikiagoak bada, enpresa horretako partaidetzak erosteko eskaera ere txikiagoa izango da. Azken ondorio gisa, akzio horien merkatu-balioa txikitu egingo da.

3.2.2.7. Ziklo ekonomikoa

Ziklo ekonomikoa jarduera ekonomikoaren epe luzerako aldaketa da, indize makroekonomikoen bidez neurtuta. Hedatze-zikloa izango da hazkunde ekonomikoaren faseetan, eta atzerabidezkoa ekoizpenaren eta enpleguaren murrizketa-aldietan eta jardueraren uzkurdua-aldietan. Grafikoki:

3.4. irudia



- *Atzeraldia*: Fase honetan kontsumoa uzkurtu egiten da, prezioak gelditu edo estankatu egiten dira, enpresen irabaziak jaisten dira, eta aurrezkia eta langabezia igo egiten dira. Enpresaren irabaziek beherantz egin dutenez, enpresen kotizazioek ere behera egiten dute. Fase honetan, interes-tasak oso maila baxuetan egoten dira, eta, beraz, ez da unerik egokiena errenta finkoan inbertitzeko.

- *Berraktibazioa*: BPGren hazkunde gehigarria gertatzen da, eta horrekin batera ondare eta zerbitzuen prezioen lehenengo igoerak, soldaten hazkundera, aurrezki- eta langabezia-tasa egonkorrak. Akzioen merkatuan goranzko joera bat egiten da, kotizazioak aurreko fasetik baxu daudelako eta errenta aldakorrean inbertitzeko aukerak egoten hasten da. Interes-tasak gorantz doaz, likidezia nahiago bada ere.
- *Hedapena*: Fase honen ondorio nagusiak hauek dira: BPG iraunkorki haztea, kontsumo pribatua haztea, prezioak eta zerbitzuak, enpresaren irabaziaz eta zorpetzeko joera igotzea; langabezia jaisten da, eta kontsumitzaileen nahiz ekoizleen konfiantza hazten da. Merkatuaren goranzko joeraren fase heldu batean sartzen da; fase horretan, inbertitzeko ehunekoei eustea gomendatzen da. Oro har, interes-tasak maila altuetan estankatuta gelditzen dira.
- *Dezelerazioa*: BPGren hazkundera gelditu egiten da, kontsumoa ere estankatu egiten da (ondasun iraunkorra gehienbat), ondareak eta zerbitzuak mantentzen dira, soldaten erosteko ahalmena mantentzen da, enpresa-irabaziaz estankatu egiten dira, langabezia-tasa mantendu egiten da eta kontsumitzaileen eta ekoizleen konfiantza jaitsi egiten da. Oro har, interes-tasak jaisten hasten dira.

3.2.2.8. *Kongruentzia*

Kongruentzia terminoak Erakundearen zorroaren barruko inbertsioak elkarrekin lotzeko aplikatzen den irizpideari egiten dio erreferentzia; irizpide horren bidez, ahalik eta koherentziarik handiena lortu nahi da bazkideekin hitzartutako konpromisoak exekutatzeko aurre egin beharreko ordaintekekin. Horrela, kongruentziaren printzipioaren arabera, bazkideen ekarpenak gauzatzen diren inbertsioen ezaugarriek elkarren antza izan behar dute, epearen eta monetaren aldetik, erakundeak etorkizunean aurre egin behar izango diela espero duen ordaintekekin.

3.2.2.9. *Batez bestekora itzultzea*

Batez bestekora itzultzeko hipotesirako, beharrezkoa da epe luzean interes-tasek bat egiten duten batez besteko balio bat baldintza normaletan egotea. Badaude ziklo ekonomikoekin eta funts-eskaerarekin lotutako arrazoizko argumentu ekonomikoak halako prozesuen alde. Tasak altuak direnean, ekonomiak moteltzeko joera hartzen du, eta funts gutxiago eskatzen dira; ondorioz, interes-tasak jaitsi egiten dira. Tasak baxuak direnean, beriz, funtsen eskaera igotzen da, eta interes-tasak ere bai.

Prezioen bilakaera-ereduetan ere erabiltzen da aipatutako hipotesia. Halako kasuetan, hipotesi horrek beharrezkoa du baloreak batez besteko batera itzultzea epe luzean.

3.2.2.10. Informazio-iturriak

Erakundeek inbertsio finantzarioei buruzko erabakiak hartzeko informazioa lortzen duten sistemak biltzen dituzte. Horri dagokionez, merkatuko informazio-iturri nagusiak hauek dira:

- Iturri publikoak: Nazioarteko burtsen eta errenta finkoko merkatuen buletinak, banku jaulkitzaileen txostenak (Europako Banku Zentrala, EGF), etab.
- Kanpoko iturri pribatuak: Finantza-merkatuei buruzko informazioa denbora errealean ematen espezializatuta dauden enpresen bidez lor daitekeen informazioa (Bloomberg, Reuters, etab.).
- Barneko iturriak: Erakundeek erabil ditzaketen datu-baseak biltzen dituzte, bai lortutako esperientzian oinarrituta bertan egindakoak, bai erakunde espezializatuari erositako edo haiekin elkarlanean.

3.3. Aktibo motak eta ezaugarriak

3.5. irudia

Aktibo motak

Aktibo motak	
<i>Errenta finkoak</i>	Zor publikoa Hipoteka zedulak Obligazioak eta bonuak Obligazio trukagarriak Enpresa ordaindukoak Titulizazioak
<i>Errenta aldakorra</i>	
<i>Gordailuak</i>	
<i>Inbertsio funtsak</i>	Inbertsio higigarrietako funtsak Inbertsio higiezinak Kotizatutako funtsak Inbertsio libreko funtsak Inbertsio sozietateak (SICAVak)
<i>Produktu eratorriak</i>	Etorkizunekoak Aukerak Warrant-ak Finantza trukeak
<i>Higiezinak</i>	
<i>Beste batzuk</i>	

BASEek beren bazkideen ekarpenak gauzatzeko aktibo finantzario ugari dituzte eskura, bazkideekin hitzartutako etorkizuneko konpromisoei aurre egiteko. Ondoren, inbertitzen duten aktibo finantzario nagusien oinarrizko ezaugarriak aztertuko dira.

3.3.1. Errenta finkoa

Definizioa

Errenta finkoko aktiboek bai enpresa pribatuek eta bai erakunde publikoek jaulkitzen dituzten balore negoziagarrien multzo zabala osatzen dute.

Ezaugarriak

Ekonomikoki, erakunde jaulkitzaileek inbertsiogileengandik jasotzen dituzten maileguak adierazten dituzte.

Errenta finkoko ohiko produktuetan, maileguaren interesak modu zehatzean ezartzen dira jaulkipen-unetik mugaegunera arte; gaur egun, berriz, aukera sofistikatuagoak ere badaude. Esate baterako, interes aldakorreko kupoiak ordaintzen dituzten jaulkipenek merkatuko erreferentziako interes-tasekin lot dezakete interesa (Euriborrarekin, esate baterako), burtsa-indizeekin, edo baita akzio zehatz baten nahiz akzio-saski baten bilakaerarekin ere (kasu batzuetan, baliteke produktuarekin batera tresna eratorri bat ere agertzea). Batzuetan, ezaugarri bereziak dituzte amortizatzeko edo itzultzeko aukerei dagokionez, etab. Era berean, produktu horiek tituluaren bizitzan zehar aldizkako kupoiak sor ditzakete edo bukaeran ordainketa bakar bat itzul dezakete (hau da, hasieran eskuratutako nominala gehi pilatutako interesak guztira). Azken horri «zero bonu kupoi» esaten zaio normalean.

Motak

Errenta finkoko produktu nagusiak hauek dira:

- *Zor publikoa*: Estatuak, Autonomia Erkidegoek eta beste Erakunde Publiko batzuek jaulkitako errenta finkoko baloreak dira. Normalean oso likidoak izaten dira, eta kreditu-arrisku baxukoak. Epearen eta ezaugarrien arabera, estatuaren zorraren barruan altxorren letrak eta Estatuaren bonuak eta obligazioak daude.

- *Hipoteka-zedulak*: Kreditu-erakundeek (bankuek eta kutxek) bakarrik jaulkitako errenta finkoko baloreak dira; haien hipoteka-maileguen zorroak babesten ditu globalki. Epe ertaineko jaulkipenak izaten dira normalean, eta hainbat motatakoak izan ohi dira, interes-tasaren eta amortizatzeko baldintzen arabera. Zehazkiago, erakunde jaulkitzaileak beretzat gordetzen du jaulkipena haren bizitzan zehar partzialki nahiz osoki aldez aurretik amortizatzeko ahalmena, hipoteka-merkatua arautzen duen Legean ezarritakoarekin bat.
- *Obligazioak eta bonuak*: Enpresek jaulkitako bonuak eta obligazioak epe ertain eta luzeko errenta finkoko baloreak dira. Ezaugarriak asko alda daitezke jaulkitzaile batek beste jaulkitzaile batera, eta batzuetan baita konpainia beraren jaulkipenen artean ere. Desberdintasun horiek izan daitezke, besteak beste, mugaeguna, interes-tasa, kupoi aldizkakotasuna, jaulkitzeko eta amortizatzeko prezioak, amortizazio klausulak eta jaulkipenaren bestelako baldintzak, baita bihurgarritasun aukerak, egonez gero, eskubideen lehentasuna likidazio kasuan, eskainitako bermeak... Horrela, obligazio eta bonu sinpleak daude, mendeko obligazioak (kreditu-lehentasunari begira zordun arrunt guztien atzetik kokatzen direnak), edo indizetutako, erreferentziatutako edo indexatutako bonuak eta obligazioak (errentagarritasuna indize, akzio-saski, etab.en eboluzioarekin lotuta daukatenak).
- *Obligazio trukagarriak eta/edo bihurgarriak*: Bihurgarritasunak aktibo finantzario bat beste bat bihurtzeko aukera ematen du. Hau da, betebehar bat akzio bihur daiteke, edo bestelako betebehar klase bat. Obligazio trukagarriek edo bihurgarriek eskubidea ematen diote jabeari akzioekin trukatzeko, data jakin batean. Trukatzearen eta bihurtzearen arteko aldea da, lehenengo kasuan, akzio bihurtzeko jaulkitzailearen autozorroko akzio zaharrak ematen direla trukean, eta bigarrenean, berriz, akzio berriak. Bihurtzeko data arte, edukitzaileak aldizkako kupoiak kobratuz jasotzen ditu interesak. Bonu edo obligazio bakoitzaren truke emango den akzio kopurua, prezioak erabakitzeko modua, trukatzeko edo bihurtzeko datak, etab. Jaulkipenaren Liburuxkan zehazten dira. Behin trukatzeko data iritsita, bi aukera ditu inbertsiogileak:
 - bihurtzeko aukera baliatzea, trukatzeko/bihurtzeko eskainitako akzioen prezioa merkatuko prezioa baino baxuagoa bada.
 - obligazioei eustea, bihurtzeko hurrengo aukeraren data arte edo mugaegunera arte.
- *Enpresa-ordaindukoak*: Deskontuarekin jaulkitako zero kupoiko errenta finkoko baloreak dira, eta, beraz, haien errentagarritasuna erosketa-prezioaren eta amortizatzeko datan jasotzen den ordaindukoaren balio nominalaren arteko diferentziatik lortzen da. Epe laburrekoak dira, eta mugaeguna 7 egun eta 25 hilabete bitartekoa izan dezakete; eperik ohikoenak, halere, hilabete, hiru, sei, hamabi eta hamazortzi hilabete dira.

— *Titulizazioak*: Titulizazioa enpresak finantzatzeko metodo bat da, eta hainbat aktibo —etorkizuneko kobratzeko eskubideak barne— hirugarren bati saltzean edo lagatzean oinarritzen da; hirugarren horrek, aldi berean, erosketa finantzatzen du, inbertsiogileen artean banatzen diren baloreak jaulkiz. Hau da, demagun banku jakin batek bezeroei emandako mailegu-zorro bat daukala. Zenbait arrazoi direla eta, bankuak mailegu horiek erakunde bati («eramailea») «saltzea» erabakitzen du, eta horien erosketa finantzatzeko titulu batzuk (titulizazioak) jaulkitzen ditu eta horien ordainketa-bermea funtsean eramaile horrek erosi berri dituen maileguetan datza. Titulu horiek inbertsiogileen artean banatzen dira, eta horrela, banku horrek emandako kredituen ondorioz daukan kreditu-arriskua titulizatutako bonuen inbertitzaileen artean banatzen da²².

3.3.2. Gordailuak

Definizioa

Erakunde finantzarioei emandako maileguak dira. Hasierako kapital bat ematen zaie eta haiek zenbateko hori aldeztetik hitzartutako baldintzetan itzuli behar dute.

Ezaugarriak

Aurreko definizioa ikusita, gordailuen alorrean oso kasu desberdinak egon daitezke. Zentzu horretan, epe luzekoak edo epe laburrekoak izan daitezke, interes finkoak edo aldakorrek eduki ditzakete, edozein unetan erreskatatu daitezkeenak edo mugaegun finkokoak (epe finkokorako ezarpenak) izan daitezke, bermatuta edo bermatu gabe egon daitezke, etab.

3.3.3. Errenta aldakorra

Definizioa

Errenta aldakorra terminoarekin zera adierazi nahi da: ezin dela ziurtasunez jakin inbertsioarekin lortuko den errentagarritasuna. Izan ere, akzioak sozietate anonimo baten ka-

²² «Subprime krisia» delakoaren zati handi bat titulizazioen fenomenoaren bidez azal daiteke. Lehen, banku jakin batek bere bezeroei mailegatutako zenbatekoak berreskuratzen ez zituenean, horren galerak jasaten zituen eta osorik hartzen zituen bere gain. Honelako instrumentuekin, kredituak ez ordaintzearen ondorioak titulizatutako bonuen inbertitzaileekin banatzen dira. Beraz, AEBetako banku jakin batzuek emandako kreditu batzuk arazoak izaten hasi zirenean, horren ondorioak azkar nabaritu ziren.

pital sozialaren zati proportzionala dira; horrenbestez, sozietatearen bazkide jabearen izaera ematen diote edukitzaileari, bakoitzak duen partaidetzaren proportzioan. Bazkide izateak eskubide batzuk ematen ditu, baina baita eskubide horiek baliatzeko aukerarekin lotutako erantzukizunak ere.

Ezaugarriak

Errenta finkoaren kasuan ez bezala, errenta aldakorreko baloreen titularra den BASE baten eskubide ekonomikoak eta politikoak dauzka, ez baita sozietatearen jabea. Eskubiderik garrantzitsuena hitzartutako interesak jaso eta data jakin batean inbertitutako kapitala osoki nahiz partzialki itzultzeko eskubidea da, errenta finko sinplekoa den ala ez kontuan hartuta.

Gainera, errenta aldakorreko inbertsiogilea sozietate jaulkitzailearen akzioduna eta ez haren zorduna izateak (errenta finkoaren kasuan gertatzen den bezala), ondorio praktikoak ditu:

- Sozietatea likidatuz gero, zordunak lehentasuna du bazkideen aurrean.
- Akziodunak hainbat eskubide politiko ditu, baina horiek baliatzeak konpromiso handiagoa eskatzen du sozietate-bizitzaren garapenarekiko: erabakien jarraipena, Akziodunen Batzar Nagusian parte hartzea edo botoa beste norbaiten esku uztea, etab.

3.3.4. Inbertsio-funtsak

Definizioa

Inbertsio-funtsak inbertsio kolektiboko erakundeak dira; ondorioz, emaitza indibidualak inbertsiogile-talde batek lortutako errendimenduen araberakoak izango dira. Izan ere, inbertsio-funtsak nortasun juridikorik ez duten ondareak dira. Horregatik, sozietate kudeatzaile batek kudeatzen ditu funtsaren aktiboak, eta berak betetzen ditu administrazioko eta ordezkariatzako funtzio guztiak. Era berean, finantza-erakunde batek ere parte hartu behar du, funtsaren ondarearen gordailuzain gisa.

Ezaugarriak

Erakunde kudeatzaileak hainbat aktibo finantzariotan inbertitzen du BASEak ekarritako dirua (errenta finkoan, errenta aldakorrean, eratorrietan, banku-gordailuetan...), eta horiek osatzen dute funtsaren ondarea. Aktibo horiek balore-merkatuetan duten bilakae-rak erabakiko du lortzen diren emaitzak positiboak ala negatiboak diren; emaitza horiek Erakundeari esleituko zaizkio, haren inbertsioak funtsaren ondare osoan duen propor-tzioaren arabera.

Inbertsio-unitatea partaidetza da. Haren merkatu-prezioa edo balioa likidazio-balioa da. Likidazio-balioa kalkulatzeko, funtsaren ondare osoa une bakoitzean zirkulazioan dau-den partaidetza kopuruarekin zatitzen da.

Inbertsio-funtsak izenpetzean, BASEak hainbat komisio ordaintzen ditu. Komisio horiek diferentek dira funtsen arabera, baina betiere legeak ezarritako gehienezko muga bat-zuen barruan. Alde batetik, erakunde kudeatzaileak kudeaketako eta gordailuzaintzako komisioak kobratzen dizkio funtsari, eta, beraz, horiek deskontatuta daude BASEak lor-tzen duen errentagarritasunean. Gainera, funts batzuen kasuan erakundeak zuzenean ko-bra diezazkioke Erakundeari komisioak, partaidetzen harpidetzarengatik eta/edo itzulke-tarengatik.

Motak

Inbertsio kolektiboko erakunde ezberdinak daude:

- *Inbertsio higigarrietako funtsak*: Inbertsio kolektiboko erakundeak dira, non para-taideen ekarpenak tresna finantzierotan inbertitzen dituzte, tartean akzioak, errenta finkoa, produktu eratorriak eta haien arteko nahasketak.
- *Inbertsio higiezinetako funtsak*: Inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak dira; onibarren erosketetan inbertitzen dituzte nagusiki partaideen ekarpenak, akura-erre-gimenean ustiatzeko (etxebizitzak, bulegoak, merkataritza-lokalak, ikasleen edo hi-rugarren adinekoen egoitzak, etab.). Hau da, onibarrak alokatzeagatik irabazitako errentetatik eta prezioen bilakaeratik lortzen dituzte errendimenduak. Sozietarioak di-renean, Inbertsio Higiezinetako Sozietateak deitzen zaie (IHS).
- *Kotizatutako funtsak*: Funts hauen partaidetzak balore-burtsetan negoziatzen dira. Haien inbertsio-politika burtsa-indizeen edo errenta finkoko indizeen bilakaera erre-produzitzean datza.

- *Inbertsio libreko funtsak*: Hedge funds edo inbertsio-funts alternatiboak izenez ere ezagutzen dira; funts hauek aktibo finantzarioen edozein motatan inberti dezakete (horregatik dute izen hori), eta ez dute inbertsio kolektiboko ohiko erakundeentzako araudi orokorrean ezarritako inbertsio-kontzentrazioei buruzko arauak bete beharrik. Beren aktibo-balioaren halako bost arteko zorra onar dezakete. Funts hauei, gainera, ez zaizkie aplikatzen gainerako inbertsio-funtsei aplikatzen zaizkien gehienezko komisi-
sio-mugak. Inbertsiogileak informatzeko beharrak ere txikiagoak dira. Halako funtsen barruan oso produktu desberdinak aurki daitezke; halere, inbertsioak hautatzeko askatasunak, likidezia eta gardentasun txikiagoek, eta palanka-efektuaren aukerak arrisku handiagoa eragin ohi dute inbertsio kolektiboko bestelako produktuen aldean.
- *Inbertsio-sozietateak (SICAVak)*: Inbertsio higigarriaren kasuan, bai funtsek eta bai sozietateek balore higagarrietan inbertitzen dute nagusiki: akzioetan, zor publikoan eta enpresek jaulkitako obligazioetan, besteak beste. Nolanahi ere, bien arteko alde nagusia zera da: sozietateek nortasun juridikoa dutela, sozietate anonimoak baitira. SICAVen akzioak balore-burtsetan edo burtsa-merkatu alternatiboan negoziatzea daitezke; horrez gain, eta sozietateak berak hala erabakiz gero, halako akzioetan inbertitzeko beste modu bat inbertsio-funtsak harpidetzearen eta itzultzearen antzekoa den prozesu bat da.

3.3.5. Produktu eratorriak

Definizioa

Produktu baten prezioa beste aktibo batek —azpikoa izenekoak— merkatuetan lortzen duen kotizazioaren arabera aldatzen denean, produktu horri eratorria esaten zaio. Finantza-tresna eta adierazle ekonomiko asko erabiltzen dira azpiko aktibo gisa: akzioak, akzio-saskiak, errenta finkoko baloreak, dibisak, interes-tasak, burtsa-indizeak, lehen-gaiak, etab., eta produktu sofistikatuetan, baita inflazioa edo kreditu-arriskuak ere.

Ezaugarriak

Oro har, produktu eratorriek agente batzuen arriskua beste batzuei igortzen diete (esaterako, saldu nahi dutenena erosi nahi dutenei) eta, beraz, hainbat helbururekin erabil daitezke. Alde batetik, zorro edo funts baten galera-arriskua erabat edo partzialki mugatzeko erabil daitezke; bestetik, inbertsio bati arriskua gehitzeko aukera ematen dute (azpiko baten etorkizuneko balioari buruz apustua eginez, esate baterako), errentagarritasun handiagoak lortzeko asmoz.

Produktu eratorri guztien ezaugarri bat palanka-efektuarena da, inbertitutako kapitalaren eta lortutako emaitzaren arteko harremana definitzen duena. Zenbateko berarekin, eratorriekiko eragiketaren galera nahiz irabazi posibleak handiagoak dira azpiko aktiboekin zuzenean negoziatuz gero lortuko liratekeenak baino. Beraz, aldeak ondasun jakin bat (esate baterako, akzio bat) etorkizuneko egun batean prezio zehatz batean (adibidez 10 eurotan) trukatzera behartzen dituen kontratu batean, ez da exijitzen hasieran inolako ordainketarik egitea. Kontratuaren mugaegunean, BASEak akzioa entregatu beharko du eta horren truke 10 € jasoko ditu. Akzioa entregatzen den unean merkatuan daukan balorea 100 eurokoa bada, BASEak 90 € galdu dituela esan nahiko du (izan ere, merkatuan 100 eurotan erosi behar izango du eta izenpetutako kontratuaren ondorioz, 10 € soilik jasoko ditu). Aitzitik, akzioa entregatzen den unean merkatuan euro bat balio badu, BASEak 9 € irabaziko dituela esan nahiko du. Adibide hau ikusita ondorioztatu daitekeen bezala, eratorriak arrisku altuko produktuak izan daitezke, izan ere, galera hasieran inbertitutako kapitala baino askoz altuagoa izan daiteke.

Motak

BASEek inbertitzen duten produktu eratorri nagusiak hauek dira:

- *Etorkizunekoak*: Etorkizunekoak merkatu antolatu batean negoziatutako kontratuak dira; halakoetan, alderdiek balore baten (azpiko aktiboaren) zenbateko zehatz bat salerostea hitzartzen dute etorkizuneko data jakin batean, eta aldez aurretik hitzartutako prezioan. Hau da, eperako kontratuak dira, eta helburu gisa dituzte finantza-tresnak (baloreak, indizeak, maileguak edo gordailuak...) edo commodities direlakoak (hau da, salgaiak; izan daitezke nekazaritza-produktuak, lehengaiak, etab.).
- *Aukerak*: Aukerak azpiko aktiboaren zenbateko jakin bat erosteko edo saltzeko eskubidea eskaintzen duten kontratuak dira, prezio jakin batean (ekitaldiko prezioan) eta ezarritako epean. Aukeren kasuan, ezinbestekoa da eroslearen eta saltzailearen egoerak desberdintzea. Erosleak mugaegunean saltzeko edo erosteko eskubidea du, baina ez betebeharra (aukera motaren arabera); aukeraren saltzailea (edo jaulkitzailea), berriz, behartuta dago erostera edo saltzera, erosleak bere eskubidea baliatu nahi izanez gero. Aukeraren prezioa erosleak eskubide hori lortzeagatik ordaintzen duena da, eta prima izenez ezagutzen da. Behin mugaeguna iritsita, erosleari baliatzea interesatuko zaio ala ez, eragiketarako finkatutako prezioaren (ekitaldiko prezioaren edo «strike»aren) eta azpikoak une horretan eskurako merkatuan duen prezioaren arteko diferentziaren arabera.
- *Warrant-ak*: Warrant-ak aktibo (azpiko) bat erosteko edo saltzeko eskubidea ematen duten balore negoziagarriak dira, ekitaldiko prezio jakin batean. Aukeren kasuan be-

zala, warrant-aren erosleak azpikoa mugaegunean erosteko edo saltzeko eskubidea du, baina ez betebeharra. Eskubide hori gauzatzea ala ez azpikoak ekitaldiko prezioaren aldean une horretan duen prezioaren arabera izango da (likidazio-prezioa). Normalean diferentzien arabera likidatzen da, eta bi prezioen arteko diferentzia ematen zaio edukitzaileari. Warrant-aren prezioan hainbat faktore hartu behar dira kontuan: azpikoak une bakoitzean duen merkatu-prezioa (akzioa, indizea, obligazioa, dibisa...), warrant-aren ekitaldiko prezioa, azpikoaren hegazkortasuna, arriskurik gabeko interestasa, mugaegunerako gelditzen den denbora, eta azpikoaren izaeraren arabera beste faktore batzuk (dibidendua, akzioen edo indizeen gaineko warrant-en kasuan, edo dibisen arteko interes-moten diferentziala, kanbio-tasen gaineko warrant-en kasuan).

- *Finantza-trukeak edo swap-ak*: Finantza-trukeen kontratueta, etorkizunean diru kopuru jakin batzuk trukatzea hitzartzen dute bi alderdik. Normalean, etorkizuneko diru-trukeak interes-tasekin erreferentziatuta daude, eta IRS izena ematen zaie (Interest Rate Swap); halere, modu generikoagoan pentsa daiteke swap bat dela etorkizuneko edozein ondasun- edo zerbitzu-elkartruke, edozein aldagai behagarri erreferentziatuta.
- Eratorri finantzarioak aztertzean, garrantzizkoa da merkatu antolatuetan edo OTC²³ merkatuetan negoziatuta dauden jakitea. Horri dagokionez, eratorri batzuk merkatu antolatuetan negoziatzeak eragiketek ondoko ezaugarriak izatea eragiten du:
- Kontratuen baldintzak estandarizatuta daude, zenbateko nominalari, helburuari eta mugaegunari dagokienez.
- Kontratua negoziazio-saioaren edozein unetan eros nahiz sal daiteke.
- Etorkizunak erosteko nahiz saltzeko, parte-hartzaileek bermeak ekarri behar dizkiote merkatuari; bermea zenbateko jakin bat izango da, dituzten posizio irekien arabera zehaztuko dena, eta beren konpromisoa bete dela ziurtatuko du.
- Merkatu hauek konpentsazio- eta kontrapartida-ganbera gisa jardun ohi dute (saltzailearen aurrean alderdi erosle gisa eta eroslearen aurrean, berriz, alderdi saltzaile gisa jokatu), eta eragiketa ondo amaitzea bermatzen dute. Horrek segurtasun handiagoa

²³ «Over The Counter»en akronimoa. Antolatu gabeko merkatuei egiten die erreferentzia, edo kanpoko erregulazio edo gainbegiradapean ez dauden merkatuei. OTC merkatuek ez dute egoitza fisikorik izaten, eta negoziazioa telefono edo ordenagailu bidez egiten da. Merkatu antolatuetan ez bezala, eragiketak ez daude estandarizatuta: alderdiek ezartzen dituzte modu libre eta zuzenean eragiketen baldintzak (prozedurei buruzko akordio orokorrak egon daitezke, halere). Ez dago kontratugileek hitzartutako konpromisoak betetzea bermatzen duen konpentsazio- eta likidazio-organorik; horregatik, kaudimen handiko erakundeek jarduten dute halako merkatuetan.

ematen die parte-hartzaileei, eragiketetatik sortutako irabaziak kobratuko dituztela ziurtatzen baitzaie, baita beste alderdiak ordaintzeko konpromisoak beteko ez balitu ere. Balizko ardura horri aurre egiteko, merkatuak kideek eta bezeroek gordailututako bermeak ditu.

3.3.6. Higiezinak eta benetako eskubide higiezinak

Kategoria honen barruan ondorengoak sartzen dira: lurrak, eraikinak, bideak, eraikuntzak eta meategiak, horiek dauzkaten apaingarri edo gailuekin batera, eta baita legeak horrelako eskubidetzat jotzen dituenak ere.

3.3.7. Beste produktu batzuk

Finantzen munduko sofistikazio gero eta handiagoari esker, beren ezaugarriak mistoak edo hibridoak direnez aurreko kategorietan guztiz sartzen ez diren produktuak hasi dira merkaturatzen: lehentasunezko akzioak, errenta finko egituratua edo aukerak salerosteko kontratuak, batzuk bakarrik aipatzearren.

Zentzu horretan, egituratutako produktutzat jotzen dira tresna finantzario bi edo gehiago bateratuz sortzen direnak; oro har, errenta finkoko produktuak eta tresna eratorriak. Errenta finkoko aldeak mugaegunarekin inbertitutako kapitalaren ehuneko zehatz bat babesteko zeregina bete ohi du; aitzitik, instrumentu eratorria edo eratorriak kontratatzean azpiko aktibo bat edo batzuen bilakaera (goranzkoa edo beheranzkoa) aprobe txatu nahi da.

Beste produktu batzuk bateratzean sortzen diren arren, errentagarritasun eta arrisku ezaugarri propioak dauzkaten tresna finantzarioak dira, eta hori dela eta, egituratutako produktuen izena daukaten oso produktu desberdinak aurki daitezke beren errendimendu potentziala eta inbertitutako kapitala galdu ahal izateko aukerari dagokionez.

3.3.8. Inbertsio-irizpide orokorrak

Merkatuan dauden produktu finantzarioen aukera zabalaren artean, bazkideekin hitzartutako konpromisoetatik eratorritako etorkizuneko prestazioak estaltzeari dagozkion helburuak betetzen dituztenak aukeratu beharko dituzte BASEek.

Horri dagokionez, otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuak onartutako Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Araudiak 68. artikuluan xedatzen du BASEen funtsak beren izaerarekin bat datozen segurtasun-, likidezia- eta errentagarritasun-irizpideen arabera inbertitu behar direla. Zentzu horretan, jarraibide batzuk ezartzen ditu erakundeen inbertsio finantzarioen zorroa osatzeko; hartara:

- Funtsen % 30 funts publikoetan inbertitu beharko da nahitaez, alegia Estatuak, Autonomia Erkidegoek, Foru edo Probintzia Diputazioek nahiz Udal Korporazioek (% 15 gutxienez) jaulkitako edo bermatutako funts publikoetan, eta errenta finko nahiz al-dakorreko baloreetan.
- Bazkideei egindako maileguak, estatutuetan aurreikusi bezala, ezingo dira izan aurreko atalean aipatutako funtsen % 10 baino gehiago; eta Sustapen Sozialeko produkzio-helburuetara, etxebizitza-helburuetara edo antzeko helburuetara bideratu beharko dira.
- Azkenik, ondasun higiezinetak inbertsioak ezingo du aipatutako funtsen % 30 gainditu.

Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuari jarraituz²⁴, erretiroa, heriotza, behin betiko ezintasuna, luzaroko langabezia edo gaixotasun larria onartzen duten BASEek, 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera honako printzipioak kontutan hartu beharko dituzte:

- BASEetako aktibo guztiak bazkide arrunten eta onuradunen intereserako inbertituko dira soilik, eta inbertsioa bazkideen interesa soilik defendatuz egingo da.
- Aktiboak, batik bat, merkatu arautuetan inbertituko dira; eta inbertsioen exekuziorako kontuan hartuko diren irizpideak segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, barreiadura, kongruentzia monetarioa eta helburuetarako epe egokiak izango dira.

Era berean, aipatutako dekretuak hornidura teknikoetako inbertsioetarako egokitzat jotzen diren aktiboak ezartzen ditu. Hauek dira:

- a) ELGEren arloan araututako merkatuetan negoziatziora onartutako errenta finko eta al-dakorreko baloreak eta eskubideak.²⁵

²⁴ BASEei inbertsio finantzario gaituei aplikatzen zaien Dekretu honetan ezarritakoa eta irizpide orokorrak betetzea exijitu ahalko da 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera.

²⁵ Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundearen akronimoa. Europako Lankidetzeta Ekonomikorako Erakundea izenarekin 1948an osatutako elkarte. Erakunde hori bigarren Mundu Gerrak suntsitu zuen Europa berriz eraikitzen laguntzeko eratu zen. Gaur egun, Europako mendebaldea, Iparramerika, Ozeania eta Ekialde Urruneko herrialdeek osatzen dute.

- b) Aktibo finantzario egituratuak: bi —edo gehiago— aktibo, tresna eratorri edo horien konbinazioarekin osatutakoak, negozio juridiko bakarraren bidez instrumentatzen direnak.
- c) Akzio eta partaidetza hauek:
- Inbertsio Kolektiboko Erakundeak eta aktiboen titulizazio-funtsak.
 - Inbertsio higiezinako funtsak.
 - Sozietateek edo arrisku kapitaleko funtsek jaulkitako akzioak edo partaidetzak.²⁶
 - BASEen kontura egindako aktiboen kudeaketan soilik oinarritutako jarduera duten sozietateen akzioak eta partaidetzak, kapitalaren % 90 gutxienez, borondatezko aurreikuspen sozialeko erakunde batena edo zenbaitena bada.
- d) Ageriko gordailuak edo hamabi hilabeteko edo hortik beherako epea duten gordailuak; betiere, Europar Batasuneko estatu kideren batean egoitza badute eta ELGEko dibisa-merkatuan negoziatzen diren monetetan izendatuta badaude.
- e) Ondasun higiezinak eta higiezinaren eskubide errealak.
- f) Europako Esparru Ekonomikoko (EEE) estatu kideren batean establezimendua duen eta haren bidez eragiketak egiteko baimena duen kreditu-erakunde edo aseguratzaile batek bermatutako kredituak.
- g) Estatu, autonomia erkidego, toki-korporazio edo sozietate edo EEEko erakunde publikoei emandako finantzaketak.
- h) Baliabide finantzario eratorriak. Kasu hauetan, erakundeek egunero baloratu beharko dituzte merkatuko prezioan eratorriekin egindako eragiketak. Ondorio horietarako, merkatu antolatuetan negoziatutako tresna finantzario eratorriak, batetik, eta antolatuak ez dauden merkatuetan negoziatutako tresna finantzario eratorriak, bestetik, bereizten ditu araudiak. Horrela:
- Merkatu antolatuetan negoziatutako tresna finantzario eratorrietan egindako inbertsioa, zorroa modu eraginkorragoan kudeatzeko inbertsio moduan egin ahal izango da, zorro osoan edo zati batean hartutako arriskuen estaldura egokia aseguratzeko helburuarekin, edo errentagarritasun helburu zehatza lortzeko bideratutako kudeaketaren esparruan.

²⁶ Jarduera finantzario horren ondorioz, sortu edo garapen bidean dauden enpresen kapitalean parte hartzen da behin-behinean. Negozioaren bilakaeraren inguruko ziurgabetasunaren ondorioz, inbertsiogile profesionalentzako (plusbalio garrantzitsuen truke arriskua onartzeko prest daudenentzako) edo erakunde publikoentzako (arrazoi estrategikoak direla eta, industriako sektore jakin baten garapena sustatzeko interesa izan dezaketelako) jarduera bat da.

- Bestalde, merkatu antolatuetan negoziatu ez diren tresna finantzario eratorrietan inbertitzeko hainbat baldintza bete beharko dira (behar besteko kaudimena duten kontrapartida edo BASEaren aldeko bermeen balio moduan, etab.) eta zorro osoan edo zati batean hartutako arriskuen estaldura egokia aseguratuzko helburuarekin egin ahal izango da soilik, edo errentagarritasun helburu zehatza lortzeko bideratutako kudeaketaren esparruan.
- i) Araututako merkatuetan negoziatzeko onartzen ez diren errenta finkoko eta errenta aldakorreko baloreak, hurrengo baldintzak betetzen dituztenak:
- Baloreek ezingo dute transmisio librerako inongo mugarik izan.
 - ELGEko kide den estaturen batean egoitza soziala duten erakundeek jaulki behar dituzte.
 - Baloreen erakunde jaulkitzailearen egoera finantzarioak urtero auditatu beharko ditu kanpoko auditore independente batek; eta inbertitzeko unean, erreferentzia gisa hartzen den azken ekitaldiari buruzko haren aldeko iritzia jaso beharko da.

Egokitzat jotako aktiboen inbertsioa dibertsifikazio-, barreiadura- eta kongruentzia-irizpide hauek betez egin beharko da:

Gutxien % 70	Merkatu arautuetan negoziatzea onartutako errenta finko eta aldakorreko balore eta eskubideak.
	Akzioak eta partaidetzak.
	Gordailuak.
	Ondasun higiezinak eta benetako eskubide higiezinak.
	Hipoteka-kredituak.
	Finantza-tresna eratorriak.
Gehien % 5	Kotizatutako enpresa berak jaulkitako akzioak.
Gehien % 10	Talde bereko enpresek jaulkitako aktiboak.
Gehien % 2	Merkatu arautuan kotizatuzko onartu ez diren baloreak, enpresa berak jaulkiak.
Gehien % 4	Merkatu arautuan kotizatuzko onartu ez diren baloreak, talde bereko enpresak jaulkiak.
Gehien % 2	Finantzen merkatu arautuan negoziatu ez diren baloreak, BGAEen sustatzailak jaulkiak.
Gehien % 20	Higiezinetan eta benetako eskubide higiezinetan.
Gehien % 10	Higiezin edo benetako eskubide higiezin bakarrean.
Gehien % 20	Arrisku-kapitaleko funtsek edo sozietateek jaulkitako balore edo partaidetzetan.

Muga hauek ez dira aplikatuko kasu hauetan:

- Aurreikuspen-planeko Inbertsio Printzipioen Deklarazioan, planaren helburua inbertsio-politika garatzea dela ezartzen denean, edo errepikatzen denean edo erreferentzia gisa merkatu baten edo askoren adierazgarria den burtsako edo errenta finkoko indize jakin bat hartzen denean.
- Arriskuaren kontzentrazio-maila handitzat jotzen denean edo pentsio-planen garapen finantzarioa kolokan jar dezakeenean. Ogasun eta Herri Administrazio Sailak baldintza gehigarri bereziak erants diezazkieke lehen aipatutakoei, eta enpresa bazkide babesleen edo sustatzaileen edo horien taldekoak diren bestelako enpresen pasiboan agertzen diren BASEen inbertsioei.

3.4. Pentsio-sistemen aktiboak eta pasiboak

Jarraian BASEek urteko kontuetan erabilitako egoeraren balantzearen eredu bat dago:

AKTIBOA	PASIBOA
<i>Ibilgetu ez-materiala</i>	<i>Mutua-funtsa</i>
<i>Ibilgetu materiala</i>	<i>Erreserbak</i>
<i>Inbertsio materialak</i>	<i>Hornidura teknikoak</i>
<i>Finantza-inbertsioak</i>	Hornidura matematikoak
Akzioak eta bestelako partaidetzak	Bestelako hornidura teknikoak
Errenta finkoko titulak	Inbertsioen ezkutuko gainbalioak
Aukerak	
Inbertsio finantzarioen balio-galerengatiko hornidurak	
<i>Zordunak</i>	<i>Epe laburreko zorrak</i>
Hainbat zordun	Ogasun Publiko hartzekoduna
Administrazio Publikoak	Hainbat hartzekodun
<i>Kontu finantzarioak</i>	
Bankuak eta kreditu-erakundeak	
Aktibo finantzario likidoak	
<i>Periodokatzegatiko doikuntzak</i>	<i>Periodokatzegatiko doikuntzak</i>

Horrela, Erakundeak bere hartzekodunekin hartutako konpromisoak islatzen dira pasiboan (bazkide arruntak eta onuradunak dira nagusiak); balantzearen aktiboan, berriz, ondasunak eta eskubideak islatzen dira (batik bat, inbertsio finantzarioak, lehen definitu diren bezala) eta bertan gauzatzen dira bazkideek hartutako konpromisoei aurre egiteko ekarpenak.

BASEtan garrantzia duenez, aktiboan inbertsioak eta kontu finantzarioak nabarmentzen dira; pasiboan, ordea, hornidura teknikoak. Hori dela-eta, aipatutako egoera-balantzearen partiden erregistro- eta kontabilizazio-irizpide nagusiak daude jarraian.

3.4.1. Hornidura teknikoen definizioa eta kontabilizazioa

Jarraian zehazten dira Erakundearen aurreikuspen-jardueraren ondorioz hartutako obligazioei aurre egiteko ekitaldiaren itxiera-datan eratutako hornidurak. Hornidura horiek oro har, «Hornidura teknikoak» izenarekin ezagutzen dira, eta, lehen aipatu bezala, egoera-balantzeko pasiboan agertzen dira. Hornidura hauek horrela banatzen dira:

- *Hornidura teknikoak indarrean dauden arriskueta*rako. Ondorengo ekitaldiei dagozkien ekitaldiko kuoten eta derramen zati bat jasotzera bideratutako hornidurak dira.
- *Hornidura matematikoak*. Entitatearen etorkizuneko bizitzaz bestelako arloko prestazioen konpromisuei, gaurko balioan aurre egiteko eratutako hornidurak.
- *Bestelako hornidura teknikoak*. Hainbat funtsetan oinarritutako bestelako azpitaldeetan ez dauden hornidurak daude bertan; dena delako kausarengatik edo zenbatekoarengatik, Erakundeek eratzten dituztenak dira, etorkizunean sor daitezkeen desbiderapen anormalak konpentsatzeko, edo bazkideen aurrean Erakundearen bermea areagotzeko.

Hornidura hauek guztiek lagatako berrasegurua dute barnean.²⁷

Ekitaldian hornidura hauek izandako aldakuntzak galdu-irabazien kontuan islatzen dira, ekitaldia ixtean hornidura teknikoak zor aldean aurkeztuta eta aurreko ekitalditako hornidura teknikoak hartzekoen aldean.

Prestazio definituko BASEei dagokienez, BASEen zenbait jardueren ekitaldia arautzen duen 92/2007 Dekretuko 8. artikulua hornidura teknikoek dagozkien oinarritzko kontzeptuak zehazten ditu.

²⁷ BASEen kontularitzako egokitzapenari buruzko Gizarte Segurantzako Zuzendaritzaren 1988ko abenduaren 12ko Zirkularrak ezarritako definizioaren arabera, berrasegurua Erakundeek bolumen handiagoko arriskueta gehiegikeriak beste aseguratzaile batzuen artean banatzeko tresna teknikoa da.

- Arrisku biometrikoak (heriotza-, ezintasun- edo erretiro-prestazioak estalita dituen kolektiboaren heriotza-tasetan egon daitezkeen desbiderapenetatik eratorritako arriskuak) hartzen dituzten BASEek, eta/edo bai inbertsioaren emaitza bai prestazioaren maila zehatz bat bermatzen badute aurreikuspen-plan bakoitzeko, hartutako obligazioen arabera behar adinako hornidura teknikoak eratu beharko dituzte.
- Hornidura teknikoen gutxieneko zenbatekoa urtero kalkulatu beharko du pertsonal aktuarioak, behar bezain zuhurrak diren metodo aktuariaren bidez. Zenbateko horrek indarrean dauden prestazioak finantzatzeko adinakoa izan beharko du, baita bazkide arrunten pentsio-eskubideetatik sortutako konpromisoak islatzeko ere.
- Hornidura teknikoen kalkuluan erabilitako interes-tasa teknikoa (denboran zehar hornidura teknikoak errebalorizatzen diren interes-tasa) aurreikuspen-planean esleitutako inbertsioen barne-errendimenduaren tasaren²⁸ arabera zehaztutakoa izango da; betiere, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak ezarritako baldintzen arabera izango da. Ezingo du hornidura teknikoak zehazteko erabilitako aurreikusitako inflazio-hipotesia ehuneko hiru puntutan gainditu, eta muga % 5koa izango da.
- Hornidura teknikoen kalkuluan erabiltzen diren taula biometrikoek (aztertutako kontingentziak eragin dion biztanleria zehatz baten irteeren parametro estatistikoak eta interes-tasak jasotzen diren taulatzat jotzen dira) ofizialak izan beharko dute eta behar bezala eguneratuta egon beharko dute. Era berean, kolektiboaren esperientzian oinarritutako taulak erabili ahal izango dira, kolektiboaren eboluzioarekin bat datorrela egiaztatzen bada; eta betiere, ez badira aurrekoak baino zorrotzagoak.
- Prestazioak berraseguratuta daudenean, ez da txosten aktuarialik egin beharko.

3.4.2. Aktiboak baloratzeko irizpideak

Ondoren, arauetan ezarritako BASEen aktiboaren balorazio irizpideak laburbildu dira.

1988ko abenduaren 12ko zirkularra

Euskadiko BASEetarako kontabilitate-egokitzapena zehazten duen Gizarte Segurantzaren 12/1988 Zirkularrean arabera, ibilgetu materiala (bukatutakoa eta indarrean dagoena),

²⁸ Barne-errendimenduaren tasa inbertsio batean aurrez ikusten diren etorkizuneko kobrantza eta ordainketa fluxuek hasierako baloarekin berdintzeko daukaten interes-tasa da (eta Oiko Egungo Balore Garbia lortuz). Inbertsioaren errentagarritasuna adierazten du, hau da, une honetan kapitala jasotzea edo haren eskuragarritasuna aurrez ikusitako kobrantza egunetaraino geroratzea zein tasatan den gauza bera.

inbertsio materialak, ibilgetu ez-materiala eta inbertsio finantzarioak eskuratze-kostuan baloratu beharko dira. Bestalde, kredituak balio nominalaren arabera baloratu beharko dira. Baina Erakundeak inguruabarren batengatik gauzatze-balioa nominala baino txikiagoa dela aurreikusten badu, konpentsatu egin beharko da. Atzerriko monetako kredituak eragiketa-datan indarrean dagoen kanbio-tasa aplikatuz baloratuko dira.

Inbertsio finantzarioetan, eskuratze-kostutzat jotzen da erosketa-prezioari edo titulu-harpidetzari fede-emaile publikoaren esku-hartzearengatik sortutako gastu osagarriak gehitzea, eta erosketa edo harpidetza hori grabatzen duten zergak; baina kokatze-komisioetan edo erosketan edo harpidetzan jasotako deskontuak, halakorik izanez gero, kendu ondoren. Bestalde, titulu amortizagarriek ezingo dute errenboltso-balioa gainditu. Hortaz, errenboltso-balioaren gaineko eskuratze-kostuaren soberakinari dagokion diferentzia egoera-balantzearen «Urtealdi-amaierako doikuntzak» epigrafean erregistratzen da. Diferentzia hau linealki amortizatzen da, tituluen hondar-bizitzaren arabera; eta galdu-irabazien kontuan erregistratzen da kostu hori.

Gainera, errenta aldakorreko tituluen edo inbertsio-funtsetako partaidetzen ekitaldi-itxierako gauzatze-kostua eskuratze-kostua baino txikiagoa bada, balorazioa doitu egin beharko da dagokion horniduraren bidez, baloreen talde homogeneo bakoitzerako kalkulatu dena. Alegia, erakunde berdinak jaulkitako titulu guztiak (eskubide berdinekin, halakorik egonez gero) izango dira.

3/1990 zirkularra

1990eko azaroaren 14an Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak 3/90 Zirkularra argitaratu zuen, eta horren arabera zehazten dira BASEek jarraitu beharreko arauak beren aktiboak merkatuko benetako prezioan baloratzean. Zirkular honi esker, ekarpen definituko planak ezarrita dauzkaten BASEei beren inbertsio finantzarioen balorazioa merkatuko balioen arabera egiteko aukera eman zaie. Ondorioz, zorroan dauden ezkutuko gainbalioak (itxiera datan gauzatu ez direnak) erregistra daitezke, eta era berean, hornidura teknikoak areagotzen dira.

1/1992 zirkularra

Aurreko zirkularra dela medio, eta BASEen funtsak gauzatzen diren errenta finkoko inbertsio finantzarioek eskaintzen dituzten berezitasunak interpretatzean arazoak sortzen zirenez, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak,

1992ko abenduaren 23an, ekarpen definituko banakako aurreikuspen-planak instrumentatzen dituzten EAEko BASEentzat errenta finkoko inbertsio finantzarioen balorazio irizpideei buruzko 1/92 Zirkularra argitaratu zuen, kontabilizazio-irizpideak gaur egun dagoen errealitatera egokitzeko asmoz, eta bazkideen eskubideak babesteko azken helburuarekin.

Inbertsio finantzarioetako balorazio irizpideak 3/90 zirkularreko arauetara (merkatuko balorea) egokitu zituzten BASEek zor-prezioen beherakadaren ondorioz, haien errentagarritasun nominala murriztu zela kontuan hartuta, eta prestazioak jasotzeko eskubidea gauzatzeko zorian egon zitezkeen bazkideen eskubide finkatuen zenbatekoek alferrikako minorazio edo gutxitzerik jasan ez zezaten, ondorengo arau hauek eman ziren:

Ekarpen definituko banakako aurreikuspen-planak instrumentatu dituzten BASEek aplikatuko dituzte soilik.

- Irizpide bat hautatzen bada, denboran eta espazioan mantendu beharko da, betiere, irizpide hori hautatzeko baldintzak ez badira aldatzen. Aldatzen badira, urteko kontuen auditoretza-txostenean kanpo-auditoreek iritzia eman beharko dute.
- Errenta finkoko inbertsio finantzarioak harpidetzean edo erostean zuten eskuratze-prezioan kontabilizatu ahal izango dira; hala ere:
 - Eskuratze-prezioa errenboltso-balioa baino handiagoa bada, azkena kontabilizatu ahal izango da. Diferentzia urtero amortizatu ahal izango da balioaren hondar-bizitzaren eta balioaren barne-errendimenduaren tasaren (BETaren) arabera.
 - Eskuratze-prezioa eta errenboltso-balioa berdinak badira edo eskuratze-prezioa txikiagoa bada, diferentzia barne-errendimenduaren tasaren (BETaren) arabera periodifikatuko da.

92/2007 Dekretua

Azkenik, 2007ko maiatzaren 29an 92/2007 Dekretua kaleratu zen; eta horren arabera, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeek jarduera jakin batzuen ekitaldia arautzen da, eta, besteak beste, orain arte aipatutako balorazio-irizpideak partzialki aldatzen ditu. Hala ere, irizpide horiek 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera eska daiteke betetzeko. Laburbilduz, aktibo egokiak ondorengo irizpideen arabera baloratuko direla ezartzen du Dekretuak:

- Balore negoziagarriak, hala errenta finkokoak nola aldakorrekoak izan, haien gauzatze-balioarekin baloratuko dira. Gauzatze-baliotzat hau joko da:
 - Araututako merkatuetan kotizaziora onartutako baloreetan, itxierako kotizazioa.
 - Merkatu antolatuetan negoziaziora onartu ez diren errenta finkoko tituluei dagokienez, gauzatze-balioa etorkizuneko fluxu finantzarioak eguneratuz zehaztuko da; tituluei dagokien arriskuen (likidezia, kreditua, herrialdea, etab.en) araberrako marginarekin edo prima batekin areagotutako errenboltso-balioa barne, merkatuko interes-tasetan.
 - Bestelako baloreei dagokienez, praktikan onartutako balio-irizpide arrazionalak aplikatuta lortzen dena izango da gauzatze-balioa.
- Higiezinak haien tasazio-balioaren arabera baloratuko dira, eta baimendutako erakunde-tasatzaile batek, gutxienez, urtero eguneratu beharko du balio hori.
- Kredituak uneko balioaren arabera baloratuko dira; hala ere, muga bermearen balioa izango da. Eguneratzeko, berriz, une bakoitzeko merkatuko interes-tasak erabiliko dira.

Hala ere, Dekretu horrek espresuki adierazten du Ogasun eta Herri Administrazio Sailak enplegu modalitateko aurreikuspen planetarako errenta finkoko balorazio arau espezifikokoak ezarri ahalko dituela aurreikuspen-planaren aktiboan jarraitzeko.

3.5. Inbertsio estrategiak


BASEek inbertsio estrategia egokiak aplikatu beharko dituzte beren bazkide eta onuradunek hartutako konpromisoei aurre egiteko. Ondoren, estrategia horiei eragiten dieten alderdirik garrantzitsuenetariko batzuk azaltzen dira.

3.5.1. Errentagarritasuna/arriskua binomioa

BASEetako inbertsio-estategiek kontuan izan behar dute errentagarritasuna / arriskua binomioa. Izan ere, errentagarritasuna maximizatzeko helburua ezin baita inbertsio finantzarioekin lotu gabe kontuan hartu, aurreko epigrafeetan aipatu izan den bezala. Horrela, errentagarritasuna / arriskua binomioa, arlo finantzarioko funtsezko printzipioetako bat da. Errentagarritasun handiagoa iragartzen duen edozein aukerak, nahitaez, arrisku handiagoa ekarriko du. Inork ezin du arriskurik gabeko aktiboak (Altxor Publikoko bonuak eta obligazioak, kasu honetan) duen errentagarritasuna baino handiagoa bermatu.

Grafikoki,


3.6. irudia



Tradizionalki, erabakiak hartzeko prozesuak errazteko, arrisku orokorren hiru profil mota identifikatzen dira:

- *Kontserbadorea*: Inbertitutako kapitala galtzeko arriskua saihestea garrantzitsuagoa da irabazi handiak lortzea baino.
- *Moderatua*: Arrisku pixka bat onartzeko prest egongo da, horrela, errentagarritasun handiagoa lortu ahal izango badu.
- *Erasokorra*: Errentagarritasun handiena lortzea, arriskuak hartuta bada ere.

3.7. irudia



3.5.2. Zorroen kudeaketa eta optimizazioa

Erakunde baten zorroa osatzen duten aktibo finantzarioak administratzen eta kudeatzen duen jardura gisa definitzen da, ahal den etekinik handiena lortzeko helburuarekin.

Nolabaiteko zorroen kudeaketa eraginkorra lortzeko, dibertsifikazio edo «Asset Allocation» kontzeptua sortu da. Arrisku ez-sistematikoa ezabatzeko helburuarekin, elkarren artean erlaziorik ez izateko joera duten errentagarritasun-mailako aktiboen aukeran inbertitzea da definizioa. Horrela, edozein aktibo ez-eraginkorren guztizko arriskua, honela bana daiteke:

- Dibertsifika daitekeen arriskua, behar bezalako dibertsifikazioarekin kosturik gabe ezaba daitekeen sektore edo jardura zehatz bati lotua. Merkatuak ez du arriskuagatik primarik eskaintzen, saihesteko.
- Dibertsifika ezin den arriskua, ekonomiaren egitura-baldintzak jasotzen dituen, aktibo ez-eraginkorren prezioa finkatzeko garrantzia duen bakarra da.

3.5.2.1. Markowitzen zorroaren Teoria

Markowitzen teoria²⁹ merkatuko zorroen kudeaketa eta optimizazio-teoriarik ohikoenetako bat da —horrez gain, ondorengo teoria eta eredu aurreratuen oinarria ere izan da—.


²⁹ Harry M. Markowitz, ekonomialari estatubatuarra, City University of New Yorkeko irakaslea. 1990ean Ekonomiako Nobel Saria lortu zuen Merton M. Miller eta William F. Sharpe-ekin batera ekonomia finantzarioaren teoria aitzindariagatik. 1952an zorroen aukeraren teoriaren eta ondorioz, kapital merkatuko orekaren teoriaren jatorritzat jotzen den artikulua argitaratu zuen.

Teoria horren arabera, inbertsio-zorro bat eratzeko arriskurik txikiena eta erretornurik handiena ekarriko diguten tituluaren osakerarik onena aurkitzea nahitaezkoa da. Kontuan hartu beharreko tituluak zein diren eta titulu bakoitzetik zenbat erosi behar den erabaki behar da. Zorroaren arriskua haren erretornuen bariantza edo desbiderapen estandar baten bidez neurtzen da.

H. Markowitzen teoriak hau proposatzen du:

- Lehenik eta behin, arrisku jakin baterako etekinik handiena eskaintzen duten zorro edo tituluak bilatzea, eta aldi berean, etekin jakin baterako arriskurik txikiena jasaten duten zorroak zehaztea. Zorro hauen izena «zorro eraginkorrak» da. Markowitzek eskaintzen duen konponbidearekin, Muga Eraginkorra izena duen kurba konbexua lortzen da:

3.8. irudia



Mapa honetatik hau ondoriozta daiteke:

- A, B eta C zorroak eraginkorrak dira, zeren erretornu jakin baterako gutxieneko arriskua baitakarte.

- D zorroa ez da eraginkorra, zeren B zorroak baino errentagarritasun txikiagoa baitakar arrisku-maila berdinerako.
 - Irudiko ABC marraren izena Muga Eraginkorra da.
- Arriskuaren eta erretornuaren arteko aukera onena inbertsiogilearen lehentasunen mende egongo da. Lehentasun horiek indiferentzia-kurben bidez irudika daitezke grafikoan. Bere forma erakundearen lehentasunen baitan egongo da.
- Teoria hau arriskua duten aktiboetan aplikatzen da soilik. Arriskua daukaten beste aktibo batzuk baino errentagarritasun handiagoak eskaintzen dituzten arriskurik gabeko aktiboak kontratatu ahal izanez gero, beharrezkoa izango da geroagoko beste teoria batzuetara jotzea, adibidez «Kapital-merkatuen linea»ren teoriara. Teoria horrek analitikoki adierazten du arriskurik nahi ez duen inbertsiogile baten arriskua daukaten aktiboak arrisku hori bere gain hartzeagatik behar bezala konpentsatzen bada soilik eskuratuko dituela. Horrela, ondorio horiei dagokienez, arrisku esanguratsu bakarra arrisku sistematikoa izango litzatekeela (ikus aurreko definizioa) ondoriozta daiteke, izan ere, ez litzateke arrazoizkoa izango kendu ezin daitekeen arrisku bat kentzearen ondoriozko konpentsazio ekonomiko bat jasotzea.

3.5.2.2. Zorroen kudeaketa-motak

Inbertsioen helburua erabakitzean, onena har daitekeen arriskuaren azterketa zehatz bat egitea izango litzateke; horrela, aktiboen zorro eraginkor bat osatu ahal izateko eta bazkide bakoitzarentzat egokia den errentagarritasuna/arriskua binomioa lortu ahal izateko, BASEen kasu zehatzerako behinik behin. Ez da harritzekoa, beraz, inbertsio-estrategia bakoitzaren egokitasunari buruzko eztabaida egotea, kudeatzaileak merkatua gaindi dezakeela pentsatzen duen ala ez kontuan izanda:

- *Zorroen kudeaketa aktiboa*: kudeaketa proaktiboa izatea da bere ezaugarria, merkatuko mugimenduei aurrea hartzen saiatzen diren aurreikuspenetan oinarritzeagatik, adostasun orokorrari muzin eginez eta haietaz aprobetxatuz.
- *Zorroen kudeaketa pasiboa*: erreaktiboa izatea da bere ezaugarria, hau da, kudeaketa-erabakiak merkatuak oro har onartutako aurreikuspenetara moldatzen ditu, ustiatzeko aukerak bilatzen saiatu ordez. Kudeaketa pasiboaren defendatzaileek argudiatzen dutenez, aldi luzeetan burtsa-indizeek kudeatzaileen errentagarritasuna gaituzten dute azkenerako.

— *Zorroen bestelako kudeaketa*: erretornu positibo absolutuak sortzen saiatzeagatik be-
reizten da; merkatu-baldintza desberdinetan, merkatu horietan ikusi gabeko joerekin
erlazionatu gabe, ezta aipatutako merkatuko erreferentzia-indizeekin ere. Horrela, ba-
loreen hautaketa zehatz bat egiten dute; betiere, inbertsio indibidualen aukeren arabera
eta ez merkatuan ikusten diren joeren arabera.

Glosarioa

A

Agintaritza ikuskatzailea (*Supervisory authority*). BASEak administrazioaren kontrol bereziaren eta ikuskapenaren menpe daude, ematen dituzten gizarte-estalduren arabera. Euskadiren kasuan, ikuskapen hori Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak egiten du. Ekonomi eta finantza ikuskapena Ogasun eta Herri Administrazio Sailari ere dagokio.

Aktiboa edo aktiboak (*Assets*). Entitatearen ondarea osatzen duten inbertsioen multzoa. Ondarearen baliokidea.

Aktiboen esleipena edo (ondarearen banaketa) (*Asset allocation*). Fondoaren ondarearen dibertsifikazioa edo osaera inbertsio modu eta mota ezberdinetan (akzioak, bonuak, likidezia, higiezinak eta bestelako aktiboak).

Aktuarioa (*Actuary*). Gutxienez ere pentsioengatik egungo eta etorkizuneko konpromisoak ebaluatzeko erantzukizuna duen pertsona edo entitatea, aurreikuspen-planaren finantza-kaudimena egiaztatzeko, egun onartuta dauden kontabilitate-metodoak eta metodo aktuarialak jarraituz.

Alarguntza eta umezurtzen pentsioa (*Death benefit*). Bazkide baten onuradunei ordaintzen zaie bazkidea hiltzen bada. Pentsio bat edo txanda batean egiten den ordainketa bat izan daiteke. Heriotza, erretiroagatik prestazioaren ondoren edo lanean dagoenean gerta daiteke.

Aldizkakotasuna (*Periodicity*). Aurreikuspen-plan bat harpidetzen duenean, bazkideak bere ekarpenen aldizkakotasuna ezar dezake, hileroko, hiru hileroko edo sei hileroko ekarpenak edo urteko ekarpen bakar bat aukeratzuz.

Amaierako soldataren plana (*Final salary scheme*). Prestazio mugatuko plan mota bat da, eta horren bitartez pentsioaren prestazioa orokorrean erretiroaren aurreko azken urteko edo azken urteetako sarreretan oinarritzen da.

Arrisku biometrikoak (*Biometric risks*). Pertsonen bizi-itxaropenarekin, heriotzarekin, baliaezintasunarekin eta biziraupenarekin erlazionatuta dituzten arriskuak.

Auditorea (*Auditor*). Pertsona edo entitate aditu bat, zeinari entitatearen kontabilitatearen eta finantzetako egoera-orrien auditoretza bat edo egiazkotasunaren egiaztapena egitea esleitzen zaion, hori guztia orokorki onartuta dauden metodoen arabera eginez.

Auditoretza (*Audit*). BASEek gutxienez hiru urtean behin auditoretza baten menpe jarri behar dute, eta hori egiten duten auditoreek profesional adituak eta independenteak izan behar dute

Aukera (*Option*). Kontratu honen bidez, norbaitek diru-kopuru bat ordaintzen du ondusunak edo eskubideak prezio jakin batean erosi edo saltzeko eskubidea izateko etorkizuneko data jakin batean. Dena dela, ondasun horiek ez dira nahitaez erosi behar.

Aurreikuspen-plana (*Pension plan*). BASEen prestazio-planak dira. Juridikoki loteslea den kontratua da, erretiroa helburu nagusi duena (edo baldintza fiskalak edo legezko xedapenak betetzeko helburua) eta prestazioak ezin dira ordaindu erreskatea salbu, baldin eta onuradunak ez badu legez ezarrita dagoen erretiro-adina gaintitzen. Erretiroa helburu nagusi izateaz gain, aurreikuspen-planek prestazio osagarriak eskaini ditzakete, hala nola baliaezintasunagatiko, gaixotasunagatiko, luzaroko langabeziagatiko edo alarguntzagatiko prestazioak.

Aurreikuspen-planaren aktiboak (*Pension assets*). Aurreikuspen-plan bat finantzatzen duten inbertsio-mota guztiak

Aurreikuspen-planaren arautegia (*Pension scheme regulations*). Dokumentu bat da, eta bertan honako gai hauek definitzen dira: aurreikuspen-plana eratu deneko pertsonen erretiroa, biziraupena, alarguntza, umezurtza, baliaezintasuna, gaixotasun larria edo luzaroko langabeziagatik errentak edo kapitalak jasotzeko duten eskubidea; planari nahitaez egin beharreko ekarpenak; eta ondarearen eraketa eta funtzionamendurako arauak.

Aurreikuspen-planen ikuskatzailea (*Pension regulator*). Pentsio-sistemen funtzionamendua arautu eta kontrolatzeko eskumena duen gobernuko agintari bat da. BASEetan zeregin hori Eusko Jaurlaritzari dagokio. Ikus era berean agintaritza ikuskatzailea.

Autoinbertsioa (*Self-investment*). Entitatearen ondarearen zati bat Enpresaburuaren/Sustatzailearen aktibotan edo baloretan inbertitzen denean, beti ere bere negozioari loturik erabiliak. Adibidez, enpresaren akzioen erosketa izan daiteke, edo mailegu bat ematea, edo baldintza jakin batzuetan, ondasun bat bere esku jartzea. Kasu gehienetan, planaren aktiboen ehuneko bost bakarrik inbertitu daiteke modu horretan.

B

BASE baten edo pentsio-fondo baten kudeaketa (*Pension fund governance*). Pentsio-fondo baten funtzionamendu eta zuzendaritzan datza. Gobernu-batzordea administrazioaren arduraduna da, baina beste espezialista batzuk erabil ditzake, hala nola aktuarioak, gordailuzainak, kontsultoreak, ondare-kudeatzaileak eta aholkulariak, funtzionamendu arrunteko zereginak egiteko edo gobernu-batzordeari planaren administrazioan aholku emateko.

BASEren erregistroa (*Pension schemes registry*). BASEek Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Ofizial batean inskribatuta egon behar dute gizarte-aurreikuspeneko eragiketak egiteko.

Baja (*Withdrawal*). Bazkide baten baja gertatzen da, onuradun izaerara igarotzen denean, hiltzen denean, erabateko erreskate bat egiten duenean edo planez aldatu nahi duenean.

Baliaezintasuna (*Disability*). Normalki lan egiteko ezintasun, fisikoa nahiz burukoa.

Baliaezintasunagatiko pentsioa (*Incapacity pension*). Bazkide batek duen gaixotasunak normalki lan egitea eragozten badio, kontzeptu horrengatik pentsio bat lor dezake. Prestazio hori bere pentsio-planaren arauen menpe dago erabat.

Balio justua (*Fair value*). Aktibo batek erosle baten eta saltzaile baten artean eskuz aldatzeko izango zuen prezioa, bietako inor erostera edo saltzera behartuta egon gabe, eta biek aktiboaren ezaugarri nagusiei buruzko behar adinako ezagutza izanik.

Balorazioa (*Valuation*). Hitz hori zenbaitetan balorazio aktuarialaren esanahiarekin erabiltzen da. Hori gertatzen da aktuario batek aurreikuspen-planeko aktiboen balioa egiaztatzen duenean eta planaren obligazioekin (pasiboa) konparatzen duenean. Aktuarioak enplegatzaileen eta bazkideen ekarpenak izango direnak kalkulatzeko dituzten jendeak bere pentsioak lortzen dituztenean planean behar adina diru izan dadin. Prestazio mugatuko planekin gutxienez hiru urtean behin balorazio aktuarial bat egin beharko da.

Balore higigarrietako inbertsio-fondoak (*Collective investment schemes*). Inbertsio-fondo bat da, eta bertan herritarrek inbertitu dezakete partizipazioak erosiz. Fondoak inbertitzaileen dirua erabiltzen du inbertsioak egiteko. Fondoaren kudeatzaileak normalki egunero fondoaren ondare-aktiboak baloratzen ditu, eta fondoaren partizipazioetarako prezio berria ezartzen du.

Banaketa-sistema (*Pay-as-you-go (PAYG) plan*). Ordainbidean dauden prestazioak aldi horretan jasotzen dituen kotizazioekin finantzatzen dituen sistema da. Belaunaldien arteko kontratu sozial bat da, eta horren bitartez lan egiten ari diren langileek erretiratuen pentsioak ordaintzen dituzte.

Banako erakunde edo planak (*Individual pension funds*). Bazkidea banaka atxikitzen deneko plana, bazkidearen aktiboak eta bere onuradunenak barnean hartzen dituena, normalki banako kontu batean. Kutxek, Bankuek eta Aseguru Konpainiek sustatzen dituzte.

Banako pentsio-planak (*Individual pension plans*). Plan horietan sustatzailea normalki finantza- edo aseguru-erakunde bat da, eta bertan bezeroak banaka sar daitezke. Plan horietan ekarpenak soilik bazkideak egiten ditu.

Barne-fondoak (*Book reserved pension plans*). Planaren sustatzailearen egoera-balantzean enpleguko aurreikuspen-planaren prestazioetarako hornidura gisa edo erreserba gisa agertzen diren kopuruak. Aktibo batzuk kontu bananduetan eduki daitezke prestazioak finantzatzeko, baina legez edo kontratuz ez dira pentsio-planaren jabetzako aktiboak. ELGEko herrialde gehienek ez dute finantzaketa-metodo hori baimentzen. Baimentzen dutenek, normalki galdatzen dute plan horiek planaren sustatzailearen porrotaren aurka aseguraturata egon daitezela, kaudimengabeziagatik berme-konpromiso baten bitartez. Estatuan soilik bankuetan, aurrezki-kutxetan, aseguru-konpainietan eta ikuskapen bereziko bestelako erakundeetan baimenduta daude.

Batez besteko soldataren edo lan-bizitzaren plana (*Career average scheme*). Prestazio mugatuko plan mota bat da, eta horren bitartez pentsioaren prestazioa lan egin den bitartean ekarpenak egiteko oinarritzat hartu diren soldata maila ezberdinetan oinarritzen da.

Batzordekidea (*Trust*). Pentsio-sistema bere bazkide eta onuradunen mesedetan kudeatzen duen organo kolegiatua osatzen duten pertsonetako bat.

Bazkide aktiboa (*Active member*). BASE bateko bazkidea, ekarpenak egiten ari dena (edo bere izenean ekarpenak egiten ari dira) eta ondarea eta pentsio-eskubideak metatzen ari dena.

Bazkide arruntak (*Ordinary members*). BASE bat euren mesedetan sortzen den pertsona fisikoen multzoa da, eta atxikitzeko borondatea adierazi dutenez eta behartzeko gaitasuna dutenez gero, Arautegian edo Estatutuetan aurreikusitako terminoetan egin dezakete.

Bazkidea (*Member*). Euskal arautegian bazkideak dira hala babesle edo sustatzaileak nola bazkide osoak edo arruntak. Bazkide babesleak pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke. Bazkide osoak pertsona fisikoak dira.

Benchmark. Planen errentagarritasuna konparatzeko erabiltzen diren aurrez ezarritako baremoak dira. Errenta finkoko planentzat Altxorraren Letrak edo Estatuaren Bonuak erabiltzen dira benchmark gisa, baina errenta aldakorreko planentzat benchmark gisa Ibx 35 indizea edo merkatuko beste edozein indize erabiltzen da, batez ere europarrak edo globalak.

Benetako errentagarritasuna (*Real rate of return*). Inbertsio batek inflazioaren gainetik duen errentagarritasuna da.

Berdintasun-tratua (*Equal treatment*). Araudi europarren indarrez, pentsioei buruzko legeak aldatu egin ziren, kasu askotan bi sexuak modu berean tratatuak izan behar dutela ezartzeko. Araudiak baimena ematen du sustatzaileak emakumeengatik ekarpen handiagoak egiteko, haien bizi-itxaropen handiagoa konpentsatzeko.

Bereizkeriarik ezaren printzipioa (*Equal access right*). Bereizkeriarik ezaren printzipioa hobeto azal daiteke positiboki hartuz gero, berdintasunari loturik. Horrela, pentsio-sistema askotan oinarritzko printzipiotzat hartzen da antzeko langileek pentsiotarako sarrera berdina izan dezatela. Hori guztia, berdinak berdina eta desberdinak desberdin tratatzen dituen jurisprudentziarekin erlazionatuta dago.

Berme-fondoa eta kaudimen-marjina (*Guarantee or solvency funds*). Erakundearen probisioen edo horniduren gainetik eraturako ondareak dira, kontrako egoera finantzario edo aktuarialei aurre egiteko.

Berrasegurua (*Reinsurance*). Enpresa aseguratzaile batek edo BASE batek gertakari jakin bat (adibidez aseguru baten heriotza) aseguratzen du eta gertakari berarengatik poliza bat tramitatzen du beste aseguru-konpainia batekin, azken horrek arrisku osoa edo zati bat beregain hartuz. Lehen aseguratzaileak hartu duen arriskua mugatzea da helburua.

Biziarateko errenta (*Annuity*). Prestazio edo aseguru-kontratu mota bat, prestazioko ordainketa finko edo aldakor bat bermatzen dute errenta moduan (hilero, hiru hilean behin, urte erdiro edo urtean behin) pertsonaren (biziarateko errenta baten onuraduna) bizitzan zehar. Biziarateko errenta bat ekarpen erregularren edo kapital baten ordainketaren bitartez lor daiteke. Prestazioak berehala has daitezke edo ezartzen den etorkizuneko une jakin batean edo adin jakin batean.

Biziarteko errentaren unisex tasa (*Unisex annuity rate*). Kapital bat errenta bihurtzeko faktorea da. Horietan, biziarteko errentaren tasa berdina da gizonentzat eta emakumeentzat

Borondatezko aurreikuspen sozialeko erakundea (BASE) (*Mutual provident society*). Pentsiorako aurrezki-erakundea da, Euskadiko lurralde eremuan, abantaila fiskal gorenak dituen eta, erretiroaren garaia iristen denean, ongizate maila hobetzeko aukera emango duena, Gizarte Segurantzaren erretiro-pentsioaren osagarri izanik. Aurrez esandakoa hala izanik ere, beti bere aurrezkiak berreskuratu ahal izango ditu, lehen ekarpenetik 10 urte igaro badira eta BASEak baimentzen badu, edo bestela, BASEak estalitako kontingentziaren bat gertatzen baldin bada. Badaude beste BASE batzuk osasun-kontingentziak, heriotzak, suteak eta abar estaltzen dituztenak.

Borondatezko ekarpena (*Voluntary contribution*). Ekarpene extra bat da, bazkide batek pentsio-fondoari nahitaezko ekarpenaz gain ordaindu diezaiokeena, erretiroko etorkizuneko prestazioak handitzeko xedez.

D

Defizit aktuariala (*Actuarial deficiency*). Egoera horretan, erakunde baten aktiboen balioa pentsioengatikoa betebeharren balorazioa baino txikiagoa da. Diferentzia hori defizit aktuariala da.

Deribatuak (*Derivative*). Finantza-tresna bereziak, adibidez opzioak edo etorkizuneko kontratuak deskribatzeko erabilitako termino orokorra da. Normalki, denboran mugatutako une batean finantza-aktibo bat erosteko edo saltzeko promesa edo betebeharrak biltzen duten kontratuak dira. Ezaugarrietako bat zera da: azpian dagoen aktiboaren, eta ondorioz deribatuaren balorazioa aldatu egin daiteke hasierako kostua edo kobrantza baino zenbateko askoz handiagotan. Bereziki etorkizunekoetan, irabazi edo galera oso garrantzitsuak gerta daitezke.

E

EET edo EEG fiskalitatea (*EET system*). Pentsio-planen ezarpen-modu bat, zeinaren birtartez ekarpenak salbuetsita dauden (E), inbertsioagatikoa sarrerak eta pentsio-fondoaren kapitalaren irabaziak ere salbuetsita dauden (E), eta prestazioak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin zergapetuta dauden (G edo T). Eredu alternatiboa TEE da.

Egozpena (*Atribution*). Bazkideek egindako ekarpenak zuzenak dira eta sustatzaileak bazkideen alde egiten dituenak ekarpen egotziak dira. Aurreikuspen-planetarako ekarpenak soilik enplegu-sistemako plan baten sustatzaileak egin ahal izango ditu, bere langile bazkideen alde, eta bazkideek beraiek, planaren modalitatea edozein izanik ere. Ekarpeneak egiten dituzten pentsio-planen sustatzaileek urteko aitortzen bat aurkeztu behar dute, bertan ekarpenak zein bazkiderentzat egin ziren banaka adieraziz, baita bazkide bakoitzak ekarritako zenbatekoa ere.

Eguneratzea (*Indexation*). Pentsioen prestazioak doitzeko erabiltzen den metodoa, bizitzaren kostuan dauden aldaketak kontuan izateko (adibidez prezioak edota soldatak). Ekarpeneak ere eguneratzen dira.

Ekarpen mugatuko plana (*Defined contribution*). Plan horretan, prestazioak eskusiboki ekarpenengatik eta horien etekinengatik metatutako kapitala dira. Beste zentzu batean, prestazio maila jakin bat bermatzen ez duen plan bat da.

Ekarpene (*Contribution*). Aurreikuspen-plan bati egindako ordainketa, planaren enpresaburu/sustatzaile batek edota horren bazkide batek egiten duena.

Enplegatzailea/Sustatzailea (*Employer*). Bazkideak lan egiten duen erakundea da. Sustatzaileak plana gauzatzen laguntzen du, eta normalki, planari ekarpenak egiten dizkio langilearen kontura.

Enplegu pentsio-planak (*Occupational pension plans*). Plan horietarako sarrera, planaren bazkidearen eta plana ezartzen duen erakundearen (planaren sustatzailea) arteko harreman profesional edo enplegu-harreman bati loturik dago. Enplegu-planak enpresaburuek edo enpresa-taldeek ezar ditzakete (adibidez enpresa-elkarteek), elkarrekin edo bananduta. Plana zuzenean sustatzaileak eta bazkideek edo erakunde independente batek administratu dezakete. Azken kasu horretan, planaren sustatzaileak eta bere bazkideek, hala eta guztiz ere, planaren funtzionamendua gainbegiratzeko erantzukizuna dute.

Enpresaburu/Sustatzailea (*Pension plan sponsor*). Erakunde bat (adibidez enpresa bat, sektore ekonomiko bat, enplegatzaile-elkarte bat) da, ekarpenak diseinatu, negoziatu eta orokorrean egiten dituena eta bere langile edo bazkideentzat enplegu pentsio-plan bat administratzen laguntzen duena.

Erreklamazioa (*Internal dispute resolution (IDR)*). Erreklamazio baten aurrean, aurreikuspen-plan batek metodo batzuk ditu, eta horien bitartez bazkideen kezka eta erreklamazioak aztertzea behar ditu.

Errenta itzulgarria (*Reversionary annuity*). Urteko errenta bat da, norbaiti prestazioak ordaintzen hasten dena beste pertsona bat hiltzen denean. Adibidez, pentsiodun baten alargunari prestazioak eman diezazkioke.

Errentagarritasun garbia (*Net rate of return*). Aktibo baten edo balore-kartera baten errentagarritasuna denbora-epe jakin batean, gastu eta komisio guztiak deskontatu ondoren.

Errentagarritasuna (*Rate of return*). Denbora-epe jakin batean aktibo bat mantenduz lortutako errenta.

Errentaren ordezen-tasa (*Income replacement rate*). Pentsioak, kobratzen zen soldatarekiko, hartzen duen ehunekoa.

Erreserba-fondo publikoak (*Reserva Fund*). Gizarte Segurantzaren erreserba-fondoak, sistema publikoaren etorkizuneko defizitak estaltzeko aktiboak metatzen dituztenak. Sektore publikoko pentsio-fondoek ezberdinak dira, horiek langile publikoak estaltzen dituzten zuzenbide pribatuko pentsio-fondoak baitira.

Erreskatea (*Redemption*). Pentsio-plan batek bazkideak uzten duenean ordain dezakeen kopurua da, prestazioa kausatu baino lehen. BASEen araudiak baimentzen du. Banako erakunde guztiek baimentzen dute, eta enplegu-sistemek normalki ez dute baimentzen. Araudiak galdatzen du lehen ekarpena egin denetik hamar urteko gutxienezko epea igaro behar dela.

Erretiro-adin normala (*Normal pension age*). Araudian ezarrita dagoen edo prestazioak erretiroa aurrez hartzeagatiko murrizketa aktuarialik gabe lortzen direneko erretiro-adin da. Orain 65 urtekoa da.

Erretiro-planak edo aseguru kolektiboak (*Pension insurance contracts*). Aseguru-kontratuak dira, horien bitartez pentsioengatiko ekarpenak eginez aseguru-konpainia bati, eta horren truke pentsio-planaren prestazioak ordainduko dira bazkideak erretiro-adin jakin batera iristen direnean edo aurreikusitako kontingentziaren bat gertatzen denean. Estatuko araudian, kontratu hauen barnean hartuta daude hala aseguru kolektiboak nola mutualitateen aurreikuspen-planak. Banako erretiro-plana ere egon badago, baina horren zerga-erregimena eta beste pentsio-sistemena ezberdinak dira.

Erretiro aurreratua (*Early retirement*). Pertsona batek erretiroa hartzea erabakitzen duenean eta pentsioaren prestazioak erretiroa hartzeko adin normala baino lehenago kobratzen dituenean.

Erretiro berantiarra edo atzeratua (*Late retirement*). Pertsona batek erretiroa hartzea erabakitzen duenean eta pentsioaren prestazioak erretiroa hartzeko adin normalaren ondoren kobratzen dituenean. Gaur egun, Hitzarmen Kolektiboek erretiro hori mugatu edo debekatu dezakete, sektore publikoan salbu.

Erretiro geroratua (*Postponed retirement*). Hori gertatzen da bazkideak lan egiteari utzi dion arren pentsioa ez duenean kobratzen, eta pentsioa geroagoko data batean kobratzen hastea erabakitzen duenean. Oso mugatuta dago pentsio-fondoetan.

Erretiro partziala (*Phased retirement*). Egoera horretan, pertsona bati erretiroagatik prestazioak jasotzen uzten zaio, lan egiten (normalki lanaldi murriztua) eta erretiro-planerako ekarpenak egiten jarraitzen duen bitartean.

Eskubide kontsolidatuak (*Vested rights*). Bazkide aktiboen eta pasiboen metatutako ondarea edo prestazioak.

Eskuratze-prezioa (*Historical cost*). Aktiboen balioa neurtzeko metodo bat da. Aktiboek hasiera batean kostatu zutena erabiltzen du. Higiezinetan, erregulariki kopuru bat kentzen da higadura normala eta denbora direla medio.

Estalitako prestazioak (*Coverage*). Aurreikuspen-planek estaltzen dituzten kontingentziak normalki honako hauek dira: a) bazkidearen erretiroa edo egoera parekagarria. b) bazkidearen laneko baliaezintasuna, osoa eta iraunkorra ohiko lanbiderako edo erabatekoa eta iraunkorra edozein lanetarako, eta baliaezintasun handia. c) bazkidearen heriotza, eta horrek alarguntzaren edo umezurtzaren prestaziorako eskubidea sor dezake oinordekoen edo bazkideak hautatzen dituen pertsonen alde. d) onuradunaren heriotza, eta horrek alarguntzaren edo umezurtzaren prestazioa sor dezake beste oinordeko batzuen edo bazkideak hautatzen dituen pertsonen alde.

Etendako bazkidea (*Deferred member*). BASE bateko bazkidea, eskubideak dituen baina plan batean dagoeneko kontribuziorik egiten ez duena eta prestazio berriak metatzen ez dituen, eta aurreikuspen-plan horren prestazioak oraindik jasotzen hasi ez dena.

Etendako eskubideak (*Frozen benefits*). Bazkide batek dagoeneko aurreikuspen-plan batetik sortu dituen prestazioak dira, bazkide aktibo izateari uzten dionean. Bazkideak prestazio horiek erretiroa hartzen duenean lortuko ditu.

F

Finantza-errenta (*Financial or certain annuity*). Prestazio edo aseguru-kontratu mota bat, onuradunaren bizitzarekin bat etorri behar ez duen denbora-epe jakin batean errenta edo pentsio bat ordaintzen duena.

G

Geroratutako eskubidea (*Deferred entitlement*). Plan bat uztea denboran geroratutako une batean pentsio bat jasotzeko eskubidearekin. Etendako eskubideen baliokidea da, normalki prestazio mugatuko sistemetan.

Gizarte-aurreikuspeneko mutualitatea (*Mutual provident entity*). Mutualismoa, Espainian tradizio handia duena, Gizarte Segurantzaren osagarria den gizarte-aurreikuspeneko sistema bat da. Mutualitateek beste aseguru-erakundeetatik bereizten dituzten zenbait ezaugarri dituzte: 1. irabazteko xederik ez. 2. autokudeaketa, aurreikuspenaren onuradunen kargura. 3. xede soziala, arrisku-estalduraren jarduera nagusiaz gain gizarte-izaerako jarduera osagarri bat duelako. 4. estatutu-harremana, ez da beharrezkoa mutua-aren eta mutualistaren artean kontratu-lotura bat egotea, aseguratutako mutualistaren harremana batzar nagusiak onartutako estatutuen bitartez ezartzen delako. **Gizarte-segurantz**a (Basic state pension) Pentsio bat da, sarrerekin erlazionatuta dagoena edo ez, pentsioen sistema publiko batek zerbitzuko gutxieneko urte kopuru jakin bat duten pertsonen ordaintzen diena.

Gobernu-batzordea (*Governing body*). Gobernu Batzordea: azken buruan BASE edo pentsio-fondoa kudeatzeaz arduratzen diren pertsonak dira, erretirorako sarrera-iturri segurua eskaintzeko helburu nagusiarekin. Funtzionamenduaren eta gainbegiratzearen erantzukizunak erakunde baten barnean batzorde ezberdinetan banatuta daudenean, gobernu-batzordea da erakundearen organo betearazlea. Pentsio-fondoa pertsona juridikoa ez denean, eta zuzenean finantza-erakunde batek kudeatzen duenean, erakunde horrek pentsio-fondoaren administrazio- eta finantza-zereginak betetzen ditu. Kasu horretan, Kontrol Batzorde batek Planaren gorabeheren buruzko erabakiak hartzen ditu eta inbertsio-politika definitu dezake.

Gordailuzaina (*Custodian*). Erakundearen edo pentsio-fondoaren aktiboak gutxienez gordetzeaz eta mantentzeaz eta horien zaintza ziurtatzeaz arduratzen den erakundea.

H

Hautagarritasuna (*Eligibility*). Edozeinek aurreikuspen-plan bateko bazkide izateko bete behar dituen baldintzak dira. Estatuko legerian, enpresan bi urteko antzinatasuna izatea galda daiteke. Plan horretako prestazioak jasotzeko aukera ematen duten eskubi-deen kontsolidazioaren desberdina da. Normalki kontsolidazioa denbora-epeei loturik dago, eta BASEen kasuan 10 urteko antzinatasunera iritsi daitezke.

Hilkortasun-taula (*Mortality table*). Adin bakoitzerako hiltzeko probabilitatea erakusten duen taula da.

Hipotesi aktuarialak (*Actuarial assumptions*). Aktuarioak balorazio aktuariala kalkulatzeko egiten dituen askotariko balioespenak (bizitza-luzeran, soldatan, inflazioan, aktiboen errendimenduan eta abar gerta daitezkeen aldaketekin erlazionatutako hipotesiak barne).

I

Ikuskatutako kontuak (*Audited accounts*). Gobernu-organismoek prest eduki behar izan dituzten eta planaren auditoreak ikuskatu dituen planaren kontuak.

Inbertsio-aholkularia (*Investment consultant*). Entitateari inbertsioen alorrean aholkuak ematen dizkion aholkulari profesionala. Trustee britainiarrek bat izendatu behar dute 1995eko pentsioei buruzko legearen arabera.

Inbertsio-printzipioen adierazpena (*Statement of investment (policy) principles (SIP)*) Erakundearen adierazpena, idatzizkoa eta publikoa, planaren aktiboen inbertsiorako politika estrategikoari buruzkoa.

Inbertsioa (*Investment*). Aurreikuspen-plan batean jarritako dirua eskubideak edo ondasunak, adibidez baloreak, akzioak, bonuak eta higiezinak errentagarritasuna lortzeko asmoz erosteko erabiltzen da. Inbertsio deritze.

Inbertsioei buruzko txostena (*Investment report*). BASEak edo pentsio-fondoak egin-dako inbertsioei eta bertan egindako erosketari eta salmentei buruzko informazioa eskaintzen du. Inbertsioak zergatik aukeratu diren eta edozein aldaketaren arrazoiak adierazten ditu.

Inbertsioen etekina (*Investment income*). BASE bateko edo pentsio-fondo bateko inbertsioetatik lortutako sarrerak dira.

Inbertsioen kudeaketa aktiboa (*Active investment management*). BASE batek edo pentsio-fondo batek erabil dezaketen inbertsio-sistema bat da. Merkatuak bere osotasunean ateratzen duena baino etekin handiagoa lortzen saiatzeko aktibo jakin batzuk erostea edo saltzea dakar.

Inbertsioen kudeaketa pasiboa (*Passive investment management*). Inbertsio-metodo bat da, indize bat edo merkatu bat erreplikatu edo jarraitu nahi duena arriskua mugatzeko eta kostuak murrizteko. Honako honetan oinarritzen da: kudeatzaile gehienek, gastu eta komisioen ondoren, merkatuarena baino errentagarritasun txikiagoa lortzen dute, eta oso zaila da merkatua sendotasunez gainditzen duten kudeatzaileak identifikatzea. Esate baterako, balore-burtsa bateko akzio guztiak edo gehienak erostea ekar dezake, akzio jakin batzuk erosi edo saldu orde. Askotan inbertsio-fondo pasiboen edo ETFen bitartez egingen da, akzio bat bezala kotizatzen baitute.

Informazio- eta publizitate-arauak (*Disclosure regulations*). Aurreikuspen-planen Gobernu Batzordeak bazkideei, herritarrei eta organismo ofizialei planari buruzko informazioa ematen dietenean jarraitu behar dituen arauak dira.

Iragandako zerbitzua (*Past service*). Data jakin bat baino lehen egin den zerbitzua da, pentsiorako eskubide baten sortzaile gisa kontuan hartzen dena. Era berean, pentsioagatik edo horniduragatik dagoeneko sortutako konpromisoaren baliokide gisa erabiltzen da.

Itxaro-epea (*Waiting period*). Pertsona batek enpresaburu jakin batekin enplegatuta egon behar duen denbora enplegatalearen pentsio-planean sartu baino lehen. Halakorik badago, epe laburrak izan ohi dira, gehienez ere bi urtekoak.

K

Kapitalizazioa (*Funding*). Metodo horren bitartez, ondare bat metatzen (aurrezten) da prestazioaren aurretik, dirua erabilgarri egon dadin etorkizuneko pentsioak ordaintzeko.

Kapitalizazio maila (ratioa) (*Funding level*). Aktiboen balio erlatiboa prestazio mugatuko aurreikuspen-plan baten edo plan misto baten pasibo edo konpromisoekiko, normalki ehunekoetan ematen dena.

Kapitalizazio partziala (*Partial capitalisation*). Guztizko konpromiso edo horniduraren zati bat aurrekapitalizatuta dagoen sistema. Forma espezifiko bat, kausatutako prestazioak kapitalizatuta dituzten baina sortzeko bidean daudenak kapitalizatu gabe dituzten estaldura-kapitalak dira. Praktikan ez daude baimenduta.

Kobrantsa-modua (kapitala, errenta eta mistoa) biziarteko errenta, aldi baterako finantza-errenta (*Ways of payment of the benefits (lump sum, annuity and mixed) life annuity, annuity certain*). Bazkide batek erretiroko adina betetzen duenean edo prestazioa kausatzen duenean bere prestazioak jasotzeko aukeratzen duen modalitatea da. Kapital gisa jasotzea aukera dezake, prestazio osoa txanda bakar batean jasotzen badu, edo errenta gisa, prestazioa erregulariki kobratzen badu, edo modu mistoan, prestazioen zati bat kapital gisa eta beste zati bat errenta gisa jasotzea aukeratzen badu. Biziarteko errenta bat aldizkako ordainketa bat da, normalki hilerokoa, pertsona baten bizitza osorako.

Kudeatzailea (*Pension fund administrator*). Azken buruan pentsio-fondo baten funtzionamenduaren eta zuzendaritzaren erantzulea den pertsona edo pertsonak.

Kudeatzailea (pentsioena) (*Pension fund managing company*). Administratzaile-mota bat, enpresa formarekin, bere jarduera bakarra pentsioen eta bere inbertsioen administrazioa izanik.

L

Lan-epe pentsionagarria (*Pensionable service*). Pentsioa kalkulatzeko kontuan hartzen den zerbitzu-epea.

Lehentasunezko obligazio edo kredituak (*Priority liabilities*). Pentsio-plan bat kitatu egiten bada, bertako ordainketa-obligazio batzuk besteen gainetik daude. Adibidez, pasiboetarako lehentasuna eman ohi zaie, euskal araudiak egiten duen bezala.

Likidezia-koefizientea (*Liquidity ratio*). Sistemaren kudeaketaren ondorioz sortzen diren ordainketei aurre egiteko fondoak duen diru likidoaren edo eskudiruaren ehunekoa da.

M

Menpekoea (*Dependant*). Finantzarioki pentsio-plan bateko bazkide (pasibo edo aktibo) baten menpekoea den pertsona.

Menpetasun-ratioa (*Dependency ratio*). Oro har, adin ez aktiboa dutenen arteko ratioa adin aktiboan daudenekoekiko, biztanleria jakin batean.

Merkatu-balioa (*Market value*). Aktibo bat merkatu irekian salduko balitz eskuz aldatzeko izango zukeen prezioa.

Metaketa-tasa edo eskubideen sortzapena (*Accrual rate*). Erretiroagatiko prestazioak handitzen dituen tasa, bazkideak prestazio mugatuko planetan egindako zerbitzuko urteak gehitzen joaten diren neurrian. Adibidez %1eko tasa batek esan nahi du 35 urte igaro ondoren dagokion oinarriaren %35eko prestaziorako eskubidea izango dela.

Metatutako eskubideak (*Accrued benefits*). Aurreikuspen-plan baten bazkide batek metatutako erretiroagatiko ondarea edo prestazioak, bere ekarpenen edo zerbitzuko urteen arabera.

Metatutako prestazioaren obligazioa edo hornidura (*Accumulated Benefit Obligation (ABO)*). Prestazio kontsolidatuen eta kontsolidatu gabeen balio aktuariala, langile batek data jakin bat arte egindako zerbitzuengatik duen prestazioen planaren arabera kalkulatu, egungo soldatak kontuan izanik.

Mobilizazioa (balioa) (*Cash equivalent transfer value CETV*). Pentsio-plan baten bazkide batek beste pentsio-plan batera lekualdatu dezakeen diru-kopurua da.

N

Nahitaezko ekarpena (*Mandatory contribution*). Planaren arauak kontuan izanik, bazkideari (edo bazkidearen izenean diharduen entitate bati) ordaintzea eskatzen zaion ekarpen maila.

Nahitaezko enplegu-planak (*Mandatory occupational plans*). Plan horietan parte hartzea nahitaezkoa da enpresaburuentzat. Pentsio-plan batean parte hartzera legez derrigor-tuta daude. Enpresaburuek enpleguko pentsio-planak ezarri behar dituzte (eta ekarpenak egin behar dituzte), eta bere langileak horietan sar daitezke. Enpresaburuek nahitaez enpleguko pentsio-plan bat eskaini behar dutenean, baina langileen sarrera borondatezkoa denean, plan horiek nazioartean nahitaezkotzat jotzen dituzte.

O

Obligazioen edo horniduren balioa (*Liabilities, value of*). Obligazio aktuarialek edo hornidura teknikoek, pentsioen kostuaren egungo balioa ordezkatzeko dute. Beste modu batean esanda, azken prestazioaren balioaren eta oraindik ordaindu egingo diren ekarpenen arteko diferentzia da. Ekarpene mugatuak, data jakin batean metatutako kapitala da.

Ohiz kanpoko ekarpena (*Extra-ordinary contribution*). Bazkideak edozein unetan eta berak erabakitzen duen kopuruarekin egiten duen ekarpena, beti ere ekitaldian legez ezarritako mugak errespetatzen badira eta BASEak baimentzen badu.

Ondare-kudeatzailea (*Asset manager*). BASE baten edo pentsio-fondo baten aktiboak fisikoki inbertitzeko erantzukizuna du(t)en pertsona(k) edo organismoa(k), zeregin hori eskuordetzen zaienean. Ondare-kudeatzaileek inbertsio-fondo baten inbertsio-estrategia ere ezar dezakete.

Onuraduna (*Beneficiary*). Prestazio bat jasotzeko eskubidea duen pertsona (planaren bazkidea eta haren senitartekoak edo menpekoak barne).

Onuradunen adierazpena (*Expresion of wish*). Pentsio-plan batek heriotzagatik, alarguntzagatik edo antzekoengatik prestazioak ordaintzen baditu, aitoren horretan bazkideak erakundeari esaten dio bazkidea hiltzen bada prestazioa nork jaso behar duen.

P

Partaide izatearen egiaztagiria (*Membership certificate*). Partaide/bazkide bakoitzari emango zaion dokumentua da, Pentsio Planaren/BASERen partaide dela ziurtatuz, eta bertan bazkidearen datu pertsonalak, ekarpenen plana eta hark izendatutako onuradunak agertuko dira, baita arautegiaren laburpen bat ere.

Pentsio-erakunde edo -fondo sektorialak (*Industry-wide pension funds*). Elkar erlazionatuta ez dauden eta jarduera edo sektore berean diharduten enpresaburuek ezarritako aurreikuspen-planetako aktiboak taldekatzen dituzten fondoak.

Pentsio-plan kapitalizatuak (*Funded pension plans*). Enpleguko pentsio-planak edo banakoak, planaren betebeharrak finantzatzeko aktiboak metatzen dituztenak.

Pentsio aldakorra (*Variable pension*). Pentsio mota horretan, kobrantzak ez dira konstanteak edo balio aldakorra dute. Aldakortasun hori, onuradunak hala erabaki duelako izan daiteke, edo merkatuko indize edo erreferentzia bati loturik egon daiteke.

Pentsio finkoa edo konstantea (*Fixed pension*). Bere zenbatekoa aldatzen ez duen pentsioa.

Pentsio Fondoa edo BASE (*Pension funds*). Pentsio-plan bati egindako ekarpenekin, normalki nortasun juridiko independente batekin, eskuratzen diren aktiboen multzoa, aurreikuspen-plan baten prestazioak finantzatzeko helburu bakarrarekin. Fondoaren/planaren bazkideek legezko eskubide bat, jabetzakoa edo kontratuzko beste eskubideren bat dute BASEren edo pentsio-fondoaren aktiboei loturik. BASEek, xede berezi bat eta nortasun juridikoa duen erakunde baten forma dute. Pentsio-fondoak legez banandutako fondoak dira, nortasun juridikorik gabe, finantza-zerbitzuen egile espezializatu batek (pentsio-fondoan kudeatzailea) edo beste finantza-erakunderen batek planaren/fondoaren bazkideen izenean kudeatzen dituela.

Pentsio malgua (*Flexible pension*). Pentsio horren zenbatekoa, onuradunak hautatzen dituen aukeren arabera edo erretiro-adin aldakor baten arabera kobratzen da.

Pentsio Plan/BASE bati atxikitze eskara (*Membership request*). Dokumentu horretan partaideak/bazkideak adierazpen bat egiten du Pentsio Plan/BASE bati atxikitze, horren bitartez ekarpenak eginez, eta Arautegian aurreikusitako prestazioak jasotzeko eskubidea emango diote. Dokumentu horretan partaideak/bazkideak pentsio-planaren/BASEren onuradunak izendatzen ditu. Partaideak/bazkideak onuradun horiek edozein unetan aldatu ahal izango ditu.

Pentsioaren egungo balioa (*Capitalised value*). Etorkizunean ordainduko den edo jasoko den kopuru batek egungo dirutan duen balioa da. Denbora-epean zehar interesa kontuan izanik kalkulatzen da (horri deskontu-tasa deritzo). Era berean, bazkidearen heriotzagatik dirua jaso gabe edo ordaindu gabe geratzeko probabilitatea (arriskua) kontuan hartzen da.

Pentsioen kanporatzea (*Assets ring-fencing*). Pentsioen kanporatze prozesuaren bitartez, enpresek beren ondaretik pentsioak finantzatzen dituzten aktiboak banantzen dituzte, eta erakunde independenteei edo kanpoko kudeatzaileei beren langileen gizarte-aurreikuspeneko planen kudeaketa esleitzen diete. Horrekin, langileek fondo horien kudeaketa txarra edo enpresak porrot eginez gero ondarea galtzea saihesten dute.

Plan integratua (*Integrated scheme*). Pentsio-plan osagarria, pentsio osagarria kalkulatzeko ordaindu behar den edozein oinarritzko pentsio kontuan hartzen duena.

Planen berrikuspena (*Pension schemes review*). Prestazioaren bat bermatzen duten planen sistema finantzario eta aktuariala aktuario batek berrikusi behar du eta, hala badagokio, gutxienez hiru urtean behin zuzendu behar du, soldaten bilakaera, inbertsioen errentagarritasuna, kolektiboaren heriotza-tasak, pasiboen biziraupena, eta dauden gainerako zirkunstantziak kontuan izanik.

Prestazio-eskaera pentsio-plan/BASE bati (*Benefit request*). Onuradunak/bazkideak metatu duen ondarea nola eta noiz jaso nahi duen ezartzen du dokumentu horretan, BASE horren araudiak kobratzeko modu espezifikoak aurreikusten dituen salbu.

Prestazio mugatuko plan «hibrido» (*«Hybrid» DB plan*). PM plan honetan, prestazioak ekarpenei esleitutako etekinaren arabekoak dira, eta etekin-tasa hori planaren arauetan zehazten da, mantentzen den edozein aktiboren benetako etekinetik kanpo (adibidez, tasa finkokoa, erreferentziazko merkatu batean indexatua, soldadari edo mozkinen hazkundeari loturik, eta abar), edo bestela mantentzen diren aktiboen benetako etekinaren arabera kalkulatzeko da, planaren arauetan zehazten den gutxieneko etekin bat bermatuz.

Prestazio mugatuko plan «misto» (*«Mixed» DB plans*). PM planak, Prestazio Mugatuaren eta Metatutako Prestazioaren osagaiak dituztenak, baina plan beraren zati bezala tratatzen direnak. Era berean, mistoak dira hala ekarpena nola prestazioa zehazten dituztenak, dagozkien doikuntza-tresnekin.

Prestazio mugatuko plan «tradizional» (*«Traditional» DB plan*). PM plan honetan, prestazioak soldatei, enpleguaren iraupenari eta bazkideen bestelako alderdiei loturik daude formula baten bitartez.

Prestazioa (*Benefit*). BASE bateko edo pentsio-fondo bateko bazkide bati (edo bere menpekoei) egindako ordainketa haren erretiroaren ondoren edo beste edozein kontingentziaren ondoren, adibidez heriotza edo baliaezintasuna.

Prestazioa kausatzea (*Immediate entitlement*). Eskatzen diren baldintzak betetzen direnean, pentsio-eskubidea ezartzen da.

Proiektatutako prestazioaren obligazioa edo hornidura (*Projected Benefit obligation (PBO)*). Prestazio kontsolidatuen eta kontsolidatu gabeen balio aktuariala, langile

batek data hori arte egindako zerbitzuengatik duen prestazioen planaren arabera kalkulatu, langileen etorkizuneko soldata mailak kontuan izanik.

S

Sarrera-data (*Entry date*). Langilea aurreikuspen-plan bateko bazkide egin daitekeen eguna, edo berez hori egiten duen eguna da. Euskal araudian egunetik egunera zenbatzen dira.

Segurtasuna (*Security*). Pentsio-planen/BASEen alderdi erabakigarritako bat da, epe luzerako aurrezkiaren bitartez kapital bat eraikitzea delako helburua. Urteko auditoretza bat, erakunde kudeatzaile bat, gordailuzain bat eta kontrol-batzorde bat, pentsio-planen segurtasunerako funtsezko elementuak dira.

Sistemaren menpetasun-ratioa (*System dependency ratio*). Orokorki, erretiroagatiko prestazioak jasotzen dituztenen eta erretirorako kotizatzen eta eskubideak metatzen ari direnen arteko ratio bezala definituta dago. Banaketa-sistemen sendotasunaren adierazle bat da.

Soldaten araberako eguneratzea (*Wage indexation*). Erretiroagatiko prestazioak doitzeko erabiltzen den metodoa, soldaten gehikuntza kontuan izanik. Normalki herrialde anglosaxoietan bakarrik aplikatzen da.

Sustatzailea (*Sponsor*). Pentsio-plan/BASE bat eratzen duen subjektua, eta halakotzat hartuko da Plana sortzea bultzatzen duen edo garapenean parte hartzen duen erakunde, korporazio, sozietate, enpresa, elkarte, sindikatu edo kolektibo oro, edozein motatakoa izanik ere.

T

Transferentziaren balioa (*Transfer value TV*). Eskubideen mobilizazio edo transferentzia bat bezala ordaindutako kopurua da.

Txosten aktuariala (*Actuarial report*). Aktuarioak balorazio aktuarialean oinarrituz prestatzen duen txostena, BASE baten edo pentsio-fondo baten finantza-egoera deskribatzen duena.

U

Unisex hilkortasun-taula (*Unisex mortality table*). Heriotza-tasa gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat berdina duen hilkortasun-taula.

Urteko kontuak (*Annual accounts*). BASEen eta Pentsio-fondoan eta horien erakunde kudeatzaileen ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da, eta ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen hiruhilekoaren edo lauhilekoaren barnean erakundeek dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute ondoren organo kudeatzaileek onartzeko.

Urteko pentsioaren balioespena (*Pension forecast illustration*). Bazkide batek lortu dituen edo lortuko dituela aurreikusten den erretiroagatiko prestazioen adierazpena da. Urteko pentsioaren balioespena igurikapen edo iragarpen jakin batzuetan oinarrituta egongo da, eta beraz, bazkideak berez lortzen dituen prestazioak segur aski ezberdinak izango dira. Iragarpen horiek normalki ekonomiaren eta finantzen, eta araudien aldagaiei, eta karrera profesionaleko aldagaiei buruzkoak dira.

UTB (Urteko tasa baliokidea) (*Annual percentage rate APR*). Edozein interes-tasaren edo errentagarritasun sinpleren adierazpena da, urtea oinarritzat hartuz. Inbertsio-epea urte betekoa izango balitz aktiboetatik lortuko litzatekeen errentagarritasuna da. Adibidez, hiru urteko epe batean lortutako %65eko errentagarritasun arrunt bat %18,7ko UTB baten baliokidea da; 3 urteko epe batean %2,5eko errentagarritasun arrunt bat urteko %10,38ren baliokidea da.

Urteko txostena edo memoria (*Annual report*). BASEak edo pentsio-fondoak urtero prestatzen duten txostena, bere funtzionamenduaren eta gainerako informazio garrantzitsuen berri emanez, eta informazio horren bitartez BASEen edo pentsio-fondoan gobernu-organoezkoen alderdi guztiei informazioa ematen diete.

Bibliografía

- BAREA TEJEIRO, J., GONZÁLEZ-PÁRAMO, J. M. VELARDE FUERTES, J.(1997), *Pensiones y prestaciones por desempleo*, 2.ª edición Bilbao Fundación BBV.
- JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. Lan eta Gizarte Segurantz Zuzendaritza, (2006) *Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Diagnostikoa eta Plana Euskadin* , Eusko Jaurlaritza.
- JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. Lan eta Gizarte Segurantz Zuzendaritza, (1993), *Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak*, Eusko Jaurlaritza; III eta IV BASEi buruzko hitzaldiak , 1995.
- JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. Lan eta Gizarte Segurantz Zuzendaritza (2005), *Aurreikuspen Sozial Osagarriaren 2005.ko Txostena, Aurreikuspen Sozial Osagarriaren Adierazleetan oinarritutako diagnostikoa*. http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45-5159/es/contenidos/informacion/dd_psc_informe_2005/es_kh/adjuntos/Informe%20Pr.%20S.%20Compl.%202005.pdf
- JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA, *Gizarte Aurreikuspenaren Euskal Behatokia*, www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45-5102/es/
- EUSKADIKO GIZARTE-EMENDIOTARAKO BORONDATEZKO ERAKUNDEEN BATERAKUNDEA <http://www.epsv.org/home.php>.
- HERCE, J Y MESEGUER, J. A. (2000), «La Reforma de las Pensiones ante la revisión del Pacto de Toledo» en *Colección Estudios e Informes*, n.º 4, Servicio de Estudios de la Caixa.
- HERCE, J Y PÉREZ DÍAZ, V (dir.) (1995), «La Reforma del Sistema Público de Pensiones en España» en *Colección Estudios e Informes*, n.º 4, Servicio de Estudios de la Caixa.
- MAPFRE (2007), *Informe Previsión Social Complementaria en España*. Septiembre de 2007.
- MILES, D Y TIMMERMAN, A. (1999), «Risk Sharing and Transition Costs in the reform of Pension systems in Europe», *Economic Policy*, Octubre, 251-286.
- EKONOMIA ETA OGASUN MINISTERIOA, Dirección General y de Seguros y Fondos de Pensiones, *Informe 2007 Seguros y Pensiones*.
- LAN ETA INMIGRAZIOKO MINISTERIOA, *Estadísticas. Evolución del número de pensionistas y de pensiones. Periodo 1998-2008*.

LAN ETA INMIGRAZIOKO MINISTERIOA (2008), «¿Las nuevas afiliaciones pueden sostener las prestaciones por jubilación en las próximas dos décadas? Una comparación empírica con los modelos anglosajón y escandinavo» en *Fondo de Investigación de la Protección Social*, responsable del estudio de investigación: Daniel Palacios Marqués. 5 de marzo de 2008.

LAN ETA INMIGRAZIOKO MINISTERIOA (2008), «Cambio demográfico y sistemas de pensiones en España: efectos redistributivos intra e intergeneracionales» en *Fondo de Investigación de la Protección Social*, responsable del estudio de investigación: Alfonso R. Sánchez Martín (universidad Pablo de Olavide). 5 de marzo de 2008.

LAN ETA GIZARTE GAIETARAKO MINISTERIOA, *El Estado de Bienestar en España y las CC.AA. Análisis de Indicadores Claves*. Marzo 2007.

LAN ETA GIZARTE GAIETARAKO MINISTERIOA, *La cuantía de las pensiones a medio plazo, sus efectos sobre el sistema de pensiones y el estudio de alternativas*. Diciembre 2007.